

EGĀN



1-6

1968

Suplemento de Literatura del Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País
Redacción: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Palacio de la Diputación de Guipúzcoa

SUMARIO

Págs.

<i>Joan Goikoetxea Matza, S. J., Gamiz, arabar euskal olerkaria</i>	3
<i>Aita (L.) Akesolo, R. M. Azkue</i> zanaren frantsesezko itzaldi bat.	6
<i>Hermann Hesse-Markue, Yurre'tar</i> <i>Yulen, Olerkiak</i>	9
<i>N. Soloeta-Astarbe. Torrezarreko</i> seme-alabak	35
<i>I. Fagoaga: Agotak</i>	40
<i>R. Bozas - Urrutia: Nere urteen</i> bildumatxo	46
<i>Bitañõ: Kontu kontari. Aize Erro-</i> ta	51
<i>Larresoro: Denborari buruz</i>	53
<i>Aita Villasante: Oñatiko euskera</i>	80
<i>Ant. M. Labayen: Oñati'ko Eusko-</i> lkaskuntzaren batzarra eta Eus- kaltzaindia	95
<i>E. Allan Poe. Karta ostua</i>	106
<i>Etxeberria'tar P. Tao-Te Txing</i>	124
<i>Apat-Etxebarne: Naas-maas</i>	135
<i>A A: Jan-edanak</i>	142
<i>Adabakiak</i>	145
<i>N. A. G., H. V. B., J. San Martín:</i> Liburuak	146

DIRECCION Y REDACCION:

A. Arrue, A. Irigaray y L. Michelena

Números 1-6

Enero - Diciembre, 1968.

Impreso en Gráficas Colón, S. L. - S. S.

EGAN

En cumplimiento de cuanto establece el Art. 24 de la Ley de Prensa e Imprenta, se hace constar los nombres de las personas que constituyen los órganos rectores de la publicación, así como una nota informativa sobre su situación financiera.

Director: Luis Michelena.

Consejo de Redacción: Angel Irigaray, Antonio Arrúe y Luis Michelena.

ESTADO DE CUENTAS

Gastos	92.800 Ptas.
Ingresos (Suscripciones)	18.000 "
<hr/>	
Aportación del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", de la Exema. Diputación de Guipúzcoa	74.800 Ptas.

DEPOSITO LEGAL: S. S. 289 - 1958

Impreso en Gráficas Colón, S. L. P.º Colón, 4, S. S. - Enero, 1969.

EGAN

SUPLEMENTO DE LITERATURA DEL BOLETIN
DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS

Dirección y Redacción: A. Arrúe, A. Irigaray y L. Michelena

Redacción: SEMINARIO URQUIJO DE FILOLOGIA VASCA
Palacio de la Diputación de Guipuzcoa - SAN SEBASTIAN

V Epoca

Vol. XXVII

Enero-Diciembre, 1968

GAMIZ, ARABAR EUSKAL OLERKARIA

Gamiz bere ixil eta izkututik argira A. Azpiazu Joakin-ek atera zun. 1923-ko euskal egunetan, Doneztebe-n, Azpiazu-k emandako berri gutxi batzuk or zabaldu dira Onaindia, Mitxelena, Baztarrika, Anai Berriotxo eta, agian, besteren baten idaztietan. Euskal-erdal idazle, orduko modura maite-gai arin irudipenezkoak darabilzkiana dala Gamiz, dio Azpiazu-k.

Azpiazu-k dion «paper zarrak» Loyola-artxibuko liburu esku-iskribatu bat dira. 180 orrialdeko pergamin-azalezko liburua, 22 × 16 luze-zabalekoa, letra txukunezko olerkiz betea. Orri oietatik, 147-150 arteko orrialdeak baizik ez dira euskerazkoak. Euskal-erdal idazle izen ortatik doi doi dagokio ba leenengo «euskal» deitura puskatxoa Gamiz-i.

Arabarra zan Joan Batista Gamiz, 1696-ko apirillaren 8-an, Sabando-n jaioa. 1716-ko apirillaren 21-ean, Villagarcia-n (Valladolid) jesuita sartu zan. Gamiz, Anai jesuita sartu zan, eta Anai iraun zuan, Carlos III-garrenak jesuitak Italia-ra erbestetuta, Casa-Lequio-n, Bolonia-ko bazter-auzoan, 1773-ko apirillaren 28-an ill arte. 1720-tik ondoren, Coruña-n sukaldari eta Valladolid-en diru-zaiaren lagun egonaldiak egiñik, 1730-rako Iruña-ra aldatua ikusten dugu. Napar

uri-buruan, ikastetxeko diru-zai beti, iraungo du, 1767-z gerozko erbeste-aldira arte.

«El pobrete Babazorro» onek Iruña-aldikoa du bere buru-lantzea ta eskolatzea. Letraz naparra da arabar au. Iruña-ikastetxeko letra-giroa erantsi nunbait-edo; an bizi izan bait-zan A. Isla erdal-idazlearen eta Mendiburu euskal-idazlearen lagun. Norbaitek zirikatuta asi zan euskeraz idazten. Mendiburu-k akullatuta ote? Baño oyartzuar au gabe ere, euskaldun aunitz zituan Gamiz-ek bizi-lagun. Gaiñera, etxetik bezin errez artu zezakean kanpotik ere, Iruña-tik ain zuzen, diogun bultzadatxoa.

Bi olerki luze eta lau llabur, dira Gamiz-en euskal-olerki-lan guzia.

- I. «Euscaraz gaiztoetan. Ofrecimedu (sic) batzuc. au, eguin za, Garezeraco (sic!)». 22 ahapaldi dira, launa bertsoak; beraz 88 bertso, guztira.
- II. «Dabilcenchoac». 17 ahapaldi, zazpiña bertsoak; 119 bertso, danera. Irar-utsegite askotxokin Azpiazu-k argitaratua: «Bigarren Euskalegunetako Itzaldiak Doneztebe-n». Gaubeka. Bermeo (1926).
Olerki bi oen tartean, ze atarramentuz ezin asmatu, bertso edo lerro-pare au dago: «Sasquibat Ardo ezansuena / ta picherbat oguia».
- III. «Oñekochoa, verce aldeco dabilcen / choac Cantatzeco. tonua-requin». Zortzi bertso, guztira.
- IV. «Veste bat, arendaco». Bi bertso, guztira; bertso-izen eramateko diña baldin ba dira.
- V. «Vete (sic) bat ere bai aren daco». Lauko txikia da, izan.
- VI. «Veste tunucho (sic) berribat». Amazazpi bertso, euskerazko azkenak. Beraz, 238 bertso osatzen dituzte Gamiz'en sei olerki-saioak.

Erdal-saillean, millaka bertso ditu Gamiz-ek; 150 bat orrialde bete beteak, eta 150 bertso orrialdeak batzuk. Oietatik bi, giltzako letraz edo clavez idatziak ditu. Pergamin-azalaren barruk-aldeari erantsita, noizpaiteko artxibu-zairen baten orritxoa dago, eskuz idatzita: «...de quien (de Gamiz) hay muchas cartas en el archivo de Loyola». Ez ditut eskutitz auek irakurri, ez arkitu ere gure artxibu mare magnum ontan. Auek dira, dakigularik, Gamiz-en idaz-lan guztiak.

Gamiz, iñoiz beretzako, bere ixillerako, ari izan da bertso-lanean. Iñoiz, olakoari edo alakoari bidaltzen dizkio bertsoak; baño ez ditza-

la zabaldu, eskatuz. Olakotan, bestelako bere eskutitzetan sartuta igorri ditu, zabal-debekurik gabe. Alakotan, liskarren bat sortuta, Gamiz-engana datoz alde batekoak, bestaldekoak astin ditzan; gure bertsolaritara joan oi ziran bezelatsu. Bertso-fama aundia zuala dirudi Gamiz-ek. Izarra-n, Granada ko dukesak puntua ipiñita («dando pies»), bat-bateko bertsoak eskatzen dizkio, bazkaritan. Gamiz aoa itxita egon da; baiño etxeraturik, bertso-erantzun luzea bidaltzen dio andre andikiari, ziri ta guzi:

«Ganadito irracional
son las Mugeris y Abejas»...

Ez da olermen-irakite aundikoa Gamiz. Ba daki «numen sin quilates» dala berea. Bere denborako Larramendi-ren eta Recio-ren gainetik aixa dago alare, nai luke-ta; ez ordea bere Valladolid-aldiko lagun Meagher eta Basterretxea bezin goitik. (Michelena, Hist. Lit. Vasca, 116.) Bere maiteak kantatzen ditu, euskal-bertsoetan, irudipen utsezko maiteak, iñolaz ere. Erderazko bertsoak, ordea, emakume irudituekikoak ez baiña, ezur eta mamizkoekikoak dira, antza: «A cierta doncella fea»; «A una presumida...», etab.

Geienetan, ez-gauza ta eguneroko txirribirriak ditu kanta-gai. Arazo aundi aundi oietakorik ez. «Que soy un pobre lego / y mi ignorancia no alcanza...» Bertso-kera, oso bajutik dabil askotan. Olerkiak badirudi, ega-arin, aize garbitan egazkatu bear lukeala. Baiño ez; emen, kakalardo beltz, lurrazpiko kirats-erretenetan likistuta doa osin beltzetara. Aziera-eziera txarreko esaldirik ere ba du, ortako iztegia uzteraiño. Euskerazkoak ditu garbienak, edo guztiz garbiak, egia esateko.

Izkuntza-larientzat sail obeak izango ditu Gamiz-ek, noski, euskal bertso ta letrazaleentzat baño. Naparlariak eta arabalariak pozik izango dira, probintzi bietako berri bitxi aunitz bai-ditu arabar napar onek. Oraingoz bego ontan nere lantxo au, Gamiz ilda berreun urte betetzean, argitasun osoagoak eman-zai.

Joan GOIKOETXEA-MAIZA, S. J.



R. M. Azkue Zanaren Frantsesezko Itzaldi Bat

EGAN-en orrietan azalduta, edozeiñek ikusi ta irakurri al izan dau eztabaidatxo bat ea Azkue jaunak, bere Iztegi aundia atera ebanean, ba ete zekian frantsesik, ala ez. Eztabaida au iperkritikaren bidetik edo, obeto esateko, ipekritikarenetik eroan ez ete dan nago ni, une batzuetan beintzat. Orain bide obean sartu dala esango neuke. Eztabaidak asi ta sortzen errazago da, ondo argitu ta amaitzen baño.

Erkiaga jaunak ainbat ageri eskiñi ditu gai au argitzeko. Eta nik beste bat erakutsi nai dot, Erkiagak atera dituenak baño lenagokoa: Azkuek Tours'en bizi zala egin eban itzaldi bat, eta bera, argitaratua. Baña au da gure zoritxarra: leku gitxitan daukagu euskal-liburutegi osozkorik, eta askok ez dabe ezagutu bere egingo.

Ona itzaldi orren titulu osoa: *Allocution adressée par M. l'Abbé Resurrection Maria de Azkue, docteur en Théologie, aux congréganistes de Marie Immaculée le 28 mai en la chapelle du Collège Saint-Grégoire de Tours*. Amasei orrialde ditu.

Ikastetxe orretako nagusiak eskatuta egin eban itzaldi ori. Asierako itzetan onelantxe diño Azkuek berak:

«Il y a, chers frères, des souvenirs qui sont en faveur dans notre mémoire, sans qu'on puisse se rendre compte pourquoi. Lorsque notre bien-aimé Père et directeur m'a fait l'honneur, si difficile pour moi, de m'inviter à vous adresser la parole, la première pensée qui m'est venue fut un exemple que j'ai appris quand je faisais ma rhétorique: «L'habitant d'Aragon (en Espagne) est franc, disait l'auteur du livre, le Navarrais est gai, le Français, est hospitalier». Cette pensée, vieille de vingt-cinq ans, est tombée dans mon coeur comme un baume de soulagement. Vous, Français, vous avez en effet, parmi bien d'autres, la vertu de l'hospitalité. Je l'ai bien éprouvée jusqu'à présent, et je crois que vous me l'accorderez dorénavant et surtout dans ce moment.»

Tours'en bizi zala, Azkue ez zan, aurki, mutu egon. Eta frantses egiten ikasi eban, eta artarako erreztasun puska bat lortu bere bai, agiri danez. Bestela, zelan aginduko eutsen olango itzaldirik egiterik?

Eta Azkuek, agindu edo eskari ori artzean, ba ekian, bai, bere frantsesa etzala izango jatorrena. Berak be autortzen dau nekezko lana zala beretzat aitaturiko itz orreitan, eta bai bigarrenez bere, azken-aldean: «Souvenez-vous de ce que vous dit cet étranger, qui s'exprime péniblement, mais qui vous aime bien.»

Dana dala, ikastetxe aretan eurai frantses itz egiteko gaitzat eza gutzen eban. Bestela, ez eutsen olako nekerik gañean ezarriko.

Ordurako, bigarren urtera joain Azkue jaunaren ango egotaldia. Eta frantsesen izkuntza ikasteko eta erabilteko erarik bere izan eban, eta beraz ez eban galduko. Itz egin eta irakurri, biak egiten zituan. Itzaldian bertan diñoanez, esaterako, egunekoak irakurri barik ez eukan onik:

«Ce sont, à mon avis, nos lectures habituelles qui couvrent d'une certaine couche anti-spirituelle notre âme. Ce que nous lisons plus habituellement et avec le plus d'empressement, ce sont les journaux. Moi, pour ma confusion, je fais devant Dieu et devant vous la confession que le jour où je n'ai lu la feuille des événements quotidiens, je me trouve plus vide que si j'avais omis la lecture spirituelle. Vous accorderez qu'un prêtre lira les feuilles convenables, et cependant rencontre-t-on dans la plupart des journaux catholiques le mot, le doux mot, le doux mot de Providence?»

Geroago, gauza jakiña da Azkuek Paris'en eta Bruselan be egin zituala bere egotaldiak, Musika-gaietan jakitunago egiten. Eta era batera, frantseserako trebetasun andiagoa lortzen. Baña Tours'en egin eban egotaldiari baño ez gagokioz emen. Esan danetik naiko argi dago ez zala orduan Azkue frantsesez egiteko norbaitek asmatu dauan baixen totela ez mutua. Urrik emotekorik bere ez.

Beste argitasuntxo bat bere atera leitekela uste dot Azkue jaunaren orduko itzetatik. Tours'ko itzaldi orretan, eginda urrengo urtean antxe bertan argitaratu eban orretan, Saint-Grégoire-ikastetxeko nagusiari «notre bien-aimé père» esaten deutso. Zer esan nai dau orrek? Ikastetxe orretan bizi zala ostatuz, aurki, ango anai ikasleekin batera. Orregatik dauka ango aita nagusia bere aitatatz, aita maitetzat. Eta ango anai ikasleak lagun ta adiskide miñak zituen.

Eta —orra ortik datorkigun argi-izpi barri bat— Azkue zanak bere Iztegiko prantsesa berea ez badau, iñork lagundurik egiña baldin badau, laguntzaille izan ebalako ori ez ete dogu billatu bear Ikastetxe aretako anaien batengan?

Baietz erantzuteak legezko dirudi. Siñistu eziñik ez dauko. Onetan, ango Anaidiko ikastetxea zuzentzen eban Anaidiko artxiboetan daukagu, bear bada, argi betea egiteko aukera. Uste au ez litzake gutziz okerra, Azkuek bere Iztegia Tours'era orduko egiñik euki ez baleu.

Au idatzi ta gero, beste iturri batera jotea etorri jat burura. Bilbo'ko Berriotxoa-ikastetxeko adiskide bateri deitu deusat. Ba-dakigu artu-emon andia izan ebala Azkue zanak Ikastetxe orretako sortzailleekin. Eta Iztegia amaitu baiño naiko aurreragotik asita. Eta ona zer esan deustan. Bai, euren arteko batek egin ei eutsan itzulpena, edo orretan lagundu. Laguntzaille onen izena: François Joseph Lapeyre, gaskoina, 1929'en urtean il zana.

Anai au 1902'garrenerako Bilbo-aldean zan, Txorierri-aldean, Guardamino jaunak emon edo zuzendutako etxetxoren baten. Jakintua ei zan bera. Baña urte orreitan ez ei eban egiten eskola-lanik. Etxeko kontu ta sartu-urtenen goraberen ardurea eroan, besterik ez. Eta astitsu aurkitzen ei zan Azkue'ri laguntzeko. Urte batzuk aurreragokoa ei eben alkarren ezaupidea, Azkue jauna Lapurdi-Zuberoaldetik euskal-itz eta kanten billa asi zanetikoa.

Ploermel'ko anai orrek izan ziran Azkuek berak Jardines-kalean sortu eban edo sortu nai izan eban euskal-ikastetxean zuzendari ta irakasle ipiñi nai izan zituenak. Onetan uts emon eutsen Azkue'ri. Baña bateko ta besteko alkartasun ona ez zan otzitu, ezelan bere. Lapeyre'k eta biak, batez bere, luzaro jarraitu ei eben alkarrekin lanean.

Berriotxoa-ikastetxeko adiskide orri itandu deusat gero ea zer moduz ebillen Azkue frantsesen izkuntzan eta berak, beste anai batzuekin itz eginda gero, alkar-izketan ekiteko aña, mugaz aruzko Euskalerritik ibiltzen asi zan ezkerok ekiala. Beraz, oso gazterik asita.

Eta Tours'en ez ete eban beste laguntzaillerik euki? Emen bere eztago baietz erantzun eziñik. Azkue jaunak amaituta eukan 1902'garrenerako bere Iztegia. Esan danez, ordurako asita egoan bera ta Lapeyre anai Ploermeltarraren alkar-lana. Baña, Tours'en zala, Paris'tik eta Londres'tik ostera batzuk eginda, eta beste bide askotatik itz barri asko pillatu ta pillatuz, naiko geitu eban bere ordurarteko lana. Eta zergaitik ez eban orduan Tours'koren baten laguntza eskatuko? Zergaitik siñistekotzat ez artu ango ta emengo laguntasuna, Tours'koa ta Bilbo'ko Lapeyre anaiarena?

Itaun onekin amaitzen dot lantxo au. Ba dakit eta autor dot asierako aritik urtenda nabillala. Tours'ko itzaldi ori dala-ta, oar batzuk egin nai izan ditut. Eta azken-orduko telefono-deiak argibide barri bat jarri deust aurrean.

Labur esanda, bego or nik adierazo nai izan dodana. Eta bego or agertu jakun argi-izpia: bear bada, Azkue aundiaren Iztegia frantsez jarri ebana François Joseph Lapeyre izan zala, Anai Ploermel'tarra ta kaskoina bera.

AITA AKESOLO.

oar laburrak

kantuz

eta

itxaropenez

XXXI

miñaren miñez

samintasunaren pixua

eruan

eziñik

geiago

belaunikotu zan

lurrean

etzegoan mundurik

arentzako

ordu mingots aretan

bertanbera itxita aldendu jakozan

ordurarte laguntzat euki ebazan guztiak

ez

eban

galdu
burua,

eta jaungoikoari eskeiñi eutson
barriro

be
bere

izatea,

lagun-guzurti
guztai
parkatu
ta
gero.

XXXII

inpernu-zuloak eurak baiño
geiago

ikaragarritu
eustan

arek gau baltz
bildurgarri arek

orduan konturatu nintzan
egunsentiko

argiaren
balio
aundiagaz

eguzkia

mendiak

zelaiak

itxasoak

.....
danak batera etorri zi-
ran
gero

alaitasuna
emoten
bizitzeari

XXXIII

benetan
 eta zintzotasunik garbienagaz
 emon neutsun berbia
 eta
 ezetan be
 etzenduen
 sinisterik
 gura
 izan
 nere
 egian
 ondo ikusi dozu
 orain
 itxututa artu zendun guzur-bidetik
 etorri jatzun
 uts-egite
 negargarria

ez egizu makurtu burua orregaitik
 eztozu dana galdu oraindiñoko-ta:

aurrerantza pausu bat
 emon zeinkean bitar-
 tean,
 aurrera beti!
 joanak joanai
 begiratu
 ta
 jaramonik
 egin
 barik.

XXXIV

mosu emon neutsun
 bekoki agurgarri maitea
 baiño
 arrizuri otzagorik ez dot ezagutu.

goietaruntza
ibillaldia eginda eukan
bere bidean
udabarriko
eguzkiak.

eruatea asi-aurretik egin neutsun mosu
atxarria bera baiño otzago gelditu ziñan
gorputzian.

XXXV

bein be etxatzu buruan sartu zuri olakorik.
makiña-tresna otz bat izateko
eztalako jaio zure biotz ona.

edertilari on batentzako
izango ziñan
zu
pintatzeko eredu-leloa
basoko

zugaitzen

bat

izan

baziñan.

iñoren esanbearrik

eztatukat

ondo dakidalako: milla zeruetara
igonda

zengozan oraingoz zu,

txori-egoen

jabe

etorri

baziñan

mundu

onetara.

XXXVI

edur eta urregorri-koloreko argi egokia zan,
ater-una baketsua

estura bako
sinismen
berezkoan.

sua eta aize baltzak etorri ziran gero
urriñetako itxaso izenbakoetatik
eta betiko amatau zan lenagoko atsegin pozgarri-
dun
zoragarritasuna)

utsa zan negar egitea,
osatzerik ez egoalako.
aurreruntz
egin bearrean
aurkitu giñan gero,
atzeruntza begiratzeko denbo-
ra barik,
bixirik urtetea gura gendualako danok.

XXXVII

ez dala izan egun bat bakarrik,
ez.

ez dala egun labur bat izan
bizitza luze bat baiño.

poztasun eta arantzaz beteriko bizitza luze bat.

ez daitela etorri barriro. ez daitela etorri.

atseden aldia etorri daitela
egilleak gura daben egun eta orduan.

XXXVIII

orrek laiño orrek...

gaztearoa gogoratzen deuste
orrek goiko laiño zuri orrek...

begiak itxi ta zabaldu
edo
kiñu laster labur bat
 eta besterik e'tzala
 izango
 bizitza,
 uste
 izan
 neban
 orduán

bere urteak eta egunak daukozala bizitzak, ikusi dot gero. eta arantza bako egun gitxi ezagutu dot. ogei ta bost ordu luzeko egunak be bai, laiño baltzakaz bete diranean udabarriko egunsenti garbiak.

ordaintza zeatza
eskatzén deutso
 oiñazeak
 bizitzako
 atsegin
 eta
 poztasun
 bakoitzari.

XXXIX

trumoe bildurgarriaren dunbadotsa entzun da
suzko oiñeztarri gorriak zatitu daubezanean
lur-err^o ganeetako
zeru baketsuak.

euri oparotsuak etorri dira gero
solo, landa ta baso egarridunai
mosu ugariak emoten
lurrak lotintzeko.

garatu ziran landara barriak
eta...
 landaren loratzea
 etorri zan garai ederrean

il zan
etxeko umetxoa,
amaren
oiñazezko
negar-zotiñen
er
di
an.

XL

itxaron, eta bizi.

bai.

bizitxa da itxarotea,
neretzako.

zertarako
estutu
itxarotean?

betikotu egiten dau bizitzea betikotasunean
arimearen bakeak. (benetako bake biziak).

gauzen barri ezin deusat adierazi
neure buruari,
gauberdian nagoalako.

orregaitik nago itxaroten
bizitzako
egunaren
egunsentiari
itxaropen
barik
ez
nagoelako

XLI

ez dot aditzen
baiña sinistu bai.

aditzen ote-dau bere egazkadea txoriak berak?
edo bere uger-egitea arraiñak?

egan
eta
uger
dabiltza,
siñisle nabillen moduan neure bidean
ni.

egan egin ezin daben txoria ikusteak
samintasuna emoten deuste biotzean

zelako atsekabea
zaurituta
azkenetan
dagoan
arraiñak!

inguruko lagunen artera begiratu dot
eta geroaren sinismen bako bat baiño geiago
aurkitu).

zelan galdu leike
bizitzaren itxaropena,
orrenbesteraíño?

aurrerantza egiteko
ez neuke adorerik eukingo
itxaropen pitin bat ezpaneuko

XLII

etzegoan
berotasun
aundirik, etxetik urtetako,

atzo goizeko egunsentian.
euskaldun aundi baten
borondatea
betetearren
joan

giñan
goierrira.

danon arteko
euskalduntasunagaz
berotu
giñan
euskeraz
otoitzean.

(eztira iskilluekaz irabazten
gerraterik aundienak)

lazkaun irabazi zan bat atzo.

...

andima elantxobekoa
euskal jakintzaren
arimak
suak izeturikoa
gaztetatik
su orren
argiagaz
ibili dana
bizitza luzean,
mundu
zabaletik

lazkaun euskeraz
gaur
otoitzak
andimagaitik.

XLIII

korta eder bat
imini
deutsie auntzari,
aska bete bedar-janari ugariagaz

zer gertatu dan gero?

laster egin dau anka mendira
katea solte ikusi dabenean

¿.....?

«etxeke kortarik onenak baiño
obeagoa dok

neretzako

sasi-orriz

beteta

dagoan

mendi-bazter

ezkutu au.»

XLIV

bat baiño geiago lotu daben
kate gogor onek
askatu deuste
giltzapetuta
neukan
au
arima
igeskor
au

an

urriñetan

eta

emen

urreetan

orain

emen

kate-

-barru

onetan:

bizitzarako

emon

deustez
egoak
itxaropenaren
bidetik
egan
egiteko
jantzi
barriakin
jantzi
jatan
arima
poztuagaz

XLV

millaka zugaitz orritsu illaran
azkenbako basamortu agorraren erdian

nundik agertu ote-da mirari au?

bizitza biurtu diran
zure otoitzak dira orrek
zugatz barriok

jarraitu zuk
orrek in zure otoitz zintzo orrekin
eta
garretan
kiskaltzen
dagoan
suzko
basamortu
erreak
zugaitz
barri
ongilleakaz
betetan
alegintzen
jarraitu
zuk

XLVI

ardien
 bide estuetatik
 gora
 joango naz
 beian zelaiko bide ertzean
 kitarra mutuagaz
 zure kantu illungarria kantetan zagozan artean
 kantu barri bategaz
 asiko naz
 ara goiko mendi tontorrera elduten nazenean

loituta
 itxi nenduan
 neguak
 zelaiko
 uri
 aundiak

eta
 betiko
 udabarri
 baten
 billa
 noia
 ara
 goiko
 mendietara

XLVII

erdi ixillik
 eta samurtasunez beterik
 kantau dozu gaur goizeko kantua
 basoko
 txoriakin
 batera,
 eguzkia
 agertzen
 asi
 danean.

nun ikasi dozu
 iñun be entzun ez dodan
 kantu polit ori?

biar goizeko
 egunsentian be
 kantau egiozu
 zeure
 ume
 txikiari,
 kantu
 polit
 ori
 kantetan
 ikasi
 dagien.

XLVIII

etxe aurreko landara
 urten dau
 gure ume txikiak
 eguzki gorriaren jaiote orduan.

berbetan asi jako eguzkiari,
 sagastoiko
 txori
 baten
 moduan.

eta
ondo konpondu dira gure ume txikia ta eguzkia
 etxuria danez:

«pa» bat bialdu deutso
maitasunezko tutulu-kiñu bero bategaz
 eguzkiak

 eta
 barreari
 emon
 deutso
gure

txikiak,
begietan
eta
arpegian
kili-kilia
sumatu
da
be
ne
an.

XLIX

batetik bestera
ibili da
gure etxe inguruan.

mendiko basoruntza egin dau gero
egazkada arinean.
an euki bear dau
etxurea danez

bere kabi ezkutua
bere maitasuna ta poza
txorikuma
txikien
on
do
an.

L

menditontor ganera eldu naz
gaur

eta
geldi dago
nere
arimea

benetan sinisten egian
biotzean ikutu deustelako
izadiaren
guzurbako
arnaseak


oiñaze luzeakaz

ordaindu bearko dodazala
poztasun-une labur bako-
itzaren
errestuak,

badakit.

urrin gelditu dira zelaiunako urteak
eta emengoen azkena be laster etorriko
da.

MARKUE.



HERMANN HESSE (1877-1962)

OLERKIA

Kolore-larriz eta sargori
egiten deuste kuku gabak.

Baso-barrenera joatea gura dau iretargiak.

Zergaitik beartzen nau
orrek etxura orrek
beti itxarrik eta erne
kanporuntza begiratzen?

Lo eta amesetan egin neban.

Nork deitu eustan gaubaren erdian
garrantzidun gauza bat
erdeiñatu
egin dodala-ta
uste-zorua artuerazo
egiteko?

Azti-itzaren deiari jarraitzen,
eta urriñago
mundu-billa
obeto
alde egingo baneuke
etxetik
lorategitik
erritik
eta Sorterri-baztarretik.

MARKUE (itzultzaille)
1968

Lo-Kantak edo Seaska-Eresiak

Bizkaiko erri batzutan bilduak.

I

Gernika ondoko Muxika'n:

*Obabatxue urrelora,
mandoañ doa Durangora.
Mandoan juan, kotxan etorri
gure umetxu da ori.*

Oarkizunak:

1. *Obabatxue* berba orrez lantxo politak idatzi ebezan Arana-Goiri'k eta Azkue'k bere bai. 2. Gure *umetxu* orde, umearen izena bera esan oi dabe askotan, esaterako Karmentxu edo Mikeltxu...

*Gure umetxu doyen orduen
zaldi urdiñen ganien,
bosteun kaskabel urregorritzko
zaldiyek idunerien;
beste ainbeste eta mille geyago
atzeko petralerien.*

1. Iduneri, *idun*: 'cuello'. 2. Petraleri: 'correaje'.

*Obabatxue lotiritañe
ez egin lorik basoan,
otso goxiek jan ezegizan
bildotsa zarienlangoan.*

Lotiritañe: berbatxu ori eztakit zer dan. Alan be ziur nago, olan esaten ebela, idatzi be olan egin eustien-ta. Bikoitz bat ete da, euskal-berba *lo* ta gero erderazko *tiritar* daukana? Olan *lotiritañe* edo *lotiritañe* litzake.

Obabatxue urruru
gaur zuaz ta bier erdu;
alboan doan tontoa baño
maitiago zaitut nik zu.

«Tontoa baño»: *tontoa* = leloa, au da, bere gizona.

Seintxu txikia
negarrez dago,
ama emoyozu titia;
aita gaiztoa
tabernan dago
pikaro jokalaria.

Bertso auxe Gipuzkoan ere maiz-maiz entzun izan dot.

Loa, loa, santa loa
zeruetako jaungoikoa,
ya bada oni emoyozu
ordutxu beteko loa.

Loa, loa, santa loa: sueño, sueño, santo sueño.

Obabatxue lologiñe,
zu zara nire tanboliñe,
tanboliñe ta gaitie,
zu zara neure maitie.

Aintzine-aintzinekoa dala, esan eben; ta Arratian bere badakite.

Seintxu txikia, zuretzat
opilla sutan badaukat;
erdi-erdia emongo dautsut
beste erdia niretzat.

Olgetan pasiora
juan gura badozu,
kotxie mandoakin
prest eukiko dozu.

*Amar mandoarekin,
kriyedue eurretik,
zortzi tanbolinteru
zortzi tanbolinteru
kotxien atzetik.*

Kriyedue: morroia.

*Durangon ein ei dabe
lastozko zubiye;
andixik pasetako
Karlos ta zaldixe.*

*Txiki-txikitxue ta
polit-politxue,
nori emon dautsazu
neuri agindue.*

Muxika'ko Inzunze'tar Garbiñe andereari artu neutsozan onaiño-ko *lo-kantak*, 1957-garren urtean. Muxika'ko «Areatza» auzokoa da. Ta auzo ortakoa zan «Muxika'ko urretxindorra» esaten eutsoen En-beita'tar Kepa bertsolaria be.

*Obatxua lo doie,
neure umie lo doie;
neure umie lo doienean
zaldi urdinen ganién,
bosteun kaixkabel urre gorrizko
zirunen petral ebien.*

1. Ziruen: idunen lez? Idunen: 'en el cuello'. 2. Petral: 'correa'.

*Obabatxua lo ta lo,
zeuk orain ta neuk gero;
lotxu gozuak engañau deuste
neure umetxu (y) ona gero.*

*Aingeruek, ze barri?
Zeruen barri onak,
orain eta beti.*

Iru bertsuok, Justa Elguren andereari artuak dira 1957-garren urtean, mixio-garaian. Orain Muxika errian, elizatik urbil, bizi da;

baña baserrikoa da. Atxurra'tar Zoilo abade erretoreak eroan ninduan beragana.

Baña azkeneko bertsoa, bertan abade dagoen Oar-Arteta jaunak onelan esan eustan:

*Lo-lotxu aingerue,
zeruen ze barri?
Zeruan barri onak
orain eta beti.*

II

Arrati'ko Yurre'n:

*Txikitxue zara baia
etzara geiago aziko;
mundu guztiegatiño be
eneuzkizula itxiko.*

*Eguzkie yoan da
bere amagana;
bier etorriko da
denpora ona bada.*

*Negar ta negar dago
umetxu gurea,
katuek yan dotsela
bai lebadurea;
ez egizu, umetxu,
katue maratu;
saguek koyuteko,
katue beogu.*

1. *Maratu*, 'revolver' dala, esan eustien.
2. Beste batek, *maratu* ordez, «mankadu» dala esan eustan, ta *mankadu*, 'herir' dala.
3. «Aintzinekoa da», esan eustien.

*Obabatxue txingorri gorri
ez egin lorik basoan,
azagariak yan ezegizan
bildotsa zarealakoan.*

Txingorri: granizo.

Durangon egin dogu
lastozko zubie,
andixek pasetako
Karlos ta zaldie.
Karlos ta zaldie
ta doña Margarita
laster ikusiko du (sic)
tronuan jarrita.

Abadiñora nintzan ni
San Blas paseu dan urte bi;
denpora txarrak emon-da,
ondo enintzen ibilli.

Urkiolara yoan,
zapatak urrutu;
Aita San Antoniok
barriak eingo ditu.

1. Azkeneko bertso au, aintzine-aintzinekoa dala esan eustan ba-
tek edo batek. 2. Zazpi bertso oneik «Uda» baserrian yαιο ta gero
«Zabalgoiti» baserrira ezkondu zan Benita Uriartek esan eustazan.

Aite yoan da Bituriera
ama lepoan artute;
aita badator Biturietik
ama bidean galdute.

Arre arre mandako
bier urrinerako (edo baita «bier Orduñerako»)
Andik zer ekarriko.
Zapata ta garriko.

1. «Arre arre...». Umea belaun ganean ezarri-ta, astoan baloa
lez, belauna gora-berantzan mugituz. 2. Mandako: mulo pequeño.

Gure txikerren txikerrenari
amak eperrak ekarri.
Beste guztieri bana ta bine,
gure txikerrenari amabi.

*Txalopin txalo, txalopin txalo
katutxua mesmeru ganean dago;
dago ta bego, dago ta bego;
zapatatxu barrien begira dago.*

Umeai txalo yoten irakasteko. Aita edo ama edo besteen batek lenengo txalo, umeak ikusiz. Gero umeari eskuak artuta, txalo yoaziz. Lau «lo-kanta» oneik Yurre, Lasarte'ko Bonifazio Undurraga'k esan eustazan. Ba dago Azkue'ren eresietan be; ta oso polita da; ta Bizkaian beintzat, oso entzuna.

*Dinbilin danbolin,
lo, seintxo, lo.
Aingeru bat etorri yat
zeu ikusteko;
ederra zan baña, zeu ederrago.
Laztantxo, gozotxo,
lo, lo eta lo.*

*Laztanen portalean
dagoz arbola bi;
bata da laranja,
bestea madari.
Oba... oba.*

*Obabatxo loloriñe;
auxe da neure pozpoliñe;
pozpoliñe ta gaita;
auxe da neure maitea.
Oba... oba.*

Yurre, Errekotzeko Mariano Iruarrizaga'k emon eustazan iru lo-kanta oneik.

*Aita-aite dala tutulun berde
ama-ama dala masuste,
aita yoan da Bitoriera
ama lepoan artute;
aita etorriko da Bitorietik
ama bidean galdute.*

Neure arreba Teresa Barrenetxeak. «...bidean saldute» ordez, «...bidean galdute». Azkue'k bere badauka onelangoa berak batu eresietan.

*Gure umie ederregie,
soloan bearrerako;
aitek batuko deutso dotie
fraide eder bat eiteko.*

Neure arreba Benita Barrenetxeak.

III

Zeanuri'n:

*Txikitxu polit ori,
zer dozu negarrez.
Aitak tabernarako
dirurik emon ez.*

*Aitak tabernarako
dirua emoteko,
bolsea tximur deuko
Gabon yaietako.*

*Gure mutil, mutil ete?
Atzo goizean urte bete.*

Neure anai Jose Barrenetxeak, Yurretik Zeanurira ezkondu zanak.

IV

Bedia'n:

*Lo-gure naz ta lo egingo (eingo) neunke
baneunko oirako lagune;
oirako lagune badeukot baña,
agure buru makurre.*

*Obatatxue, txingorrin gorri,
aita ta seme trabenan ditu,
ama ta alaba jokuan.
Ostera bere izango yeuxek
txaltxu nabarrak auzoan.*

1. Juan Arteabaro ta Sagarminagak, orain larogitaka urteak daukazanak. Lenengo bertsoa, ezpadirudi bere, «seaska-abestia» dala, esan ta esan eustan. 2. *Nabar*: 'raquítico, escaso, pequeño'. Azkue'k bere iztegi aundian ez deutso itz orreri alango zentzua ezartzen; baiña yendeak olan adierazo eustan neuri argi-argi.

*Obatatxue, akarra, yantzan,
astoa biboliña yoten,
azagarie suari puzka,
erbie urune eralten (eralgiten).*

Mary Bengoetxeak, Bedia'ko Ugarte auzoan yaioa ta an ezkondu-ta dagoanak.

*Seintxu txikerra negarrez dago;
ama emoiozu titie;
aita ordie tabernan dago
jokatzen azunbre erdie.*

*Santiagotan Basurton nintzen,
San Bernabetan Lezama'n;
nire poltsako diru apurrak
tabernereak eroan.*

*Santiago Santanetan,
Basortuko landan,
andrea ta gure gizona
mozkortuta yantzan.*

Onaiñoko iru bertsuok Klaudio Etxebarria Linaza'ri artu neutsozan. 84 urte ebezan orduan, 1962-an. Bedia'ko «Mortaza»-n yaioa; baiña gero oraingo «Tosemando» baserrira etorria, «Jentiletxe» esaten yakonera.

V

Basauri'n:

*Binbilin bonbolon, zer dago,
akarra Frantzian balego,
akarra kantan,
idia dantzan,
auntzak tanboliña yo.*

Jesus Barrenetxeak. Baiña Zeanuri'n yaioa da ta Basaurira ezkondu egin zan. Ahapaldi polit au Donosti Abak bere badauko ipiña bere musika polit-polit batean. Bedian bere badago orren antzekoa; baiña ezta bardiña, goian ikusi daitekenez.

VI

Leintz ibarreko Marin'en (Gipuzkoan):

*Gure umia ederregi(y)a
soluan bearrerako;
aitek dotia batuko dio
konbentu baterako.*

Yurren bere esan eustien onen antzekoa, ia bardiña.

*Gure umie Urrien lora;
bi(y)ok joango gera Durangora;
andixek ekarriko ditugu
altzua bete urre-lora.*

Eresi bitxi bi orreik Petra Arresek esan eustazan. 74 urte daukoz. Bizitza guztian Marin'en bizi izan da. Bakarrik, zazpi urtetan-edo yoan zan Barakaldo'ra ta orduan lau urte egin ebazan an. Gero barrero Marin'era etorri zan bizitzera. Ta ostera, garai bat izan zan, urtero yoaten zana Barakaldo'ra; baiña yoan ta etorri bereala egiten ebalá.

*Txikitxo polit(x)ori
norena, noarena.
Norena izango naiz ba:
ait(x)ena ta amena.*

Marin'go Azkarate sendian artu neban. Marin eta bear bada Leintz ibar osoa, politika aldetik Gipuzkoa bada be, berbetean, gizalegean ta oituretan Bizkaiaren zatia lezkoa da. Orregatik sartu dot neure arlo onetan, au da Bizkaian.

«Seaska-abesti» oneitako bat edo batzu, noizpait, paperetan edo muxika-eresietan argitaratuak izan diran alan ez, eztakit.

Nik erriaren aotik artu ditut dan-danak. Eta artu, urte asko dala; bat edo bat, orain sei urte dirala; baiña geienak amar urte bere bai gitxienez.

Eder-eder ta lilluragarriak, urre bitxiak baiño ederragoak, iruditu yatazan, entzun nebazanean.

Beste euskalkietan eztagoala ain polit ta xarmagarririk, esango neuke. Olan nik uste. Ba beste euskalkietako errietan be ibilli izan naz ta itandu be egin dot. Ta eztoz ain laster ta erraz aurkitu.

Bizkaiko errietan yendeak erabilli oi dauz; ta erraz entzun daitezke, aintzineko paperetara ta muxika-eresietara yo barik.


Beste euskalkietako errietan, barriz, aurkitu bere ezin izan dodaz alango itzal ta gozotasuna dabenak, bein baiño geiagotan itanduten ibilli ta bere.

Eztot esaten beste euskalkietan ain politik eztagoenik; nik ori uste dodala bakarrik baiño.

Elerti zaleai atsegin bayakez, pozez ta beterik geldituko naz.

Altsatsu'n, 1968 - IX - 18 - an.

YURRE'TAR YULEN.



N. SOLOETA-ASTARBE:

Torrezarreko Seme - Alabak

Amabi seme alaba ziran Torrezarrekoak. Il dira batzuk; jaioterrik urrin bizi dira besteak. Ez nebazan ezagutu danak. Zarrenak bai. Gitxi erdikoak. Entzutez bakarrik gazteenak.

Juakiñ zan zarrena. Neukin eskolara ibilia. Mutil lagunak izan giñan. Adiñ batekoak. Lau illabete zarragoa ni. Iraillekoa Juakiñ, eta Gabonetakoa ni. Ogei ta bost urtegaz il zan, gerratean.

Begoña bigarrena. Gu baiño urte bi gazteagoa. Joxe Anton eta Peru urrengokoak. Bikotxak. Biyak il ziran. Arantza be bai. Moja joan zan Begoña, eta gazterik il zan, osasun aundi barik. Bularreko gaixoagaz Joxe Anton, gerrate ostean, eta itxasoan Peru, ekaitz ikaragarri baten erdian.

Mantarretan ezagutu neban bostgarrena: Mikol, Torrezarreko aitaita zarraren izenekoa. Ameriketara joan zan, Markiñako lengusu batekin. Urte batzuetan biergintzan ibili ta gero tratulari adimen argikoak urten eben traturako biak, eta aberastuta bizi dira Arjentiñan. Etxera idatzi eban, anai gazteenetarikoren batek beragana joatea gura ba eban edo, eta bat ez eze iru joan ziran batera: Floren, Juan Joxe eta Bixendi.

Urte batzuk geroago joan zan Luix, «Luixtxo», mutilletatik gazteena, gurasoen biotzeko txiki-kutuna. Amak etxean gelditzeko ta gelditzeko, baiña azkenean be joan zan bere anaiekana. Joan eta urte gitxi barru il zan, oraindiñoko mutil morroskoa zala.

Mutiltxotan il zan amargarrena. Ez naz gogoratzen ondo bere ize-nagaz orain. Satur zala esango neuke, Saturdiño.

Neskak ziran azkenengo biak: Dolores eta Eskoli. Moja joan

zan Dolores, Berrizeko komentura. Mixiolaritzan dabil, baltzen artean. Bein be ez da etorri etxera, joan dan ezkeroztik. Bilbaoko aberats batzuk eruan eben ume bat zaintzeko Eskoli, eta jaubien txoferrarekin ezkondu zan. Begoñako etxebarrietan bizi da, iru seme alabakin. Eibarrekoa da gizona, eta sarritan joaten dira Etxezarrera, amakin ordu batzuk emoten.

* * *

Juakiñ zarrena, esan dot. Eskola lagunak giñan aurtzaroan, eta gero mutil lagunak gaztetako urteetan. Ondo konpondu giñan beti. Errespetu aundikoa zan eta zentzun apartekoduna. Danok artzen genduan ontzat Juakiñek esaten ebana. Txikikeririk ez eban esaten arek. Ez zan ixilik egotekoa be, baiña burutsu jaurtiten ebazan esatekoak arek, eta umore onean sarritan. Aurrenengo-samar beti eskolan, ikasle onen artean. Buru argikoa ez zan izango bearbada, baiña ikasi bear zan eran ez eban denbora asko galduko alperkerietan eta txorakerietan arek, ez. Erdi-ingurukoan artean ibiltzen nintzan ni, eta azkenengo jesarleketan sarriago.

Pozik egoten zan don Pedro maixua, Juakiñen benetako zintzotasuna ikusita. Zozokillo gaztelaztu batzuk eta besterik ez giñan gu aren ondoan. Umeen gauzak, gure artean be agertu zan begiokerrez begiratzten eutsonen bat, begi luze kaxkar errien bat, baiña biotz-zabaldun gizontasunez jokatu eban beti gure Juakiñek, txikikeriei jaramon aundirik egin barik. Oillo-ikubilleko epeltasunezkoa zanik Juakiñ ez uste izan gero. Alan eta be, bein be ez neban ikusi burrukan iñorekin. Baekian berba onakin gauzak konpontzen arek, indarrezko jakituria be baeukan orretarako-ta.

Don Saturdiño erriko abade jaunak be begia bota eutsan Juakiñeri. Abade izateko ezaugarri onak eukazala, abadegaietxera joatea gura baeban. Ezetzik ez eban esango beragaitik, baiña etxean bear zala esan eben gurasoak, eta etxerako galditu zan, beste barik.

Emaztea gazterik artu eban. Ez zan gurasoen artean konpondu-riko ezkontzea izan, batek baiño geiagok ori esan baeban be. Esan neikeana da ori, ondo dakidalako. Konbidau egunetan ezagutu ziran, Elgetako etxearteko bat zan Eulari-ta. Konforme gurasoak, eta Urkiolan egin eben eztegua. Benetan maiteminduta ezkondu ziran. Seme bi itxi ebazan Juakiñek.

* * *

Zoli zolia, bizkorra eta ona zan Begoña. Begi urdin ederrezko neska. Gaztea zala eruan eben Elorrioko osabakana. Andik joan zan

Berrizeko komentura. Neska lagunak izan ziran nere arreba gaztea ta Begoña, Elorriora joan aurretik. Baeukien antz pixka bat Begoñak eta gure Kontze txikiak, eta orregaitik «Begoña» deitzen deutset orain be, Kontzeren orde. Ez da asarratzen orregaitik, ez eta gitxiago be.

Mutil isilla eta isilzalea Joxe Antonio. Ametsetako moduan gelditzen zan sarritan, gaixo antzera. Mutil ona izan zan, oso ona. Fraide joateko asmotan edo ote-egoan esaten geiñun, eta amasei urtegaz Loiolako nobixiadura joan zan. Pare bat urte egin baiño lenago etorri zan barrero etxera, osasun barik. Ez eukan osatzerik. Danok genkigun ori. Pozik il zan Torrezarrean, amazortzi urteko mutil gaztea. Irribarrez, beti argi, siñistedun joan zan, mundu au itxiteko pena aundi barik. Domeka arratsalde batean egin zan lurra emotea, eta erriko gaztedi guztia joan giñan gorpuari lagundu ta lurra emotera. Neska ta mutil, danok batu giñan kanposantuan, eta ez zan soiñu ta jantzarako gogorik egon gero. Askok egin geiñun negar. Nere arreba gazteak ez gitxien, eta andik denbora gitxi barru joan zan Berrizeko komentura Kontze, gure etxeko arreba txiki maitea.

Ondo gogoratzen naz beste bikotxagaz be. Peru! Nork ez eban ezagutu Torrezarreko Peru, a Perutxiñ mutil okerra? Gure errian ez ei-zan alako mutil demoniñokumerik ikusi zarren akorduan be. Bai bere etxean, auzoan, edo eskolan, makiña bat koskorreko arturikoa zan Perutxin. Dotriñan be bai, bein baiño geiagotan: Don Saturdiñoren azkondor-kaskatekoen barri ondo ekian Peruk.

Joxe Antonio ain baketsua eta Peru ain baldarra, zelan izan leitekanean ori? Torrezarreko aitaia zarra be ez ei-zan izan makala bere gazte denboran, baiña Perutxiñeri antzik emotekoa be ez. Karlista-dako gerratean ibilia izan ei-zan, eta aren egitadak zaratatsuak izan ei-ziran. Gure etxean kontetan euskuezan neguko gaubetan, errosarioa errezau ta gero eukiten genduzan berbetaldietan.

Mutil azkarra urten ei-eban Perutxiñ-Perutxok. Kuentak atarateko argitasun aundia ei-eukan, baiña pasaixu zarretako liburuak irakurten ei-zan batez be mutilla. Ez ei-zan aspertuten gerrateak, itxasogizonen ibilkerak eta olakoakin.

Ez zala edozein izango Perutxo, esaten eben danak. Ez eban suberte onaren aldirik ezagutu. Ez eban urte askoko bizitzarik euki gixajoak. Negurako bakarrik izango zalakoan, Elantxobeko osabakana joan jakeen bein. An ezagutu ebazan mariñelak, eta itxasoko gizonakin adiskidetu. Mariñel izatea gura ebala berak be, eta estutu egin ziran gurasoak. Ez zan gitxiagorako be: Anbotopeko baserri-kuma bat mariñel itxasoan!

Itxansontzi aundietako pillotu batekin egiten ziran senitarteko Elantxobeko osabak, eta aren bitartez aurkitu eutsoen bierra egiteko

leku bat Peruri Ameriketara ebillen sabel aundiko ontzi eder batean. Itxasoak iruntsi eban urte gitxi barru, beste batzuekin batera, ikaragarriko olatu-bolara batek arrapauta. Emeretzi urte beterik eukazan ondiñoko, gixajoak.

* * *

Torrezarrera goiaz gaur, bertako etxeandre zarrari ikustaldi bat eginen. Aspaldiko urteetan bizi da alargun, errenagaz, Juakiñen alargunagaz. Onen seme biak be Torrezarren bizi dira. Soldautzan dago orain zarrena, Burgosen. Erriko fraidietan dabil ikasle bigarrena.

Erdiaroko gaztelutorrea dirudi Torrezarrek, edo beintzat izanikoa dala emoten dau. Baserrietxea da aspaldian eta gaur. Arrilanduzko etxeurre-arpegia dauko, armarri ta guzti. Erriko baserrietxe-rik aberatsenetarikoa da Torrezar.

Etxearen ingurutik doia errekoa, solo-zelaiaren erditik. Urrin barik, beratxoago, an dago Torrezarreko errotazarra be.

Intxaldearen kerizpetan aurkitzen dogu andra Pantxika, Torrezarreko etxandera zarra. Josten eta errezetan dago. Pozik eta esker-ronez artzen gaitu berak. Ulezuridun, eskuazaldu eta bekoki tximurtua; ikasi oneko etxeoandra argia orain be Andra Pantxi.

Joanak joan dira, bai. Aurrera egin dabe urteak. Joanakin gogoratzen asi gara, eta berbetan. Zelan ez ba! negar anpuluaren batzuk be urtetan dautse noz edo bein.

—Emen egon zan Mikolas, joan dan urtean. Andreagaz eta semeak ez etorri zan. Ondo bizi da, eta dirua bialtzen deuste, baiña diru-bear-izanean ez nago orain ni, biziteko ta geiago dauket-eta. Dirua bialtzea baiña geiago gure neuke nik neugaz biziten etorriko balitzake ona. Ainbeste seme alaba euki duaz, eta bat be ez neugaz neure zartzarorako. Erren ona dauket, baiña Juakiñen utsunie... arek itxi euskun utsunie ez ta bete etxien... Zuek biyok lagun aundiye-
k ixen zeñien...

Ixillik geratzen gara unaldi batean.

—Eta Mikolasekin joan ziran beste irurak, zer?

—Il zan Bixendi...

—E'nekiyen. Ez deuste esan iñok ezer. Noz izan da ori?

—Pare bat urte dala. Baiña neuri be ixilik euki deustie urte osuen be.

—Eta bestiek?

—Juan Joxe be an ezkondu zan. Eztau fameliyarik euki. Neugana biziten etortea gure dau, baiña ango andrea artu eban, eta arek be bere jaiotzako parajetik aldentzerik gure ez, etxurie danez. Etorri beintzat baecidatoz bai neu ikusten, eta ezteuket poztasun txikia ori jakinda!

—Eta Floren?
—Ai, Floren, Floren...!
Negar ixillari emoten dautso Andra Pantxik.
—Zer da ba?
—Diru guztiak bialdu deustez. Dana Torrezarrerako.
—¿...?
—Fraide egin jaku Floren. Okerrik ezpada ta Jaungoikoak gure badau gure, etorriko dala ikustaldi bat egiten, abixau dau...

N. SOLOETA-ASTARBE.



AGOTAK, HERRI MADARIKATU BAT

Ba-dira herrialde guzietan eta erlijio gehienetan ere, gizartetik urrun bizi-bearrak diren jendeak. Batzutan beste arrazako gizonen gorroto biziak uxatuak, bestetan beren eritasun berezi edo iguingarriren batek txokoratuak. Hala nola, agotak. India'ko «paria» heien irudiko, guzien ikusi-eziña, guzien ankerkeria ta gorrotoa jasan behar izan dute belaunez belaun.

XIII'gn. mende hastean azaldu ziren agotak Nafarro'ko Pirenetan. Gehienak kokatu ziren Bidasoa'ren iturritik urbil, Baztan-ibarrereko leku gozoenatarik batean hauzo bat eratuz. Hauzo hori etxol ziztrin eta baldar batzuez osatua da, eta bere izenak —Bozate deitzen bait-da— erdi aroko «ghetto» heien antzera, izuikara ta gorrotoa piztu izan du aspaldidanik baztandarren bihotzetan.

Aberats eta alaia den eta Arizkun deritzan herrixka-ondoan arkitzen da Bozate. Alde ona ta alde txarra! Bozate'ko etxe kaskar eta arloteen aldean, ortxe ditugu Arizkun'go etxeak, eskualde hartako zabalenak, armarrri ederrez frangoki ornituak...

Pio Baroja —idazlari bezala sendakiña ere— 1925'gn. urtean joan zen herri laidoztatu horren ikustera, eta hunela dio bere «Rebablo de Arlequin» liburuan:

«Bozate'ra sartu-eta, han eztela leiñu-etxerik ohartzten da, armarririk ere ez. Lore guti ikusten da. Giro trixtea nabaitzen da han, mesfidantza, aiherkundea. Mixeriak, bidegaberiak eta herrak jende hura aintzin-aintzinatik zapalduz, uxkurtu ta ttipitu dute arras. Gizon, emakume ta haurrak ongi ikuskatu ezkeru, arpegi goibel ta sumakor heien giblean arraza-mota bakarra ba-dela ezagun da. Arpegia zabal dute, hezurak jalkor eta sendo; zigomatiko-gupia luze samar; begiak, apur bat zearkatuak, urdin edo musker; burua boro-bil; larrua zurixta, illea orixta. Arraza-mota hunek ez du eskualdun

jatorrarekin deus ikustekorik; Europa-erdiko jendekia da, edo-ta iparaldekoa.»

Beste horrenbeste erran daukute gainontzeko idazleek ere.

Agotak gizartean. Negargarria izan zen, bai, agoteen egoera, mendetan zear («Izan zen» diogu, gure egunetan askoz bigunago erabiliak bait-dira). Nafarruko «Fuero» zaharrean, Santxo Ramirez'en denbotetan tajutua, «Gafo» izena (atzapardun ote?) emaiten zaio agotari, guztiz oker haatik. Aita Moret'ek uste zuen «albijense» zeritzaten heretiku heiegandik zatozela. «Heien aiten-aitak —idazten du— heredia horri atxikiak izanak ziren, eta hura uko-egiñik ere, jendearen gorrotoak laido hura leporatu zien, betirako zikinduak geratu zitezten.»

Erran dezagun egia: milla bat urteko zigorraldiek eta jazarraldiek beren aztarna edo seiñalea ezarri dute herri dohakabe horren gainean. Jende zeak asma ditzaken siniskeriak oro ta mota guzietako gezur nazkagarriak erantsi dizkie errurik gabe.

Guti dira: 400 ale doi-doa, 50 edo 60 etxetan sarturik bizi direnak, konzentrazioko itxitura batean bezalaxe. Arizkun'go elizara beharrezko joera dutelarik, bertan sartzeko ate berezi bat zuten aspaldi batetik, ertsi-ertsia, eta ez ziren bataio-harriaz aruntzago iragaiten ahal. Meza bukatuta etzieten bakea emaiten, edo ematekotan, alderantzia azaltzen zieten. Ezin ziren apez izan, ez fraile, ez serore, eta orai asko ez duela beren gorpuak ez zuten lekurik arkitzen Arizkun'go hil-herrian. 1654 gn. urtean armadan sartu eta gerla-sarien pagatzeko baimena eman zieten; ez ordea gorako graduetara igotzekoa eta ez armen eramatekoa ere. Gizarte-legeetan ere arras azpiratuak zauden. Jujen aintzineran agoteren bat eramana balin ba zen, bere arrazakoa ez zen norbaiten testigutzaren deuseztatzeko, zazpi testigu billatu beharra zuen. Ezin ibil zitezkean bidetan gairi oinutsik, beren izurriaz nihor kutsatua gerta ez zedin. Eta urrundik ere ontsa ikusiak izan zitezten, ahatezangoaren iduriko oihal zati gorri bat eraman behar zuten bizkarrean. Debekatua zuten iturrietan edatea, latsetan arroparen garbitzea, ibaietan arraintzaren egitea... Denbora asko ez dela, agoteren bat jolastalde batean sartu ezker, soinua bereala ixiltzen zen. Hori bai, herri-pestetan joareak (ixtrumentuak) jotzen uzten zieten, soinulari onak zirelako ospea ba zuten betidanik irabazia.

Funts-gabeko salaketak. Ezin konda-ala eritasun kutsukor zituztela... legendarra bereziki. Laurent-Joubert miriku frantsesak erraiten zuen kiratsa zeriotela; «ezen —hala dio berak— mukar-mintza (pituitaria) aixax usteltzen zaie, ortixek datorkie hats usaintsua». Juan de Garayoak hori bere dio, biguinxeago haatik: «Agotak ez du usai

goxorik botatzen...» V. de Rochas'ek, herritarren sineskeria zahar-
rak oro egiazat harturik gehiago ere erraiten zuen: beharri-gingilla-
rik ez zutela; buruan, ille-ordez luma iduriko zerbait zutela, orixta
kolore; azkazalak txumurkatzen zitzaizkiela atzaparrak antzo... eta
holako.

Bainan dena ez zen garrakeria. Ba ziren, hainbeste laido-hitzen
artean, laudoriozko solasak ere. Francisque Michel'ek zuberoko ar-
tzain-poema bat emaiten dauku; bertako ahapaldi batean artzaisak,
galai hatez maitemindurik —hau ere artzain eta, itxuraz, agote—
hunela dio:

Jentetan den ederrena umen duzu Agota
bilho holli, larru xuri eta begi nabarra.
Nik ikusi artzaiñetan zu zira ederrena.
Eder izateko aments Agot izan behar da?

Beste soinua dute Lardizabal'en hitzek. Pierre Marka'ri jarrai-
kituz, semitiko-ethorkia dutela, dio, agotek. «Agotak ez dira lege-
nardun. Heien akats bakarra hauxe da: juduen edo moruen ondo-
rengoak izatea, urrundik bederen.»

Agoteen deiturak, eskualdunenak berberak dira: Etxeberria, Sa-
laberri, Amorena, Etxegaray, Goñi, Petrirena, Bidegain, Juanena, Az-
nar, Agirre, Gaztelu, Zamakoitz... Urteak joan urteak etorri, oker-
ustek, trabak eta eragozpenak suntsituz joan dira. Ikusten ditugu
gure egunetan Agote izenekoak politika, legegintzan eta elizan leku
gorenentara heltzen. Argentina'n adibidez, Pedro Agote sendalari fa-
matua, Diru-Ministro edo Moltsero izan zen, eta orai gutxi dala,
haren orhoitzapenaren ohoratzeko, Agote izenaz bataiatu dute Bue-
nos Aires'en probintziako herri bat.

Aita Saindua ta Inperadorea, Agoten alde. xvi gn. mende-hastean
burua altxatu nahi izan zuten agotek. Bi bulda eman zituen X gn. Leon
Aita Sainduak, bat 1513 an bestea sei ilebetez geroago, eliztarrek eta
eliz-gizonek agoteri eman tratu gaiztoaren geldierazteko asmoz. Ez
ziren artaz axolatu. Inperadoreak berak ere ez zuen gehiago erdietsi
ahal izan. Behin batez, Bitoria'n zelarik, Bozate'ko jendeek pairatu
behar zuten bereizkunde lotsagarria salatu zioten, eta heien alde zer-
beit egin nahi izan zuen orduan: alperrik ordean; apez-jendeek ez
zuten haren agindua onhartu. 1460 gn. urtean Biarno'ko Gaston'ek
argiro ta goraki erran zuen, bidegabezkoa zela agotenganako herra ta
aiherkundera; leporatzen zitzaaien legonar hura, jendeak asmatu gezu-
rra zela, ezjakiñak eta sasi-kezkak sortua.

Izan ditu haatik herri dohakabe horrek, bere babesgabeko egoera

makurgarri hartatik atera nahi izan duten zenbaitzuk. Joannes de Goienetxe Saceda'ko konde arizkundarra dugu horietarik bat. Jaun hunek Alcalá de Henares ondoko eremuetan herri bat eraiki zuen XVIII gn. mende-hastean, «Nuevo Baztan» (Baztan Berri) izena eman ziona. Bozate'ko bizilagun guziak hara joan-erazi, heien herrian sufritzen zuten erdeinutik iges egin zezaten, horra Goienetxe jaunaren xedea. Agota-multzo bat bildu eta lurrak eman zizkien, landu zitza-ten. Luzaro gabe ordea, Bozate'rat itzuli ziren gehientsuak.

Ba-omen zen, Goienetxe'ren asmo horretan, «eskuzabaltasun soilla ez zen zerbait...». Talon Ortiz'ena da iritzi hau, baina hori erraiteko oina nun hartzen duen ez dauku argitzen. Asmo horren ondorio gisa, Cervantes'en eremuetan «Nuevo Baztan» deritzan eta baztandarrik ez daukan herriska bat geratua da. Gertaera hunek, dio Talon'ek, Tristan de Acuña'ko biztanleekin gertatua ekartzen dauku bururat. Beren lurrerat itzuliak dira hoiak ere, ugarte hortan gelditu ta su-mendien irrisku ikaragarria nahiago dutela, Ingalaterra'ko lan-
hoak baino...

Eta orai, hainbeste asmaketa ta ele-zahar aipatu ondoren —funtsgabe bezain zentzugabe gehienak— galde bat datorkigu gororat: zer ziren eta nundik zatozen agotak? Ez da erantzuten erreza, abenda hunen iturria laino batez estalia baitago, egungo egunean ere. Eta misterio horrek, mota guzitako sineskeriek eta ipui zoroek emendatua, zeinbat ibiltariren, zeinbat nobelagille ta zine-egileren irudimena ez ote du zirikatatu! Izkutua baina, sekulan baino ilhunago dela erran genezake...

Funtsezko egiaren billa, jakintza bitartez. Heldu beharrak ziran, egiakzi, gizon jakintsunak: historilari, etnologo, antropologo —bai hemengo eta bai kanpoko— lan serio eta baliosaren egitera, gezurrezko solas eta izkribu tentel hoietarik egia uts-utsaren agertzera. Lehene-
tarik bat —bai argienetarik ere— Francisque Michel dugu, «Les races maudites de la France et de l'Espagne» bere liburu ederrarekin. Liburu horrek —aspaldian akitua, damurik— gure egunetan eta zombait pondutan gibelatuxea den arren, ba du erakusgarri ta erakaste baliosik, eta hoiari esker, gero heldu diren azterkariak, lehengoek urratu bidea hobetu ta zabaldu ahal izan dute.

Jakintzazko bilaketa hoik hasi eta, agotak eta direlako «kretinoak» (1) bat zirela uste zutenak izan dira. Sendagileek eta antropo-
logoek ordea, bere azterketak dirala bide, hipotesi hura arras bazter-

(1) Kretino: Suiza'ko Valais eskualdean bizi den giza-mota dohakabe bat.

tua dute. Ez dutela agotek bat ere eri-arrastorik; gizonak zokoratu arraza bat dela ta besterik ez.

Baina Pilar Hors dotore anderea da, denen ustez, gai horri buruz lanik osoen eta zorrotzena egin duena, «Seroantologia e Historia de los Agotes» deritzan bere medikuntza-tesian. Lan huntan biologiako ta odolezko zer guziak konduan harturik eta zentzuz eta tajuz ikher-turik, aterakizun hau azaldu dauzkigu:

a) Agotak ez dira, jitez, eskualdun.

b) Ez dira ere, direlako «arriotar» godoen ondorengo.

d) Bere ustez, Frantzia'tik heldu jendeak zitazken agotak edo agoten aintzinekoak, hango legendun-etxeetarik igesiak menturaz, eta lurralde huntara tantoka-tantoka sartuak, baina —eta hau bai harri-garri!— nihoiz ere legendun ez izanak, etxe heietan bizitzen egona-gatik... Zer ziren ba? Itxuraz bederen, kezkarik gabeko jende, alfer eta lazo batzu; gerletara joan nahi ez, zergak pagatu ere ez, etxe heietan kokatzen zirenak, orduko bizi-molde latz eta gogorra baino, kutsatuak izateko irriskua nahiago zutenak. Ba-da —gaineratzen du Hors dotoreak— gure uste huni indar emaiten dion zerbait: Frantzian ere agotak badirela (cagots), hemengoan etorki berekoak segurik eta «itxurati» deitzen dituztenak. Oso egokia izen hau, ez bakarrik jende hoienez izakera salatzen daukulako, bainan ere gure argibide hau ber-matzen duelako (2).

Jakitatea ta eziera, erosle. Gogoeta frango egin genezake gai hun-taz, gure urgulluaren harrotzeko baino makurtzeko hobeak izanen lirakenak segurrenik. Hoienez agertzeko lekurik ez dugu hemen; eta hala, azken hitza bezala, huna biarnotar olerkari baten ahapaldia:

Encuer que cagots siam
nou non dam;
Touts som hills deu pai Adam.

(2) Faget de Baure jaunak, dio Hors dotoreak, frantsesez “gafu” deituak di-ren legendunez mintzo dela, hitz horrek “itxurati” (hypocrite) erran nahi duela dio. Eta gero kondatzen dauku Luis VIII garrenaren egunetan ba zirela 2.000 legendun-etxe Frantzian, eta errege horrek bere ordenuan ehun soseko ondore bana utzi ziela. Etxe heietan tratu biziki ona hartzen zutelarik, batek baino gehia-gok legenaz joa zegoalako itxura egiten zuen (heietan sartu ta bizi ahal izaiteko...).

(Agota izanik ere ez dugu axola, aita Adan'en seme bait gara denak.)

«Ezta hori, ez, olerkari maitea —oihu egiten du Barojak—. Eziera ta jakitatea: horra, gizonak emeki-emeki berdintzen dituzten dohainak, ots, gure arteko berezkundea —lanak eta argitasunak sorrerazten dutena izan ezik— deuseztatzeko bidean jartzen gaituztenak.»

Eta gu ere, bihotz-bihotzetik ados gare don Pio'ren azken-solas horrekin.

FAGOAGA'tar Ixidoro.

R. BOZAS-URRUTIA'K

Ezkuaraz ezarri du



—«A ba, erakutsi oek.»

—«Bego apur bat.»

Nere urte-kutxa aundian neuzkan guztiak ez, kutxatillan neuzkanak bakarrik erakutsi nizkion; iñun eta nornairen aurrean azaltzeko onak ziranak; bana-banakoak.

Ez zion begi txarrik egin nere bildumatxoari; urte bakoitzari lo-retxo bat bota zion, mai-gaiñeko lore-ontzia bete zuen arte. Gaitz erdi! Egia, bazan aukera; kolore ta kalidade askotakoak bai: itxaropen-koloreko urteak (berdeak esan nai dut, baiñan ez berde-berdeak, abek kutxa-aundian utzirik nituen), arrosa-kolorekoak, beltzak, zuriak, urte berriak, urte luzeak eta urte motzak.

—«Begira bezaio oni» —esan nion txuri-txuri bat erakutsiaz—, nere lenengo jaunartzeko urtea dut auxe.

—«Bai polita! Nik ere ba-dauzkat olako zuri batzuk... eta lau oiek, orren illunak?»

—«Oiek, berorrek dakian arako ofizina artan pasatako urteak dira, nere andre pinpiriña...» (Nik lan egindako ofizina hura, aren senarrarena zan.)

—«Ezta orrenbesteraño izango...» erantzun zuen andre zahar h-dunak, purrustadaka. Eta gero, itz-beste egiñaz; eta itxura gaiztoko urte-xorta bai begiratuaz:

—«Eta gori-beltz-kirastun oiek?»

—«O! oiek, gerrako ta gerra ondoko urteak... usai txarreko urteak benetan!» Eta andre zahar epelkiluxak pañuelo bat atera ta sudurretara eraman zuen. Ba zan zergatik.

—«Bai, esan zuen, oraingo gerrak, zikiñak izaten dira. Nere denboretan berriz... gogoratzen naiz, neskatilla nintzala, nola kapitan arrek... nik, ba...»

Itza moztu nion, miñik egin gabe ordea, eskubiko bi beatz gu-raize-gisa erabilliaz. Gero, beste bi urte ipiñi nizkion begi aurrean. —Bi abek, ez dira nolanaikoak. Lenengo au, ezkont-urtea dut, ezti-kolorekoa; bigarren ori, amagiarreba gurera bizitzera etorri zaneko urtea. Trumoi-kolore. (Andre zahar dirudunak aopean: «eskerrak suirik ez dutala nik...») Baña ona emen zazpi auk: bei argaleko urteak ditut, nere-nereak, gutxi bezelakoak! Askoan dauzkat...

—Ala uste duzu?—argi zegoen nere argaltxoak gutxitzat zeuzka-

berdin urte-uts ateratzen zitzaidan. Bein batean, urte mordoska bat lortu nuen, diru-premian zeuden lagun batzueri erosita; merke-merke: urte bakoitza amar illabete-truk. Mauka ederra! Atsegin-kontentuenik nenbillenean, ara, kaskartzen asi ziran ustekabez. Ziri ederra sartu zidaten orduantxe! Alperrik galdutako urte ustelak ziran, antza.

Urte gutxi eukitzea lotsagarri iruditu izan zait, eta urritasun ori nolabait estaltzeagatik, beti ibilli izan naiz gezurretan —edo bizkaitarrak dioten bezala, bazterrak engañetan— orrenbeste ta ainbeste dauzkadala siñisterazteko. Jendeak, ordea, zerbait sumaturik, onelaxe esan oi didate, ixeka-irriño bat ezpain-ertz apartsuetan: «Arranotxuripoleta! ez zera zu itxuraren gabe!» Edo-ta, keiñu maltzur bat beren begi makartsuetan: «Gizona, gizona, ongi ezkutuak zenituen, aladzipo!» Eta olaxe. Au lotsa! Eta eskerrak, nere urteak erakustea eskatzen ez didatenean... Kalean ez litzake ajola; konprenigarri baita, danak ezin eraman nezazkeala aldean, arutz-onuzka, eredutzat, erakusgarritzat. Baiñan etxean... etxean, besterik da. Ezetz? Baietz. Entzun (ta gorra ba-zera, irakur):

Beiñola, andre zahar «h»dun aberats elizkoi batek bixita bat egin zidan. Komeni da esatea, oso askobearra zala bera: esan nai dut, gutxi-bearra ez zala; arro-arroa, pitirifiña ta guturrumindu xamarra gaiñera. Diruaren podorioan, iñork baño urte mordoska galantago bat pillatua zuela ta beste gabe, bere buruaz uste aundia zuen. Jakiña, nere urteen berri galdetu zidan.

—«Ea gazte, zure urte bilduma ori? Guztiz moñoñua omen darta...», esan zidan babes-aire batekin.

Baiñan, nola erakutsi? Nere urte-bilduma ain eskaxa ain gauzeza, ain ziztriña, ain... tzat iñola ere artzekoa, nola erakutsi? Zeiñi ta berari! Gezurren bat asmatu bear, eta:

—«Ai, andretxo maitea, nai nuke nik, bai... urte kontuetan orren ikasia dan berorren iritzia jakiteko balitz ere...» —erantzun nion, aitzaki-merke ta koipekatillu. —«Au da, baña, pena ta pesalunbria... etxean ez daukat, badaiki?»

—«Nik ez, ez dakit. Zeer? Etxean ez daukazula? Nun bada? Zuk ez al dituzu zure urteak urte-tegian gordetzen? arima arimategian, liburuak liburutegian, diskoak diskotegian eta gezurrak gezurtegian gordetzen diran bezela?»

—«Bai bai, andre kuttuna, ba-dauzkat; guziak ez ordea, geienak baserrira bialiak ditut, orain, uriko giroak gaizki artzen zituen eta... banaka batzuk baizik ez dauzkat emen.»

—«A ba, erakutsi oiek.»

—«Bego apur bat.»

Nere urte-kutxa aundian neuzkan guztiak ez, kutxatillan neuzkanak bakarrik erakutsi nizkion; iñun eta nornairen aurrean azaldu onak ziranak; bana-banakoak.

Ez zion begi txarrik egin nere bildumatxoari; urte bakoitzaren berxto bat bota zion, mai-gaiñeko lore-ontzia bete zuen arte. «Erdi! Egia, bazan aukera; kolore ta kalidade askotakoak bai: ropen-koloreko urteak (berdeak esan nai dut, baiñan ez berdeak, abek kutxa-aundian utzirik nituen), arrosa-kolorekoak, beltz zuriak, urte berriak, urte luzeak eta urte motzak.

—«Begira bezaio oni» —esan nion txuri-txuri bat erakutsi nere lenengo jaunartzeko urtea dut auxe.

—«Bai polita! Nik ere ba-dauzkat olako zuri batzuk... eta oiek, orren illunak?»

—«Oiek, berorrek dakian arako ofizina artan pasatako urte dira, nere andre pinpiriña...» (Nik lan egindako ofizina hura, senarrarena zan.)

—«Ezta orrenbesteraño izango...» erantzun zuen andre h-dunak, purrustadaka. Eta gero, itz-beste egiñaz; eta itxura gai urte-xorta bai begiratuaz:

—«Eta gori-beltz-kirastun oiek?»

—«O! oiek, gerrako ta gerra ondoko urteak... usai txarrek teak benetan!» Eta andre zahar epelkiluxak pañuelo bat atzetik sudurretara eraman zuen. Ba zan zergatik.

—«Bai, esan zuen, oraingo gerrak, zikiñak izaten dira. denboretan berriz... gogoratzen naiz, neskatilla nintzala, nola kanarre... nik, ba...»

Itza moztu nion, miñik egin gabe ordea, eskubiko bi beate raize-gisa erabilliaz. Gero, beste bi urte ipiñi nizkion begi aundia. —«Bi abek, ez dira nolanaikoak. Lenengo au, ezkont-urtea dut kolorekoa; bigarren ori, amagiarreba gurera bizitzera etorri zuen urtea. Trumoi-kolore. (Andre zahar dirudunak aopean: «eskutatu suirik ez dutala nik...») Baña ona emen zazpi auk: bei argaleteak teak ditut, nere-nereak, gutxi bezelakoak! Askoan dauzkat...»

—«Ala uste duzu?»—argi zegoen nere argaltxoak gutxitzat zela.

la— Bibliako zazpi bei argal aiek ere, zure oiexek bezin aipagarri ziralakoan nago, gaztetxo... ez zaitez orrenbeste arrotu.

—Ori ez, andre agurgarri, barka bezait. Bibliako zazpi argal aiek, bei gizen bana jan omen zuten, belarri, isats, adar, azkazal, larru, koipe ta guzti. Nereak ez zuten olako aukerarik izan eta orrexegatik berorrexegatik, eta gaiñera nere-neretxoak diralako maiteago ditut eta askozago dauzkat, nik aiek baiño.

—Ba, ba! Bei argaleko urteak! Bestelako zera! (andre zahar santujale hura sumintzen asia zegoen). Nere urte xortan ezta iñoiz bei argalik bat ere agertu... bei gizenak bai, zazpi ez-ezik, zazpi bider zazpi, alarraiojaña! Dirua kostata gizenduak... baita urrezko txal bat, baita urrezko arrautz-dun olloak, baita urrezko ortz-agiñak, baita...

—(Baita kakalardo amorratuak ere...) —nik esan, ixilmixilka. Eta gero, berari: —Atsekabe dut, andre zirkilbiligarria; nik ere egingo ditut alegintxoak, berorrek aña urte ederrik eta galantik eskuatzeko. Nork daki, urteen buruan...

Andre atsopinkuñaren bekozkoa poxi bat argitu zan. Eta: —Ori espero dut, gazte arropuzkillo, esan zidan onginaiez beterik— ge-roak esango. Dana dala, jakin ezazu nere urte-bilduma ez tala goize-tik gaberakoa izan, ezta gaurtik-goizerakoa ere, gero!

—Ez, andre ttunturruntuna —erantzun nion apal-apal, ixil-ixil eta motel-motel.

—Eta gañontzeko zure urte aiek, baserrian dauzkazun aiek alegia, erakarri ondoren, deitu, berriz ere etorriko natzaizu; ikusteko zaleturik nago eta. Ez ahaztu! —Ez, andretxo panpiña.

Baiñan ez diot deituko. Zertara deitu? Ba-ditut, kutzako aien artean, berari batere gustatuko ez litzazkion urte batzuk, beren gisakoak. Esaterako: lau-bost neskakin ibiltzen nintzaneko urteak, politikako alderdi batean sarturik egon nintzanekoak, elizara urbildu ere egiten ez nintzanekoak, Santa-Ageda Aundian igarotakoak... nik al dakit? Bai, badakit; eta orrexegatik; ez dut andre zar elizkoi dirudun arren marmario ta maixioak entzuteko umorerik. Bear bada, emendik urte batzuen buruan deitu ta erakutsi ahal nezaioke urte-xorta berezi bat, txit bere gustokoa. Esate baterako: sakristia-usaïñeko urte zuzenak... Zuzenak? nola ordea, baldin ni ta nerekin dauden gaiñerakoak gero ta okerrago, gero ta eroago ba gabiltza? Beste aldetik, emendik urte batzuen buruan, arrek, andre zahar h-dun minbera arrek, besterena gutxitzat daukan arrek alegia (barka zadazu irakurle, aurtengo urtea Iztuetarena dut-eta), ez du agian ezer ikusi

nai izango, ezta ahal izango ere; ez urte zuzenik eta ez okerrrik... gu baño zuzenago egon bait-liteke bera, urte-bildumari azken-urtea erantzita, bere urrezko kutxa ederrean egon ere.

Tira, irakurle, aski da berritxuketarik. Nere bildumatxoa ikusteko griñarik zuri ere sortzen ba-zaitzu, esan, pozik erakutsiko dizut... baldin, oneraño etorri ta emengo Zuzendari jaunak ni ikusteko bai-mena ematen ba-dizu, beintzat (ostegun-igandetan artzen ditugu bixi-talariak). Eta datorren urte-arte itxoin naiago ba-duzu, beste urte berri bat erakuts nizaizuke. Lengoak baño okerrago izango az al da! Ez eta zuzenago ere!

*Santa Ageda Txiki-enea'n
Abenduaren 28'an*

Oar bat: Izkribu onetan agertzen diran zereko itz oiek, ez dira iñongo iztegitan arkitzen. Ala ta guztiz, zuzen jokatu luke Mitxelena jaunak, tajutzen ari dan iztegian sartuko balitu, jatorrak dira ta. 34'gn. gelako nere lagun Pelopidax'i aitua ditut; oso gizon jator eta miripurtziriña baita bera, miripurtziriñik iñoiz izan bada,

Ni neu.

R. BOZAS-URRUTIA,



AIZE - ERROTA

Getxoko aize-errotearen inguruan ei-egoan arri aundi bat, ariztantai aundi baten kerizpetan.

Eta auxe da euren bien kondaira edo ipuiña.

Getxoko baserri-etxe aberats bateko semerik gazteena ei-zan, eta Gabon-Unai bere izena. Aspaldian kristiñautuak euskaldunak, baiña Ameriketako lurren barri ez ekijeen orduan emengoak. Maomaar mairu-baltzen gerratera joanak ziran anairik zarrenak, eta bakarrik gelditu zan Gabon-Unai, gazteena, gurasoekin.

Amazortzi-ogei urtekoa zala ezagutu ei-eban itxaso aldetik egu-nero agertzen zan neska gazte eder bat, urregorritzko ule ta edurrezko esku zuriduna bera.

Ondo konpondu ei-ziran, eta baietz, ezkontzeko egin ei-eben berba.

Mutillaren gurasoak jakin ebenean semearen asmoa, esan eutsoen Unairi:

—*Badakizu nor dan neskato ori?*

—*Ederra ta ona da.*

—*Begiratu deutzazu oiñetara?*

—*Ezteutsadaz ikusi anak.*

—*Ba begiratu egiozuz, ezkontzie aurrera eruen orduko.*

Alkar ikusi ziranean neska-mutillok, anak erakusteko eskatu eutson Unaik neskiari.

Ezetz eta ezetz neskiak, ezetan be ez anak erakusterik.

Derrigorrean artzen dau orduan neskia; oiñetakoak kendu-arazoten deutsoz, eta... itxasokoen anakaduna agertu ei-zan a neska ederra.

Biotza miñez erdibituta eta penaz beterik esan ei-eutson mutillak:

—*Ezin neiteke ezkondu itxasoko anakadunakin. Uretako andria zara zu, eta legorrekoa ni.*

Eta negarrez itota, itxasokoen ankadun neska ederrak:

—*Ez nozu geiago ikusiko bizi zarean artean, egin dozunagaitik, baiña nere negarrezko kantua entzungo dozu itxasotik aizeak joten daben bakoitzean.*

Eta au esan eta une aretan bertan arri eginda gelditu ei-zan neskatoa.

Urteak joan eta urteak etorri, ardizaintzailleari be joan jakozan gaztearoko urteak eta bizitzakoak, iñorekin be ezkondu barik.

Makiña bat itxasoko aize-kantu entzun ei-eban gizajoak, ainbeste maite izan ebanaren arriondoan!, eta antxe bertan emon eban azken ordua, betiko begiak itxitea, negu gogor bateko edurrak agertu ziranean.

Urrengo udabarrian erne ei-zan tantai aundia egingo zanaren landara barria, Unai il zan leku aretan bertan, arriaren ondoan.

Eta urte askotan entzun ei-ziran an paraje aretan neska mutil bien aize-txistuzko kantuak.

* * *

Urteak eta gizaldiak geroago, ari arri aundiari be etorri ei-jakon bere azken ordua, aize-errota barria egin ebenean.

Arribizi arekin egin ei-eben aize-errota barria. Eta orduan eta geroagoko urte askotan be ainbat bidar entzuten ei-ziran itxas-kantuak aize-errotaren egal-aspaen zaratakin batera.

Au da Getxoko Aizerrotako neska mutillen ipuiña, eta baliteke egunen batean argin ederzaleen batek arritailu polit batean barrio berbiztutea, urrengoan gogorantzarako.

BITAÑO.



DENBORARI BURUZ

Gaurko gure munduak beharrago bide du berritasuna egia baiño: egiarik haundiena ere ez bide da gaur aintzakotzat hartzen, berritasunaren usaia falta baldin badu. Hori dala-ta, gaurkotasunaren mailan, teoriek herronka jarraitzen diote alkarri; herronka nagusitzen dira herrien arretaz, bai; baiñan baita ere herronka ahaztutzen. Aldizkari ezagunenetan eta sasi-jakintsuen solasetan, ideiak ez dira sekulan finkatzen, berritasunaren arabera alkargainka trukutzen baizik. Teoriek modaren kideak dirudite, eta berrizaleen artean modak berak bezin igarokorrak.

1945-etik aurrera, esate baterako, etsistentzialismoa izan zan moda hori, eta Sartre lehenengo maillan jarri zan. Ez, noski, esaten zuenarengatik beragatik (xuxenki 1943-ko «L'Etre et le Néant» dalakoan Sartre'k adierazten zuena iñor gutxik uler baitzezakean orduan... eta gauza bera gaur ere!); baiña bai, eta hunengatik batez ere, Sartre'k gauza «berriak» esaten zituelakoan. Gaur berritasun-giro hura histu egin zaio etsistentzialismoari; eta Sartre'zaleek berek maizago aipatzen dute oraingo bere «La Critique de la Raison Dialectique» dalakoa, orduko «L'Etre et le Néant» baiño (nahiz ez oraingoa ere lehengoa baiño hobeki ulertu!). Sartre bera aldatu egin da, zalantzarik ez. Baiña berriarekiko moda ere bai: Sartre hirurogeitsuko bat dugu gaur. Belaun berria izen berriren billa ari, beste izen berri batzuk behar ditu; eta ba dituela dirudi: Lacan, Foucault, Althusser. Belaun berriak susmo txarrez begiratzen du Sartre, ez baita... berria.

Idea berriekiko hetsia izatea, noski, etorkizunarekiko eta aurre-rapenarekiko hetsia izatea da. Galileo, Débussy, Van Gogh eta Freud berritasun horren ekarle izan ziran beren garaietan; eta gaur nabarmen zaigu beren berritasun haren kontra jokatu ziranak, oker jokatu zirala. Dirudienez, bide hori hartu ezkerro gizon garrantzitsu guziak kondenatu beharko ziran, bata bestearen ondoan. Beren aldian harrigarri agertu ziran gizonak oro ez dira beti haundiak izan; haundi gertatu diran gizonik gehienak, aldiz, harrigarri gertatu izan dira beren garaiean. Egiak izan behar du hautuaren gidaria; baiñan egia

berria non dan ezagutzea ez da erreza izaten, berria dalako hain zuzen. Arrisku haundiagoa dago, halere, berri diran guziak arbiuatuz, danak onartuz baiño. Eta haxe da kakoa. Jokabide berrizale askoren kakoa, nahastu-nahi-ez hortan datza.

Berri-nahi amorratu hortan ba dago gure mendearen tema berezi bat. Gure egunetan, dialektikaren eta eboluzionismoaren aroan beraz, nola ez onar, berriak diralako, gauza berri guziak? Aspaldidanik siñistu dana, ez ote da, besterik gabe, zahartua, igarua eta gainditua? Berriz ere, hortaz, oker ez jokatzearren, brankan beti egon nahiz, berri dan guzia onartzen da, eta berri ez dan guzia, era berean, alde batera uzten. Aspaldiko zuhurtasun bare hura, Seneka'ren edo Cervantes'en izkribuetan esate baterako aurki ditekenea, ez da gaur aipatu ere egiten... Irizpidea, hortara, moda dugu, hots, berrikeria, esnobismoa; eta egiaz ahaztu egiten gera. Onartutako mito gezurrezkoen kritikaren egarria danean, «ezkertasun» zuzena da. Baiña ipuiñak salatu eta sasi-absolutu zaharrak astindu nahi gorrian, betiereko zuhurtasuna eta betidaniko egia haundiak ere baztertzen ditugu. Hiraka erauzi nahiz, garia ere erauzten dugu; eta lurra elkor egiten. Ezkertasunari ezkerkeria nagusitu ohi zaio, berritasunari berrikeria. Eta berrikeriaren ipuiña salatu eta astindu gabe gelditzen da.

Sartre'ren egoeraren giltzarria hortan datza. Trotskistei lagunduz, Nobel-Saria ez hartuz, berriki Russell-Epaiburutza onartuz, ba du Sartre'k oraindik berritasun-kutsu hori, eta modan iraun dezake. Baiña gero ta nekezago berak ere, berritasunaren neurria absolutua dalako. Gainditua ote dago egiazki? Orain dala hogeiturotuak soluzioak, eta bere kezkek batez ere, atzean gelditu ote dira? Ez nik uste. Atzean gelditu ez, baiña saihetsean utzi. Modak ez du gainditzeko, zeharkatzen baizik. Kierkegaard, Heidegger, Jaspers, gure Unamuno bera, ez daude modan; baiñan ez gainditurik ere: berriz argitaratu da frantsesez, esate baterako, Unamuno'ren «Del Sentimiento Trágico de la Vida». Moda pasata, denboraren haizeak eramaten du lastoa; baiña bihia hutsik gelditzen da. Ospea bai: meta gaitz batetik pillotxo batera biltzen da; baiña zer galdu da, egia esateko?

Fenomenu berbera gertatu da Einstein'ekin. 1920-ean Europa guzia mintzo zan Einstein'ez, eta gehienetan fisik ulertu gabe: errelatibitate modan zegoen. Kontra ez zegoena, alde zegoen; gaur estrukturalismoaz bezela: «Gauza amorragarri bat du modak: kontra eginez ere, modari eusten zaiola. Hortantxe ezagutzen da moda bat hain zuzen: alde ala kontra hitzegiten dalarik ere, berdintsu dala, moda-koaz hitzegitea dala kakoa.» (1).

(1) Jean Pouillon, "Temps Modernes", 1966-eko Azaroaren zenbakian.

Baiña piskanaka, Errelatibitateari berri-kolorea zimeldu zitzaio-larik, modaren eta gaurkotasunaren aldetik bigarren maillara pasa zan teoria. Mac Carthy'ren garai lotsagarrian bakarrik, berriz modan jar-tzeko aukera hitsa izan zuen Einstein'ek: ez 1943-ko bere «Kanpo-Batua» deritzan teoria zaillarengatik (oraindik ere gutxi dakigu teo-ria hortaz); Oppenheimer'ekin batera «komunistatzat» hartu eta zain-tzapean jarria izan zalako baizik.

Eta hauxe da leloa. Hauxe da larriena, hobe. Errelatibitatea 1967-an ez ezagutzea, Fisika'ri buruz ezer ez jakitea baita; eta filosofiari buruz, batzuk zernahi esanagatik ere, iritzi funtsezko bat ematea arras eziña. Egiaren egarrria duten guziek, Einstein'en teoriak ikasi behar dituzte; eta egiten ez badute, «zientzizale» hitza maiz erabi-llirik ere, jakintzari buruz eta egiari buruz beren ezteusa eta hurri-keria erakutsiko dituzte. Orain gauzak aldatu egin dira pittin bat; baiña urte askotan zehar, Einstein'en teoriak «burges»-tzat hartu zituzten zientzizale izeneko erresumek, eta Errelatibitateari buruzko liburuak zerrenda beltzean jarri. Ia denbora berean Mac Carthy ere lan berean ari zan... Segidan, beraz, judutarra zalako, burgesa za-lako, eta komunista zalako, Einstein madarikatua izan da. Nork bildu ote ditu berak baiño gehiago?

* * *

Couderc'ek egoki dio bere liburu irakurgarri batean: «Karkuluen oruara sartzea osoki debekatzen baldin bada, Errelatibitateari buruz-ko izkribu bat, Errelatibitatearen inguruko ibillaldi billakatzen da nahi-ta-nahiez.» (2). Neure saiakera labur hau, beraz, ibillalditxo hori baiño sakonago izan ditekeala pentsatzea, zorakeria litzake: bai nere aldetik, eta bai irakurlearen aldetik ere.

Ba dakit, beraz, eta irakurleak ere bai, nere entseguaren mugak zein diran. Baiñan Einstein oso ahaztuta dago Euskal Herrian, eta hau ez da inñundik ere guretzako ohore bat. Atzerrian, gorago esan dudan bezela, Errelatibitatearen modarik ez dago; baiña ba dago gure artean sumatzen ez dan jakin-nahi giro bat. Bi argibide emango ditut xoilki.

Couderc'en «La Relativité» liburua (españeraz ere aspaldidanik irakurgarri) hamabigarren aldiz argitaratu da frantsesez 1962-an! Az-keneko argitaraldian 72.000 ale imprimatu dira. Brusela'n, bigarre-nik, 1959-ko Garagarrillaren 19 eta 20-ean, Errelatibitateari buruz-

(2) «La Relativité», 5 gn.h., P.U.F. 1962. Errelatibitate Bereziaz ideia bat hartzeko batez ere oso irakurgarria.

ko Alkarrizketa bat izan zan; eta Géhéniau irakasleak hau jakiña-razi zuen: «Orain dala urte batzuk, Errelatibitate Jeneralaren aldeko gogoia emendatzen eta berretzen ari dala nabaitu dugu.»

Europa'n aide hauek dirala-ta, zertan gera gu?

Oraintxe zertan geran ez dakit xuxen. Ni Bilbo'n ikasle nintzan garaian zer ikasi genuen esan dezaket ordea. Errelatibitate Bereziaz zenbait ideia azaldu zigun Belda irakasleak (zoritzarrez guk axolagabekeria entzunak eta ikasiak), eta besterik ez. Tentsoreen Karkulua ez genuen ikutu ere egin; eta Errelatibitate Jeneralaz, beraz, ezer ikasi ez genuela esan beharrik ez dago. Teoria hauek ez baitira «pratikoak», alde batera uzten ziran ahalik eta laisterrenik; eta txalo jotzen zan. Zertarako «denbora gal», gero «ezertarako ere» balio ez duten zozokeriatan? Urte haietan, halere, Bilbo'ko Eskola zan, nere ustez, Euskal Herrian Errelatibitateari buruz zerbait erakasteko egokiena, gaiena bederen, bakarra ez bazan.

Ba dakit. Errelatibitate Berezia bera ijeñeru bati bai «pratiko» eta bai ulerterreza izan dakiokela esatea, astakeria litzake nere aldetik; eta ez dut esan, eta ez esango ere. Baiña Ijeñeru-Eskola Nagusi batean gurean baiño gorago ez bazan ikas-mailla, Errelatibitateaz oraindik gehien gehienek deusik ez dakitela pentsa ditekela esan dezaket; España'ko eta Frintzia'ko Ikasguetan giroa oso desberdiña ez baitzan. Zientzia hutseko Ikasguetan beharbada? Ez dakit (3).

Egoera ezjakin horren kontra doa nere «ibillalditxo» hau. Ikasgura piz badezaket, ni pozik. Ziur naiz euskaldun askok denboraren kezka duela.

* * *

Ez dut, berriz diot, Errelatibitatea lerro batzutan, eta formularik gabe, osoki azaltzeko asmorik. Baiña denborari buruz ezin diteke ezer esan eta ez funtsez pentsa, teoria hau ezagutu gabe. Denborari buruzko kezka metafisikoa duten guziak astintzekotan eta eragitekotan idatzi dut hau. «Pratikoek» ez naute entzungo, ba dakit; baiñan opa ere ez nuen horrelakorik. Euskeraz eta «ezertarako balio ez duten» puntu hauetaz izkiriaturko nuketa bestela?

Zalantza haundiak izan ditut. Zer adi diteke? Zer adieraz nezake? Formulatan barrena abiatzea ez da erraza: Matematika goitik

(3) Euskeraz, bederen, ia behin ere ez dira gai hauek aipatu. Berezkuntza bakar bat egin beharra dago: Jakin'en, 1965-eko Urtarrillaren zenbakian, artikulua labur bat eman zuen "Osiranzu"k.

ezagutu behar da, eta Fisika ez apalkiago. Mailla hortan liburu osoak eta sakonak egin dira; eta ni fisikolari izan gabe lan-mota hortan sartzea harrokeria litzake (4).

Errelatibitatea zailla dala iñori gogorazi beharrik ez dago. Gauza bakar bat baldin badakite askok Einstein'i buruz, horixe dakite: Einstein oso zailla dala, ulertu eziña dala, bere teoriak banaka batzuk baizik ez dituztela konprenitzen. Eta bere lan osoa kontutan hartu ezker, egia esateko, izan-hala da.

Askotan, halere, zaillago egiten da, nere ustez, ideiak aurkeztutzean errazago azaltzekotan ahalegiñik batere egiten ez dalako.

1905-eko Errelatibitate Berezian batez ere, nahiz teoriaren funtsa edo muiña arras gure ideia zaharren kontrakoa izan, Matematikaren alderdia ez da, nahi-ta-ez, oso zailla. Liburu askotan, alabaiña, azalpenik illunenak eta abstraktoenak aukeratu dirala dirudi. Ekuazio nagusiak ez dira zaillak. Energiaren eta masaren artekoa, gonbarazio baterako (5). Ez da batere zailla Matematikaren aldetik; baiña funtsa, erroa, sustraia, siñistu-eziña da, bai Filosofiaren aldetik, eta bai haunditasunen aldetik. Gaur bertan, Hiroshima'ko bonbatik 22 urte pasa ta gero, intxaur ale batek bere barrenean «kwh» izenekoak milloika biltzen dituela siñistea neke egiten da.

Errelatibitate Jeneralean (1915-etik jakiñarazia), ordea, ez dago horrelakorik. Azalpen errazik ez dago: espazioaren makurgoa edo kurbatura ez da errazkiago ulertzen diferentziazio kobariantea baiñ. Muiñera joan nahi duenak tentsoreetara jo behar du, eta ez horietara bakarrik. Hauxe da larriena: teoria ez da, Matematikaren aldetik, Fisikaren aldetik baiño xamurragoa. Hori dala bide, Errelatibitatearen soroan sartu ezker, eta Christoffel eta Ricci'ren ize-nak eta sinboloak ikusi bezin laister, kitto: hura ulertzeko gauza sekulan izango ez gerala dirudi. Aski da edozein egilleren oiñarrizko liburu bat begiratzea: Weyl, Eddington, Cabrera, Landau, Lichnerowicz, Einstein bera... Gauzak ez dira denborarekin legundu: fergo 1955-ko Brusela'ko Biltzarra aipatu dut. 1962-an ere, Infeld buru, beste Biltzar bat egin zan Varsovia'n. Aski du irakurleak, ahal badu, Biltzar horietako batean aurkeztutako azterkaiak begiratzea. Zalantzarik gabe: Errelatibitatea ez da nobela arin bat. Hau danok erreparatu dugu.

(4) Errelatibitate Jeneralari buruz iritzi bat eman behar izatekotan, 1963-an frantsesez agertu dan liburu "erraz" bat gomendatuko nioke: Jean Charon'en "15 Leçons sur la Relativité Générale", Edit. René Kister. Hortatik bai, gero Weyl, Landau, Lichnerowicz, eta abar, irakur ditezke. Ez lehenago, nere ustez.

(5) $E = m \cdot c^2$; c , argiaren habailla da, hutsunean, $2,998 \cdot 10^{10}$ [cm/s]; beraz, E [erg] = m [g]. $8,988 \cdot 10^{20}$ [cm²/s²]. Faktore hau ikaragarri haundia izanik, garbi agertu zuen Einstein'ek materiaren desintegrazioa izan zitekean indar-iturria.

«Kanpo Batua»z zer esanik ez. M. A. Tonnelat'en, Hlavaty'ren edo Einstein'en izkribuei begiratu bat ematea dago. Kementsuenak berak kemenik gabe gelditzen dira lehenengo momentutik... Are gehiago: batzuk diotenez, ba liteke oraindik ere Einstein'en hirugarren teoria nagusi hunek, hirugarren erreboluzio bat ekartzea Fisikan eta Filosofian. Pertsona bakar batek hiru ideia-erreboluzio... gaiñerako lanez gain: fotoiak, laser'en sustraia, eta abar.

Ulergarri dirudi, beraz, hein batean, irakaskintzan teoria zail hauek alde batera uztea. Baiña egiazko intelektual batek ezin dezake joera praktikoi hori guztiz onar. Bai gaur, eta bai etorkizunean, eziña da Einstein'en teoriaren oiñarriak bederen ezagutu gabe «intelektual» izena erabiltzea; eta are eziñago oraindik «zientzia» ren gogaide eta aldekotzat jotzea. Charon'en hitzak, horrengatik, neureak egiten ditut: «Beste alde batetik harrigarri gerta diteke matematika-tresna hau (tentsoreei buruz ari da), Fisika ulertzeko guztiz beharrezkoa, ez bigarren irakaskintzan, eta ez Fisikaren oiñarriko azalpenekin BATERA, oraindik sartua ez ikustea (6).

Zer egingo nik beraz?

Formuletan-eta abiatzea kaltegarritzat eta eragabe jota, formularik gabeko azalpenetan beretan sartzea ere eta matematikarik batiere gabe, zailla iruditzen zait (7).

Eta hau erabaki dut. Denborari buruzko Einstein'en teoria, hutsik eta hotzik azaldu beharrean, adibide asaldagarri eta siñiskaitz batzuk aurkeztuko ditut gordinki. Adibide hauek Errelatibitatearen araberakoak izango dira (E. Berezitik E. Jeneralera pasatuz); eta irakurlea bera konturatuko da noraiñoko misterioen erdian bizi geran, noraiñoko gisakoa dan Einstein'ek behin eta berriz aipatzen zituen bere lillurapenak. Eta ondorioak irakurleak aterako ditu.

* * *

Denboraren problemak aspaldidanik kezkatu du gizona. Zer da denbora? Denborarik ba ahal dago? Ez ote da, Kant'ek uste zuenez,

(6) 15 Leçons, 38.

(7) Alderdi huntatik, eta formularik ia batere gabe, Bertrand Russell'en entsegua da onena nere ustez. 1925-eko bere "ABC of Relativity" argitsua, frantsesez argitaratua, eta españeraz ere nik uste, irakurtzetik has d'teke gai hau ezagutu nahi duena. Ez zaio damutuko.

gure «kategoria» huts bat, alegia, gure ulerpide bat, munduaz jabetzeko gure modu edo kera huts bat? Ez ote da mundua beti ere jiraka ari, lamaistek dioten bezela, eta ez bere ardatzaren inguruan soilki, denborari buruz ere baizik? Ez ote dira gauza eta gertaera berberak, eta geure bizia bera, behin eta berriz berretzen, Nietzsche'k eta antziñako hindutar filosofiek uste zuten arabera? Nolakoa da denbora: biribilla ala lerroa, ziklikoa ala lineala?

Teoria anitz ezagutu da huntaz mendeetan zehar; baiñan ez Einstein'enaren erakorik, nik dakidanez. Horrengatik harrigarri izan zait berriki kaseta batean irakurri dudana (8). Zeilan'go gobernua (Zeilan budista da, jakiña) liburu bat argitarazi du 1957-an: «The Bouddha's Explanation of the Universe». Liburua ez dut oraingoz nere eskuetan izan; baiña denboraren errelatibitatea sumatu bide zuen Siddhartha'ko Gautama'k orain dala 2.500 urte. Hori egia balitz, Buddha'ren argitasuna eta gaintasuna berriz ere haundituko lirake.

Dana dala, Einstein'ek 1905-ean Errelatibitate Bereziaren oinarririak ezagutarazi zituenen, danak txundituta utzi zituen. Eta Poincaré eta Painlevé bezelako zientzia-gizon ospatsu batzuk ez zuten segidan sinistu ahal izan, eta uzkur agertzen zitzaizkion. Zergatik?

Argiaren laisterra edo habailla segunduan hirurehun milla kilometrotakoa da. Illargiraiño, esate baterako, segundu batean joaten da argia, gutxi gora behera (1,28 seg. xuxenki); eguzkiraiño zortzi minututan, eta abar. Gauza ageria da habailla horrek gure Lurrean ikusten ditugun gertaerei buruz infinitu dirudiela.

Errelatibitatearen oinarrria argiaren habailla horren aldagabetasunean edo inbariantzian datza. Anitz frogabidetan beti bat eta aldatu eziña kausitu da: 299.792 km/segunduan. Soegillearen mogimenduak ez du habailla hori ezertan aldatzen (9). Einstein'ek 1905 ezkeretik gaztigatu zituen fenomenu harrigarriak ez dira gure ohiko habailla apaletan nabarmentzen, alegiazko sateliteek berek ez baitute iñoiz egiten 12 km/seg. baiño gehiago. Zer dira 12 km/seg., 300.000 km/seg.en ondoan? Apo-harmatua... eta erbia!

Gauzak ulertzeko, beraz, eman dezagun haundiago gerala; fenomenuak gure neurrira ekartzeko, milloi bat aldiz haundi dezagun

(8) Ikus 1967-ko Jorraiaren 27-ko "Nouvelles Littéraires".

(9) Michelson'k aurkitu zuen lehendabizikorik aldagabetasun hori 1880-ean; eta gero behin eta berriz egiztatu dute aztertzaile guziek: Kennedy'k 1926-ean, Piccard'ek 1928-an, Joos'ek 1930-ean, eta abar.

gure burua: 1,70 m. neurtu beharrean, demagun 1.700 km. neurtzen ditugula. Alegiazko aldakuntza hunek ez luke, sustraiari dagokionez, fenomenua aldatuko; baiña Errelatibitatearen izana hobeki agertuko litzaiguke.

Demagun, beraz, gure tamañako izakiak izan beharrean, 1.700 kilometrotako erraldoi ikaragarriak generala, dinosauro eskergak baiña ere aisa haundiago. Lurra, etxeak, ibaiak, dana, egin dezagun, gure buruarekin batera, milloi bat aldiz haundiago. Argiaren habailla, aldiz, egon bedi bere hortan.

Eskala berri hortan, beraz, argiaren habailla hutsunean 300.000 «mm»/segunduan izango litzake (milloi bat aldiz txikiago gure arabera), hau da, gure tamaña berriaren arabera 300 «metro» berri segunduan. Hemendik aurrera, eskala berri hortaz mintzatuko garen ezker, «metro» (= milla kilometro) eta «kilometro» (= milloi bat kilometro) berri horiek, «m» eta «km» idatziko ditugu, egiazko metro eta kilometrotik berezteko.

Mundu berri hortako argia (dinosaurioek pittin bat soma zezatekean...), beren tamaña ikaragarritan gaurko soiñuaren arabera mogituko litzake gutxi gora behera, soiñuaren habailla 340 m/seg. baita haizean barrena. Hodi batetik presiopean darion uraren arabera ikusiko genituzke argiaren errañoak argi-iturri batetik ateratzen. Argiaren jarioa nabarmen izango litzaiguke. Ispillu batean, era berean, gaurko soiñuaren arabera argia joaten eta bihurtzen ikus ahal izango genuke. Argia 300 «m»/segunduan mogituko litzake.

Eman dezagun, beraz, tamaña hortako gizon bihurtu generala. Gaurko Lurra pelota gaitz bat irudituko litzaiguke, asteroide txiki bat. Gure etxean egoteko izar haundi batera joan beharko genuke. Antares bera txikia irudituko litzaiguke. Jar gaitzen irudimenean gure neurriko izar haundi batean, 40.000 «km»tako hain zuzen Lurra-aren antzekoa izan zedin. Han, gure haunditzeaz gain, patxaran ibiliko giñake. Irudimenean jar dezagun han gure geografia eta gure mundua. Han izango dugu aurrerakoan gure «Lurra» (inguruak 40.000 «km» = berrogei milla milloi kilometro. Izar haundia benetan!). Zer ikusiko genuke? Denboraren joanari edo ixuriari buruz batez ere, zer nabaituko genuke?

Eman dezagun Porsche bat hartzen dugula (Porsche «berri» bat, milloi bat aldiz haundiagoa, noski). Porsche hortan, eta galtzara on batean, aisa egingo benituzke 180 «km»/orduan «Lurrean» zehar. Zer nabaituko genuke? Eta zer nabaituko luteke kamiñoaren ertzetik gu pasatzen ikusiko ginduztekenek? Arreta jar beza orain irakurleak, harritzeko aukera izango baitu!

Has gaitzen gure Porsche'aren luzerari dagokionez gertaerak

azaltzen. Garajetik ateratzeko orduan, «metro» zail, zurrun eta aldakaitz mordo bat hartuko genuke, eta haren bidez neurtuko genuke; eta ateratzerakoan, bai Porsche'an abiatu behar guenenok eta bai errepedearen ertzean guri begira gelditu behar zutenek, batera eta guztiz ados esango genuke: «Porsche hunek, eman dezagun, 3.000 «metro»tako luzera du.»

Neurri bat gurekin hartuko genuke guk, eta gure lagunek beste bat, biak beraz guztiz berdiñak eta guztiz aldakaitzak; eta bidean barrena abiatuko giñake. Porschearen habailla-markagailluan 180 «km»/orduan irakurtzean, gure neurkiñak hartu, eta Porschearen luzera neurtuko genuke: berriz ere 3.000 «m» justu idatziko genuke. Ezta milimetro bat luzeago, eta ez motzago.

Bide ertzean guri begira gelditu ziranek, aldiz, asma ditezkean neurpide guziak arretaz erabili ondoren, eta karkuluak bost aldiz birrikusi ondoren, hau esango luteke: «Porsche hori moztu egiten da abiatzen zeratenean: guk 2,958 «m» neurtu dugu behin eta berriz.»

Berriz ere egingo genuke frogabide berbera; baiña aldi huntan 270 «km»/o. hartuko genituzke. Zer oharraraziko genuke guk eta zer lurrekoek? Guk 3.000 «m» neurtuko genuke berriz; baiña gure lagunek 2,905 «m» besterik ez.

Habailla haundiagoan pasa, eta gure berebilla, lurrekoen ustez, gero eta motzagoa luzeraren aldetik. Gu bidarion ustez, aldiz, beti bat.

Nork luke egia? Bai berek eta bai guk! Porsche horren luzera zein dan, edo zenbat dan, era hortara galdetzeak, Einstein'en aurreko pentsaera izatea erakusten du. Porsche horrek 3,000 «m» ditu Porschearen sisteman, eta 2,958 «m» edo 2,905 «m» soegilleen sistemetan. Egia ziñez nork duen galdetzeak, denboraren neurri absolutuaren siñismen bat dagoela adierazten du. Hots, eta hortxe dago okerra: denbora bakar eta absoluturik ez dago munduan! Neur ahal izateko, Porschearen bi muturretan *batera* jarri behar ditugu guk metroaren buruak; eta berdin soegilleek. Baiñan Einstein'ek irakatsi digunez (eta Errelatibitate Bereziaren frogakariak hor daude, ermo, zindo, bai Fisikan eta bai Astronomian), bateratasunik ez dago. Porschearen barruan gaudenon bateratasuna, eta kanpotik begiratzen gaituztenena, ez dira bat eta berbera. Guk batera jarri uste ditugu metroaren bi muturrak neurtzerakoan, baiña gure lagunek ez dute hori uste. Eta alderantziz. Hortik ezin alkar hartzea.

Baiñan, are harrigarriagoa: Porschearen goratasunaz, danok bat gentozke: Porscheak 1,20 «m» lituzke beti, bai geldirik eta bai abiatu ondoren, bai barrangoen ustez eta bai kanpokoan ustez, bai 180 «km»/orduan pasatzean, eta bai 270 «km»/o.n. Goratasunaren

neurketa hau habaillaren sentiduan egiten ez dugulako, gure artean ez legoke nahaspillarik batere.

Hortaz harrিতuta, ordea, gauza bat egin genezake: bai guk Porschean eta bai gure soegilleek bide-ertzean, metroa tinko heldurik, alkarri erakutsiko genioke neurkiña. Eman dezagun bai berek eta bai guk asma ditezkean neurgaillurik zorrotzenak eta zehatzenak hartu ditugula gure neurketak egiteko; eta Optika hutsaren legeak guztiz ezagutzen ditugula, eta karkulatzen ere hutsik batere egiten ez dugula. Lehendabiziko pasaldian bai berek eta bai guk gure neurkiñak guztiz errara jarriko genituzke; eta bigarreanean, aldiz, guztiz zut, bai guk eta bai berek.

180 «km»/orduan pasatzerakoan, hauek izango lirake erantzunak gutxi gora behera:

Guk: «Lehenengo aldiz zuen aurretik igaro geranean, zuen metroak 0,986 «m» luzera zuen, eta bigarreanean 1,000 «m» justu.»

Berek: «Lehenengo aldiz gure aurretik igaro zeratenean, zuen metroak 0,986 «m» luzera zuen, eta bigarreanean 1,000 «m» justu.»

Hitz berberak; eta metroak... gomazkoak, itxura danez!

270 «km»/orduan igarotzerakoan, 0,968 idatziko genuke 0,986'ren orde. Gaiñerantzekoan berdin.

Baiñan askoz harrigarriago izango litzake dana guk «Caravelle» bat hartu ezker; eta gure lagunen aurretik (aideportuaren hegian guri begira aldi huntan jarririk) behin eta berriz, neurkiñak agiri, 900 «km»/orduan igarotzean.

Metroa bai guk eta bai berek errara jarri ezker, soegilleen metroak 0,553 «m» neurtuko luke gure tresna guzietan; eta beren metroak, alderantziz, 0,553 «m» gureetan. Beren ustez gure «Caravelle»a txit moztuta irudituko litzaeke; baiña guri ere, era berean, soegilleen buruak zapalduta bezela irudituko litzazkiguke, rugby-peloten modura! Gure ustez, eta hau gure neurkaillu guzietan eta karkulu guzien ondorioz, gure «Caravelle»ak luzera berbera gordeko luke bidaia guzian; eta jexi ondoren ere gauza bera.

* * *

Fenomenu horren kakoa denboraren batasunik eza da.

Baiña gure erlojuetan fenomenu askoz harrigarriagoak gertatuko lirake. Nahiz danok erloju berberak izan, eta irakurleak nahi ditza-kean bezin zehatzak (atomikoak, edo beste), desordenua larriagoa litzake huni buruz.

«Caravelle»ra gu igo, beraz, eta 900 «km»/orduan abiatuko giñake. Habiilla huntan joanez, guk ez genuke ezertan ezer nabaituko gure hegazkiñaren barrenean: alegia, gure erlojuek betiko abidan

jarraituko luteke, gure bihotzaren taupadak betikoak irudituko litzazkiguke, eta, hitz batez, «Caravelle»aren barruan, dana beti bezela gertatzen ikusiko genuke.

Kanpokoek, aldiz, ez. Guri begira leudekean soegilleek inñundik ere ez luteke iritzi berbera emango. Gure lagunen ustez, gure «Caravelle»aren barruan dana loakartua bezela ikusi zutela esango liguteke, dana nagitua, moteldua. Eddington'ek maltzurki esaten duen bezela, gure zigarroak polikiago erreko lirake lurrekoen ustez berenak baiño; eta hortik, bekaizkeria ikaragarri bat sortuko litzake lurreko erretzailleen artean... Lurreko jendeek hori ikusita, «Caravelle»ra sartu nahiko luteke, zahartzeko gogorik nunbait batere ez izanik... Lurreko gure adiskideen ustez, gure denbora ez litzake berena bera izango: lurrekoen erlojuetan miñutu bat pasa orduko, guretan 33,16 segundu baizik ez lirake pasako. Arnasa ere, beren ustez, guk emekiago, polikiago, hartuko genuke; «Caravelle»aren mundua, hitz batez, lurretik ikusirik, nagitua, eta geldiago irudituko litzake lurrekoa baiño.

Esan beharrik ez dago, nere ustez, hau ez dala «science-fiction»: Einstein'ek, ez istillurik gabe hau ere, Nobel-Saria lortu zuen; eta Errelatibitatearen iragarpenak orain arte hitzetik hortzera frogatu dira. Esan beharrik ez dago ere fenomenuen harrigarria ez datzala ez tresnetan eta ez karkuluetan. Gauza ageria da, dana dala, bai guk eta bai soegilleek ateratzen ditugun ondorioak aditzera eman baiño lehenago, argiaren joan-etorrien diferentziak kontutan hartuak izan dirala, eta egokiro zuzenduak. Kakoa errealtatean dago, ez gure irizietan edo karkuluen hutsetan, ez gure bihozkadazko irizietan. Munduaren izana hor dugu, harrigarri bazaigu ere. Fenomenuak bederen horiek dira.

Harira bihurtuz, guk fenomenu berberak ikusiko genituzkean «Caravelle»tik gure soegilleei begiratuta. Gure ustez gu ez-baiña berak lirake moteldu ziranak, beren zigarroak lirake polikiago erreko gureak baiño, beren arnasa litzake gurea baiño geldiagoa; eta gure erlojuetan miñutu bat pasa orduko, lurrean daudenen erlojuetan 33,16 segundu baiño gehiago ez lirake pasako. Gure ustez, beraz, eta gure tresna eta neurgailu guzietan, lurreko munduak nagiturik lirudike, eta ez gureak. Gurea normala irudituko litzazkiguke, betikoa.

Habaila azkartu ala, nahiz eta hunentzako gero eta motore indartsuagoak behar izan (10), fenomenua gero eta ukatu-eziñago egingo litzake.

(10) Eta ez irakurleak beharbada pentsa dezakean araberan, inertziari buruzko gora-beherak gero ta nabarmenago baitira.

Gure «Caravelle»k 1.060 «km»/orduan har ahal balitza, lurrekoen erlojuek miñutu bat egin orduko, «Caravelle»koek 8,16 segunduz baizik ez luteke aurreratuko, lurrekoen ustez hau; baiñan, alde-rantziz ere gure iritziz, miñutu batez gu hegazkiñeko bideazkook zahartu orduko, lurrekoak 8,16 segunduz baizik ez lirake zahartuko.

Argiaren habailla (1.080 «km»/o. gure alegiazko mundu hortan) iñolaz ere iritxi eziña izango litzake. Baiña 1.080 «km»/o. har ahal izan ezker, dana gelditurik ikusiko genuke «Caravelle»tik. Fotoi batetik, esate baterako, gure soegilleen erlojuak eta beren inguruko guzia geldirik agertuko litzaguke (karkuluak eta nahi dan guzia xuxen egin ondoren). Denborarik gabe bezela, fotografia batean bezelaxe, denbora hilla.

Beste adibide bat: lurrekoen ustez gure «Caravelle»a 900 «km»/orduan ari iparraldera; eta beren ustez ere beste «Caravelle» bat, 900 «km»/orduan, hegoaldera ari, gure ondotik. Alkarrekiko habailla neurtu ezker, bai guk eta bai beste «Caravelle»koek, gauza bera aurkituko genuke: alkarrekiko gure habailla ez da 1.800 «km»/orduan, 1.062,3 «km»/orduan baiño!

«Egia ote da?», galde dizaidake irakurleak. Nere erantzun bakarra, Einstein'ena izan diteke: «Zein sistematan? Zein soegilleri buruz egiten didazu galdera?» Kakoa hemen da. Denbora ez da bakar bat, bateratasuna ez da ezer. «Caravelle»tik eta lurretik itzuletara agertzen dira fenomenuak. Zuzen nork ikusten duen, eta nork oker galdetzen duenak, oraindik ez daki fenomenuen izana eta denbora *errelatiboak* dirala. Einstein jaio aurretik bezela ari da galdezka.

* * *

Hauek guziak bezin harrigarria da tren luze batean gertatzen diran gauzak.

Eman dezagun tren luze bat (beti eskala berrian gaude): «kilometro» bateko luzerakoa adibidez. Eta eman dezagun, lehen bezela, burnibidearen ondoan begira jarririk, soegille talde bat utzi dugula. Eta eman dezagun, lehen bezela ere, denen tresnak eta jakinduria nahi bezin zuzenak eta sakonak dirala.

Demagun orain gu trenean gaudela: trena, esate baterako, 360 «km»/orduan pasako da gure soegille-taldearen aurretik, eta gu barnean joango gera.

Denboraren araberako fenomenuak ongi aztertze, trenaren luzera guzian barrena larogei eta hemeretzi erloju haundi jarriko ditugu, batetik bestera 10 «metro»tako tarte bat utziz, soegilleak dauden aldera begira bagoieko leihoetan zintzilikaturik, gu trenarekin handik pasatzean gure lagun argi eta garbi ikus ahal ditzaten. Baiñan hau

ez da aski: erlojuek xuxen bateratuak izan behar dute, ongi sinkronizatuak. Hortarako trenean bertan tajutuko ditugu: trenak 360 «km»/o. hartu bezin laister, nahi diran neurgailuak, argi-siñaleak eta azterketak oro egin ondoren, gure erlojuen sorta ongi batera jarriko dugu. Trenekook ziur egongo gera (eta egia dugu!) gure larogei eta hemeretzi erlojuak guztiz batera doazela. Gure lagunen ondotik pasatzean, zer ikusiko dute berek? Zer ondorio aterako dute hobe, karkulu guziak egin ondoren? Irakurleak arreta jar beza.

Gure lagunek ez dute deusik ulertuko, eta siñistuta egongo dira erloju mordo bat bateratzen ez dakigula.

Alde batetik hau esango dute: «Zuen erloju sortak, gure aurretik pasatzerakoan, erlojuen arteko tarteei dagozkien gorabeherak ongi karkulatu eta kontuan hartu ondoren beti, gure erlojuak baiño laisterrago ematen ziguten zuen ordua. Ez dugu zalantzarik batere: zuen erlojuak, zuek diozutenez, ongi bateratuak zeuden ezkerro, zuen denbora gurea baiño laisterrago zijoan. Lehenengo erlojutik azkeneraiño zuen erloju-sortak 9,800 segundutako tartea erakutsi du; baiña guk 9,242 segundu neurtu dugu. Zuen erloju-sortak aurreratu egiten bide zuen gure erlojuen arabera.»

Eta geroago hau erantsiko: «Baiña karkuluak behin eta berriz egin ondoren, nahaspillaren kakoa aurkitu dugula uste dugu: ez dituzute erlojuak ongi bateratu; trenaren aurreko erlojuak atzeratuak zijoazen atzekoen arabera, eta alderantziz. Lehenengo erlojua, tren-gidariaren ondokoa hitz batez, gure datoen arabera eskierki agertzen danez, bigarrena baiño pittin bat atzerago zijoan, 0,00572 segunduz zehatz; bigarrena hirugarrena baiño atzeratuxeago, eta abar. Azkena zan aurreratuen, 0,558 segundu horiek hain zuzen. Ez dakizute erloju-sorta bat batera jartzen.»

Nork luke egia? Bai guk trenekook, eta bai lurrekoek! Gure erlojuak, treneko erlojuen sorta alegia, batera zijoazen gure sisteman, ongi bateratu genituen guk; baiña guztiz nahasturik zeuden soegilleen ikus-puntutik. Bateratasuna trenekoen ustez bat da; baiña kanpokoek ez dute gauza bera uste, eta trenekook sinkronizatzen ez dakigula pentsatzeko eskubide osoa dute.

Huntara ezkerro, ba dakit, irakurleren batek, edo gehiagok, hau pentsatu dukete: «Nahastu egin zera; orain dala zenbait lerro esan diguzu, geldirik zeuden soegilleen ustez «Porsche»ko erlojuak, edo «Caravelle»koak, atzeratu egiten zutela; eta orain alderantziz diozu trenari buruz. Zertan gera?»

Susmo hori neuk ere izan nuen nere hastapenetan; eta Errelatibitatearen ideiak errazki ulertzen dirala uste badu irakurleak, oker dago. Susmo hori, halere, ez da bidezkoa. Geldirik dauden gure lagunek treneko erloju horietako *bakar bat* segitzen baldin badute, eta berari

buruz azterketak eta karkuluak egiten badituzte, erloju *bakar horrek* atzeratu egiten duela pentsatuko dute, «Porsche»ko eta «Caravelle»ko gure erloju bakarra edo gure zigarroa ikusten zutenean bezelaxe. Baiña erloju sinkronizatuen *sortaren* segida aztertzen badute (beren aurrean, trena igaro ala, agertzen diranak segidan begiratzuz eta banan-banan bakoitzaren orduaren nota hartuz), orduan ordu-segida horrek, ordu-sorta horrek, bateratasunik ez baitago sistema batetik bestera aldatzean, atzeratu ez-baiñan *aurreratatu* egiten duela kaustuko dute. Nola hori? Kakoa hau da, berriz diot: erloju horiek, 99 erlojuak alegia, trenekoen ustez, trenaren sisteman hobe, ongi sinkronizaturik daude: erloju bat begiratzera ala beste bat berdin da. Baiña trenetik atera ezker, kitto: 99 erloju horiek ez dirudite, *ez daude*, ez sinkronizaturik eta ez gutxiagorik ere; eta ez da berdin bat begiratzera ala beste bat. Soegilleak trenetik at baitaude, 99 erloju horiek bateratu gabe ari dirala uste dute; eta arrazoin osoa dute ere! Horregatik erlojuen sortan irakurri ezker, denbora laisterrago iruditzen zaie.

Trena luzeago izan, edo habailla haundiago; eta fenomenua nabarmenago izango litzake.

Hau ez da alegiazko ipuin bitxi bat, eta astronomoek ba dakite.

* * *

Ba du besterik Errelatibitate Bereziak, eta ez arruntagorik. Egon gaitezen beti gure eskala berrian: argiaren habailla, beraz, 300 «m»/segunduan. Euskal Herria ere eskala berri hortan jar dezagun.

Eman ditzagun bi «gertaera», Donostia'ko kaseta batek emanak esate baterako: A) Donostia'n, Jorraillaren 12-ko 14-30 etan, argi-siniale bat; eta, B) Iruñe'n, Jorraillaren 12-ko 14-30 etan, beste argi-siniale bat (11). Nere galdera harrigarria hau da: zer da lehenago: Donostia'n ordu bi t'erdietan emango dan sinialea, ala 14-31 etan Iruñe'n emango dana?

Errotu ote naizen pentsa dezake irakurleak. Egia esateko arrazoin ote duen ez dakit; baiñan ez, dana dala, egin dudan galderarengatik...

Erantzuna hau da: «galdera horrek ez du funtsik». Hau izan behar litzake galdera: «Urliaren sistemari buruz, zer gertatu da lehenago: Donostia'ko sinialea, ala B Iruñe'koa?» Hau bai, hau erantzun

(11) Errelatibitatean, egiazko kondairan bezelaxe, «gertaerak», puntuak beraz, lekua eta denbora batera ematen dira; non eta noiz, beraz: (x, y, z, t): hiru leku-koordinada eta denbora-koordinada bat. «Leku-Denbora»ko puntu horri «event», «événement», «suceso», deitu ohi zaio erderetan; eta «gertaera» beraz euskeraz.

egin diteke; beste galdera absolutu hura ez. Eta bigarren hau berau ere, karkulurik egin gabe, hunela erantzun behar da: «Ez dakit»...

Ezin diteke esan, kontuz, hori beti hala danik. Asmatu dudan *berariaz* hartu dut $c \cdot t < 1$: eskala berrian Iruñe eta Donostia behar bezin urruti daude. Kasu huntan, goiko galderak ez du funtsik; baiña bestetan ba luke (12).

Eman dezagun gure lagunak lurrean gelditu dirala, Txindoki'ko tontorrean esate baterako; eta handik egiten dituztela beren neurketak. Hauen ustez zalantzarik ez legoke: berrilariak arrazoin du, eta Donostia'ko kasetak ere bai: lehendabizi Donostia'ko gertaera gertatu da, eta handik miñutu batera Iruñe'koa. Bi gertaeren arteko tartea ere ziur lekikete zenbat dan: 90 «kilometro».

Baiña gu, Errelatibitatearen berri izan nahi dugun ezkerro, Hondarribi'ko aideportura joango gera, eta han gure «Caravelle» fama-tua hartuko dugu, Donostia'tik Iruñe aldera joateko. Eman dezagun azterkizuna berriz egiten dala, ordu beretan eta leku berberetan. Donostia'koek eta Iruñe'koek ongi bateratu dituzte beren erlojuak, eta xuxen dakite zer egin behar dan: Donostia'tik ordu bi t'erdietan punttun A siñalea bidaliko digute, eta Iruñe'tik miñutu bat geroago B siñalea. Gure «Caravelle»ak 900 «km» orduan egiten ditu bi-daia guzian, beti Iruñe aldera abiaturik.

Txundituta geldituko gera. Karkulu guziak ongi egin ondoren (berriz ere diot karkuluen konturik ez dagoela hemen), Donostia'tik Iruñe'ra 135,680 «km» neurtuko ditugu, eta siñaleei buruz okerrago: Iruñe'ko siñalea Donostia'koa baiño 5 miñ. 43,723 seg. *lehenago* bidali digutela erabakiko dugu ahobatez «Caravelle»ko guziok (13).

Puntu hauetan kontuz ibilli behar da. Ez dut nik esan siñaleen

(12) Kontuz ibilli behar da ondorioak ateratzean. Ohiko kasuetan, gure munduan eta kondairan batez ere, dana bertan dago, oso urbil. Eta lehenago zer dan galdetzeak ba du erantzun erraz bat, danontzako on. Einstein'ek Errelatibitate Berrean frogatu duenez, inbariantea ez da bi gertaeren arteko denbora edo epea (gure adibidearen miñutu hori, esate baterako, $14 \cdot 31 - 14 \cdot 30 = 1$ miñ.); baiña $s^2 = c^2 t^2 - l^2$, «interbalo» deritzana. Gure etsenpluan, eta gure eskala hortan, inbariante hori hau izango litzake: $t = 60$ seg.; $c = 300$ «m»/seg.; $l = 90$ «km» = $= 90\,000$ «m». Beraz: $s^2 = -7776 \cdot 10^6$ «m»². $s^2 < 0$ danean, hain zuzen, bi gertaeren illara edo herronka absolutuki zein dan galdetzea eziña da. Hori gertatzen da gure adibidean. Hori dala-ta, tankera hortako gertaeren artean kausalidaderik ere ez dago: A ezin diteke B-ren iturburu, eta ez alderantziz. Lehenago zer gertatu dan ere ezia erantzuna da.

(13) Aski da Lorentz'en ekuazioak berriz erabiltzea. Ez ditut hemen idatziko. Ondorioak bere buruz atera nahi dituen irakurleak aski du, esate baterako, Landau-Lifchitz'en «Théorie du Champ» hartzea (21 gn.horr.) edo Couderc'en «La relativité» (61 gn.h.). Lorentz'en ekuazioak ez dira batere zaillak, eta liburu askotan atxeman ditezke.

argi-printzak illara hortan *gure begira* iritxi diranik, nahiz hau ere posible izan. Hori ximpleegia litzake: hortarako Einstein bat ez zan behar! Nik besterik diot: «Caravelle»tik ikusirik, B siñalea A baiño lehenago gertatu dala: bidari guziek, tresna eta neurgaillu guzien arabera, karkulatzaile guziek, danok ahobatez lehenagokotzat hartuko dute B gertaera, eta ez A; sistema hortan siñaleen illara horixe baita.

«Caravelle»k 216 «km»/orduan egin ezker (14) neurri guziak ongi burutu ondoren, hau esango luteke bidari guziek: «A eta B siñaleak momentu berean bidali dizkigute Donostia'tik eta Iruñe'tik. Bi euskaldun hiri horien artean, bestalde, 88,182 «km» neurtuko luteke, eta ez 90 «km».

«Caravelle»aren habailla eta bidea aldatu ala, mota guzietako ondorioak izan ditezke.

A eta B gertaeren illara edo segida, beraz, soegilleen araberako da. Donostia'ko berrilariak egia du: Donostia'ko siñalea Iruñe'koa baiño miñutu bat lehenago gertatu da, eta Donostia'tik Iruñe'ra 90 «km» dira. Baiña baita bi «Caravelle»etakoek ere egia dute: A eta B momentu berean gertatu dira kasu batean, eta B siñalea A baiño aisa lehenago bigarreanean. Denek dute arrazoin, nork bere sisteman. Gertaeren segida ($ct < 1$ baldin bada bakarrik, kasu!) berez da erretatiboa.

* * *

Atomoaren maillako mesoi μ , π , eta K, deritzaten partikulek erakutsi dute azken urte hauetan Errelatibitate Berezia egiazkoa dala denborari buruzko bere aurkikunde harrigarrietan. Hiru mesoi mota horietan dago frogaturik partikulen «biziera» edo iraupen erditsua —gure sistematik neurtua— luzeago egiten dala gurekiko partikularen habailla haundiago egin ala. Seirehun metrotan lehertu behar zuten μ mesoiek, esate baterako, baita hamar kilometroz irauten dute. Gaurko egunean fisikalariek ez diote fenomenu huni Errelatibitateak eman dezakean azalpena baizik aurkitzen: alegia, μ mesoia oso azkar datoz gudanantz (ia 300.000 km/seg.), eta beren iraupena edo biziera, mesoiaren sisteman neurtua, berbera eta betikoa egon arren, gurean neurtu ezker (Lurretik neurtu ezker, beraz, eta ez mesoi-elitik) luzeago agertzen da. Mesoiek, hitz batez,

(14) Aski du irakurleak $t - \frac{v}{c^2} x = 0$ egitea; gure etsenpluan $60 = \frac{v}{300^2} \cdot 90000$; $v = 60$ "m"/s., hau da: $v = 216$ "km"/orduan.

beren sistemako 600 metro egiten dituzte, eta $2,2 \cdot 10^{-6}$ segunduz irauten. Baiña mesoiak diran hegazkin azkarretatik aldatzean (gu ez baikoaz berekin batera), mesoiaren denbora nagitua agertzen zaigu guri. Mesoiaren iraupena, hortaz, errelatiboa da, eta guri luzeago iruditzen zaigu.

Mesoiaren ustez, aldiz (mesoiak usterik baldin badute...), lokamutsetan baiño askozaz ere polikiago geu mogitzen gerala irudituko zaie. Geu irudituko gatzazkie perlesiak joak.

Filosofiari buruz aurkikunde hauek ekarri dituzten ondorioak, eta piskanaka ekarriko dituztenak, aipatu beharrik ez dago. Batzuk ez dute hau guzia osotara siñistu nahi. Errelatibitate Berezia argi eta garbi dio: alkarrekiko habailla aldagabea higitzen diran sistemetan, legeak inbarianteak dira, plegu berekoak. Bi sistematan ateratzen diran ondorioak, nahiz ondorio desberdiñak izan itxuraz, balio berekoak dira. Denbora, espazioa eta habailla, bestetik, berezi eziñak dira aurrerakoan. Filosofo zaharren denbora abstrakto hura (eta ez gutxiago Geometria zaharraren espazioa) ezabatua izan da. Siñispenik gotorrenak eta egirik agerienak koloka gelditu dira. Bateratasunaren ideia funditua izan da: «Soegille batzuentzako 't' lipar edo une berbera 'dalakoa, suntsitu egin da: ez dago ezer horrelakorik soegilleak alkarrekiko geldirik ez badaude», dio B. Russell'en (15).

Hau guzia astindu ikaragarria izan zan intelektualen munduan 1905 ezkerotzik. Baiña Einstein ez zan halere hortan gelditu; eta handik hamar urtetara zalaparta haundiago bat egin zuen Errelatibitate Jenerala azalduz, eta Errelatibitate Berezia bera gutxi gora-beherako inguramendu hutsen maillan utziz...

* * *

Gorago esan dudan bezela, Errelatibitate Jenerala zifnez ikaste-ko, oso ahalegin haundia egin behar da. Hastapenetik beretik oso zaila da edozein aldetatik sakonki ulertzea. Ez da Berezian bezela: Jeneralean, Matematikaren eta Fisikaren aldetik gogor ekin behar da hasi aitzin. Ahalegin horiek egitea balio duela iruditzen zait neri; eta fisikalariek txalo ugariak jotzen dituzte Errelatibitate Jeneralen alde; «Eskierki Fisika-teorien artean ederrena da», dio Landau'ek (16); Weyl'en ustez, Einstein'en teoria hauxe da «pentsamendu hutsaren indarraren frogakaririk ederrenetako bat» (17); eta Charon'ek: «Za-

(15) ABC de la Relativité, 59.

(16) Théorie du Champ, 304.

(17) Temps, Espace, Matière, 194.

lantzarik gabe, Naturaleza edo Izadia ulertzen saiatzean, giza-izpirituak sekulan lortu duen arrakastarik ederrena da.» (18).

Baiña, zoritxarrez, funtsezkoa bezin zailla ere da, denen ustez: «Matematikalarien beren artean gutxi dira teoriaren atal guziak oso ki ulertzeko gauza diranak», dio Couderc'ek (19).

Langevin'en ustez, lehendabiziko urteetan hamabiren batek konprenitzen zuten Errelatibitatea. Are hestuago irizten zuen Eddington'ek, fama danez. Halako batean bere lagun batek hau esan omen zion: «Eddington irakasle: zeu zaitugu Errelatibitatea munduan ulertzen duten hiruetatik bat.» Eddington urduri-edo jarri omen zan hori entzunda, eta lagunak ekin omen zion: «Ez duzu zertan lotsaturik, irakasle: apalegia zera.» «Ez, ez —erantzun omen zuen astronomoak— baiña hirugarren hori nor ote dan ez dut garbi ikusten.» Pasadizu hau egia ez bada ere, 1920-eko giroa ongi azaltzen du.

Ikasi egin behar, baiña guttiz ikastea behintzat ezin: ezin asma ere horrelakorik. Bi muturren artetik aintziñatu behar ahal dan bezin aurreraiaño.

Matematikaren alderdia saiakera huntan alde batera utzirik (20), azter ditzagun guk Einstein'en iragarpen hutsak. Irakurlea orain arte harritu baldin bada, orain izutu egingo da; eta hutsunean gelditzen ari dala pentsatuko du.

Joan gaitezen, berriz, Hondarribi'ra (eskala berrian gaude beti: argiak 300 «m»/seg.). Gure «Caravelle»a han dago, eta han hartuko dugu. Gure erlojuak eta lurlean geldituko diranenak bateratu egingo ditugu; eta gu hegazkiñera igo, gure lagunak agurtu, eta ibillaldi luze bat egingo dugu aidean barrena; gero berriz Hondarribi'ra jetxi-ko gera, gure lagunak gure billa heldu diralarik.

Danon erlojuak aideportuan alderatu, eta hura harrigarria: gure erlojuak atzeratuak agertuko dira jeistean. «Caravelle»ko bidari guzien erlojuak atzeratuak!

Hutsen bat itzuri ote zaigun, eta berriz ere abiatu, danon erlojuak ongi bateratu ondoren, itzuli bat egin, jetxi, eta berriz gure erloju guziak lurlean gelditutakoen erlojuen arabera... atzeratuak. Baiñan ez beti segundu edo miñuttu berberak: bidaia bakoitzean, egindako bidaiaren luzera desberdiña baldin bada, edo habailla-sorta diferente eta aldakorretan egiña baldin bada, atzerapen desberdiñak kausituko ditugu.

(18) 15 Leçons, 19 gn.h.

(19) La Relativité, 105.

(20) Puntu hauetaz Landau-Lifchitz'en "Théorie du Champ" dalakoa iruditzen zait sakona eta argia, eta ori gomendatzen diot irakurleari.

Eman dezagun orain «Caravelle» berezi bat hartzen dugula, bi-
daia luzetarako egoki prestatua; eta indar haundiaz orniturik, 1.050
«km»/orduan joateko gauza dala. Urtebete egin dezagun lekugunean,
alde batera eta bestera joenez. Hondarribi'ra etortzean jendea zahar-
tuta aurkituko genuke, eta agure asko hil ere egin zala esango li-
guteke.

Langevin fisikariak arrabots ikaragarria egin zuen orain dala
urte batzuk fenomeno hau azaldu zuenean. Bere etsenplua hau izan
zan: eman dezagun misilo batean abiatzen gerala izarren artetik,
eta urtebetez beti aurreruntz jarraitzen dugula, Lurretik gero eta
urruhago, eta beti 299.625 km/seg., ia-ia beraz argiaren habailla be-
rean (21). Urtebetea pasa ta gero (urtebete hori, noski, geure
erlojuetan neurtuko genuke), tenk-egin, eta atzera berriz: Lurreruntz
berriz, urtebetez habailla berean beti, Lurra ikutu arte nahi dan be-
zela geldituz. Misilotik jetxi, eta zer ikusiko genuke? Langevin'en
erantzuna ezaguna da: Lurrean berrogei urte igaroak zirala. Ate-
ratzean ezagutzen genuen mundua suntsitua litzake guretzako, arras
guri buruz zahartuta: ez gure iritziz, ez: *gure arabera* adierazi nahi
dut, gure neurgailu guzien arabera: bihotz, erloju, edo beste (22).

«Langevin'en Bideazko» (edo Bidari) famatu hunek Europa'n
jarri zuen iskanbilla ez zan txikia izan. Gertakaria siñistu eziña dan
ezkero, sofisma baten aurrean bezela jokatu zan jendea: batetik eta
bestetik Langevin'en Bideazko hau iruzur bat, edo alegiazko ipuin
aldebres bat bederen dala agerrerazten saiatu ziran gehienak. Baiña
Langevin fisikalaria —Fraintzia'n Einstein'en irakasle nagusia, Espa-
ña'n Terradas eta Cabrera, Ingalterra'n Eddington, eta Belgika'n Le-
maître bezela— ez zan oker: Paul Langevin'ek xuxen azaltzen zuen
gauza, fenomenua horrelakoxea da, eta Langevin'en «mirakuillua»
egia hutsa baizik ez da.

Neu ere, aitortzeaz ez naiz lotsatzen, Langevin'en Bidari hunen
akatsa billatzen saiatua naiz ordu askotan. Baiñan akatsik ez dago:
misilo batean sartu, eta *joan-da-etorria* egin ezkero, gure denbora zi-
ñez nagiago igaroko litzake misiloko guzientzako.

Eta huntan ez dago errelatibotasunik batere. Errelatibitate Be-

(21) Alegiazko gure etsenpluan neurritara jartzeko, gure «Caravelle»ak 299,625
“m”/seg. hartu beharko luke, hau da, 1,078,65 “km”/orduan.

(22) Langevin'en misiloak bira nola eta zenbat denboraz egiten duen, itzultzen
hasteko alegia, eta berdin abiatzeko eta gelditzeko mifutuak, ongi eta zehatz eza-
gutzeak ba luke bere inportantzia; baiña bira, abialdia eta tenkaldia egiten dituen
denboran ere, misiloko denbora polikiago doa Lurrekoa baiño. Horiak, beraz, laister
egiten baldin badira batez ere, Langevin'ek ematen zuen 40 urtetako kopurua ez da
sakonki aldatzen.

rezian bai: mogimenduak habailla aldagabe batean egiten diranean, azelerazioen aztarnarik ez dagoen beraz, «galileotar» sistemetan, errelatibotasun hori guzizkoa da. Esan beharrik ez dagoela iruditzen zait errelatibotasun hau eta ustezkotasuna, subjektibismoa, Kant'en erako irizpide bat esate baterako, ez dirala inñundik ere antzekoak. Hemen ez dago «uste»rik ezertan. Errelatibotasuna *sistemaren mogimenduan* datza, eta ez sendimenduan edo iritzietan. Einstein Kant'en kontra mintzatu zan behin eta berriz; Errelatibitatearen fenomenuak ez baitira ustezkoak, gauzakkoak baizik. Gauzatasunak egiten ditu errelatibo, ez gure «usteak» edo «ez usteak».

Lehenengo azalpide-sortako etsenpluetan, soegilleek eta guk guza bera ikusten genuen hein batean. A eta B siñaleen azalpidean bertan, ez zegoen absoluturik ezer: «Caravelle»ak tarte desberdiñak topatzen zituen Iruñe'tik Donostia'raiño; baiña, Lurretik ikusirik, bestaldera ere pentsa zitekean «Caravelle»ak egindako bideari buruz: alegia, laburrago zala «Caravelle»koek uste zutena baiño. Baiña «Caravelle»aren ibilkizuna ez zegoen zeruan nabarmen markaturik, eta horrengatik nahas gindezkean. Lurrari buruzko aztertzaileek habailla aldagaberen sorta batean neurtuko balute Donostia'tik Iruñe'raiño-ko tartea, tarte hori zenbat dan jakiterik ez legoke. Neurri guziak desberdiñak lirake, eta danak bai ontzat eta bai txartzat hartzeko modukoak.

Errelatibitate Jeneralean ez dago horrelakorik. Egindako bidaiaren arabera aldatzen da neurtutako denbora, hau bai. Baiña ez dago ordaintasunik (23).

Langevin'en misiloak (joan-da-etorrian ari), eta joan-da-etorri egiten duen «Caravelle»ak, *joan-da-etorri* egiten dutelako hain zuzen, gelditu eta abiatu egiten dutelako, zuzenetik baztertzen diralako, habailla batetik bestera aldatzen diralako (bestela nola bihur atzera?), azelerazioen menpean daude; eta, beraz, Errelatibitate Jeneralaren arabera gobernatzen dira. Lurrean igarotzen dan denbora eta misiloan igarotzen dan denbora, *ez dira* berdiñak, ez dira ordaingarri edo alkarraren trukagarri. Lurreko jendea egiazki zahartu da guri buruz. Bidaiari guk ez dugu ezer bitxirik nabaitu —ezpada habailla aldatze bakoitzean eta biretan goragale azkar bat— eta Lurrekoek ezertxo ere ez, ezta goragale-aldi horiek ere, habailla aldagabean higitu baitira Lurrarekin batera. Gu berriz puntu berera goazen ezker (eta, hortaz, gure sistema galileotarra ez dan ezker, habailla alda-

(23) Err. Bereziak "inbarianteak" aipatzen zituen puntuan, Err. Jeneralak lege edo kopuru "kobarianteak" aipatzen ditu. Fenomenuen ordaintasuna, alkarrekiko berdin agertzea alegia, Err. Jeneralean ez dago. Inbariantzia eta kobariantzia saskonki ulertzeko, tentsoreen karkulua ikasi beharra dago.

gabe berbera bidaia guzian barrena eramán ez dugulako, eta atzera bihurtu geralako), gure denbora, misiloan dagoen denbora, *egiazki* nagitu da: atomoen bidez, arnasaren bidez edo nahi dan eran neurturik, guretzako luzeago eta oparoago izan da epea Lurrekoentzako baiño: gure orduak *luzeagoak* izan dira misiloan Lurrean baiño. Jeistean gu *gazteago gera*, hitz batez, gure lagunak baiño. Hegazkiñean ibiltzeak «gaztetu» egin gaitu lurrekoen arabera. Ez urterik kenduz, ez erlojuak atzeraka egiñez, hau ez; baiña bai urteak polikiago erantsiz. Gure denbora, guri buruz, berdiña izanagatik ere, Lurrekoen arabera nagiagoa izan da. Gagarin bera ere, zalantzarik ez, gazteago da gaur bere herrikideek uste dutena baiño; baiña adin-liferentzia hori guztiz txikia da, Gagarine'k egin zituen habaillak oso txikiak baitira argiaren habaillaren arabera.

Zail da hau guzia xuxen eta errazki konpreniarazten. Batez ere kakoa zertan datzan ikustea ez da erraza, eziña da Matematikaren funtsa ongi ulertu gabe. Baiña, siñistuta egon, Langevin'en Bidariaren azalpidea xuxena da. Huna hemen, ekuazioak alde batera utzita, Landau'ek ematen duen azalpena: «Bi erloju hartzen baditugu orain gogoan, bata beti toki batean finkatua, eta bestea, inguru bat egin ondoren, finkaturik gelditu danaren aldera iritxi berria, erloju bidaria atzeratuta agertuko da (mogitu gabe egon dan erlojuaren arabera). Bestalderako azalpena, alegia erlojuen papera edo jokabidea alderantziz ere har ditekeala, ez da zuzena; zeren-eta bidaia hetsia osatu duen erlojua ez baita traslazio uniformeán higitu edo aldatu. Beraz bere sistema ez da inertziakoa. Izadiaren legeak inertzia-sistemetan xoilki dira berdiñak eta inbarianteak. Hortaz, mogitu gabe geratu dan erlojuaren sistema (inertziakoa) eta erloju bidaiarena (ez galileotarra, ez inertziakoa) desberdiñak dira sustraiez; eta mogitu gabe geratu dan erlojuak ere bestearekiko atzeratu egin behar duela erakutsi nahi lukean sasi-adierazpidea, ez da bidezkoa, faltsua da.» (24).

Ia hitz berberaz azaltzen'du fenomenua Weyl'ek ekuazioak idatzi ondoren: «Eman ditzagun bi anaia bizki, «A» puntuan alkargandik berezten ari. Bata bertan geldituko da, sorterrian (alegia, ez da bere sisteman mogituko); eta bestea bidaietan barrena abiatuko da, bere sorterri horrekiko argiaren habaillaren maillako habaillak hartuz; anaia bidari hau sorterrira bihurtzeán, gelditu zan bere anaia baiño nabarmenki gazteago izango da (25).

Ausnar beza lasai, beraz, irakurleak Langevin'en fenomenu harri-

(24) Théorie du Champ, 18.

(25) Temps, Espace, Matière, 163.

garri eta ziur hau. Bestela interbalo jeneralen arazoa ikas beza, eta Riemann'en geometria, eta abar; eta azkenean etsi egin beharko du bestek bezela: Langevin'ek egia zuen.

* * *

Orain azalduko dudan fenomenua Matematikaren aldetik Langevin'en Bideazkoaren antzekoa izan arren, zehatz jarriko dut segidan; desberdiña ematen baitu, eta ez Langevin'ena baiño ulergarriago.

Jar gaitezen betiko eskalan: $1 \text{ «m»} = 1.000 \text{ kilometro}$. Eman dezagun orain Donostia'tik Bilbo'ra joatea erabaki dugula. Eginkizuna hau izango dugu: nahi dugun bidetik, nahi ditugun bihurguneak eginda, nahi dugun eran: Eibar'tik pasa gaitezke, edo Gazteiz'tik edo Paris'tik: hau berdin da «rally» huntan. Baldintza bakarra jarri zaigu: lau ordutan Bilbo'n. Zein lau ordu, dana dala? Mogitzen hasi ezker dagoeneko ez baikera denboraren «zintzotasunaz» oso ahanzkor, Lurreko erlojuen ordua hartuko dugu erabakitzailetzat. Donostia'ko eta Bilbo'ko erlojuak guztiz bateratuak jarriko ditugu aurretik; eta geuk ere nahi diran kronometroak hartuko ditugu gurekin, abiatu aurretik osoki sinkronizatuak.

Eman ditzagun hiru talde goizeko bederatzietan ateraiak. Lehenengo talde batek auto bat hartuko du, berebil arrunt bat, eta Zarauz'tik eta Eibar'tik joango da, ia-ia beraz zuzen-zuzen. Bigarren taldea, berriz, helikoptero bat hartu, eta Gazteiz'tik eta Orduña'tik joango da. Eta hirugarrena, azkenik, «Caravelle» batean sartu, eta Paris'tik, Zürich'tik eta Salduba'tik, Bilbo'ra. Eman dezagun, dana dala, esan bezelaxe hiru taldeak guztiz batera agertu dirala Sondika'ko aireportuan. Sondikar guziek ikusi dituzte batera heltzen. Erloju nagusian ordua begiratuko dugu: arratsaldeko ordu bata jotzen ari, ezta segundu bat beranduago iñor.

Nor bere tramankulutik irtenda, gurekin eramandako erlojuak aztertuko ditugu alkarrekin; eta berriz ere harrিতuta gelditu beharko: gu bidarion erloju guziak lurrekoei buruz atzeratuak aurkituko ditugu, eta itxura danez ordu nahasitan. Gure erlojuen bidez behintzat ezin ordua jakin! Berebillean etorritakoen erlojuak pittin bat atzeratu du bakarrik, oso gutxi, segundu erdi bat eman dezagun: liferentzia neurgarri litzake; helikopteroan etorritakoen erlojuak atzeratuago: zenbait miñutu eman dezagun (26); eta «Caravelle»an etorritakoenak askoz gehiago: miñutu mordo bat.

Ondorioa hau litzake, eta hau da: laisterrago joan taldea, eta

(26) Bidaiaren gorabehera guziak arras ongi ezagutu gabe ezin esan.

lehenago iritxi... bere erlojuak siñistu ezkerok! Baiñan ez lurreko erlojuen arabera: hain zuzen ere, bideak hautatzean danak batera iritx ditezzen izan dira aztertuak; eta hala izan da: Sondika'ko erlojuetan danak batera heldu dira. Bidaia eta momentu bakoitzeko habailla eta norakoa, hain zuzen, hortaraxe karkulatu eta erabaki dira Donostia'n Errelatibitatearen ongi ezagutzen duten fisikalariekin bidez.

Nola egin genezake, zein tramankulutan sartu beharko genuke, *geure* erlojuak eta kanpokoek guztiz bateraturik iraun dezaten? Errelatibitatearen erantzuna hitsa da: inoiz ere ez. Mogitu ezkerok kitto!

Zer egin genezake, ordea, kanpoko edo lurreko lau ordu horiek beti errespetaturik, gure erlojuetan neurtutako denbora ahalik haundiena izan dedin? Hau bai, hau erantzun egin ditekete. Bidaia osoan Denbora-Espazioan zehar «geodesika» batetik joanda (praktikan ezin, abiatu eta gelditu beharrak dirala bide). Lurra, esate baterako, eguzkiaren ingurutik, eta ia-ia habailla aldagabe, «geodesika» batetik doa. Beste edozein erataria, beste edozein bidetatik joan ezkerok *Lurrera azkenean bihurtzeko*, gure erlojuak gehiago atzeratuko luke.

Donostia'tik Bilbo'rako gure bidaiara itzulita, aski litzake, esate baterako, geldiune bat Eibar'en egitea, gure erlojuak atzerago joan-arazteko.

Lurrekoen lau ordu horiek gure gaiñetik «kentzeko», beraz, ba genuke bide ziur bat: aski genuke «Caravelle» bat hartu (gure alegiazko eskalan), eta inguru haundi bat egin 1.079,999 «km»/orduan; ia-ia beraz argiaren habaillan eta joan-da-etorrian. Konturatu orduko, gure erlojuetan segundu bat pasa baiño lehenago, hitz bat alkarri esateko aukerarik izan gabe... Sondika'ko erlojuak gure aurrean agertuko lizake. Aideportuko erlojuen ordu bata irakurriko genuke eta jendea bazkaltzen ari; baiña gure erlojuetan bederatzia eta segundu pare bat besterik ez!

Are gehiago: lau ordutako bidaia bat prestatu beharrean bi urtetako txango luze bat prestatuko bagenu, Langevin'en Bidariaren fenomenua ikusiko genuke berriz ere: gure habailla argiarenaren oso ondokoa izan ezkerok, gu hegazkiñean gosetu orduko, Sondika'ra jexi, eta... ehun urte, edo berrehun, beranduago aurkituko genuke dana. Aideportua ezagutu ezin; eta zai zeuden gure lagun guztiak, aspal-didanik hillak eta ahaztuak.

* * *

Bigarren maillako adibide hauetan (bai Langevin'enean eta bai gure bidaia hauenean) ezagugarri nabarmen bat dago: mogimendua ez dala «geodesikoa». Einstein'ek frogatu duenez grabitazio sistema bat eta galileotarra ez dan sistema bat oso antzekoak dira funtsez.

Erlojuei buruz eta denborari buruz, batez ere, bi sistema-multzo horietan azter ditezkean fenomenuak ez dira batere liferenteak.

Eman ditzagun bi erloju, guztiz berdiñak eta guztiz bateratuak. Utz dezagun bata Lurrean urtebetez; eta bestea izar astun eta bildu batera eraman dezagun (27). izar astun hortan egondako erlojua Lurrean mogitu gabe dagoena baiño polikiago ibilliko da. Grabitazioak geldiago egiten du denboraren iragana.

Munduan zehar, beraz, denbora ez da puntu guzietan laistertasun berean joaten. Azelerazioa haundia dan puntuetan denbora geldiago igarotzen da txikia dan puntuetan baiño. Azelerazio hori mogimenduren seme ala grabitazioren seme izatea berdin. Eguzkiaren ondoan, edozein izarren ondoan bezelaxe, grabitazioa izartegiko hutsune zabaletan baiño azkarrago izaki, erlojuak atzeratu egiten dira. Izarren arteko bazter hotz, illun eta bakartietan, denbora laisterrago itzurtzen da. Bakardadeak lehenago zahartzen eta hiltzen!

Errelatibitate Berezian denbora eta habaillak lotuta agertu ziran. Err. Jeneralean, berriz, denbora azelerazioarekin (eta materiarekin, beraz) funtsetik beretik guztiz lotuta agertzen zaigu. Hitz batez: denbora abstraktorik ez dago. Bareak harrien gaiñean arrastaka bezela, denbora itsatsi egiten da materiaren gaiñean. Lurraren ikutuan iraxecki egiten da. Ortzeko zabalera hutsak behar ditu arin joateko.

* * *

Egia ote da hau guzia? Ondorio harrigarri hauen alde, Errelatibitate Jeneralak bi frogakari nagusi eman ditzake gaur.

Lehenengo frogakaria argiaren espektroaren aldakuntza izan da. Atomoen argi-frekuentzia mordera aldagabea dan ezkerro, eta denbora, Einstein'ek dionez, izar trinkoetan gure Lurrean baiño nagikiago igarotzen dan ezkerro (grabitazio haundia dutelako), frekuentziek txikiagoak izan behar dute izar horietan gurean baiño. Espektro guzia, hitz batez, onda luzeen aldera aldatua agertuko da; hau da, marra gorrien aldera. Hau ulertzea erraza da: izar horietan segundu batean oszilazio *gutxiago* neurtuko ditugu guk, han bagiña baiño, gure segundua hangoa baiño laburragoa dalako. Argia gorriago agertuko zaigu beraz. Sirio'ren lagunaren argia aztertuz, Errelatibitate Jenerala zuzena dala egiztatu da: espektroen gorritze hori ba dago.

(27) Sirio'ren laguna edo "bizkia" aipatu ohi da adibide bat eman nahiz. Sirio'ren laguna oso izar trinkoa da, bere masa oso loditua du: Sirio'ren laguna "iratxo txuria" deritzan izar bat da, eta oso grabitazio azkarrekoa.

Bigarren frogakaria «Mössbauer-eragiña» deritzana izan da. Zenbait kristalen «gamma»-erraiñuen frekuentzia haundiagoa da goitik behera «erortzean» (grabitazioaren eragiñaren aldera, beraz). Frekuentzien gora-behera hau txit txikia izanik ere, egiztatua izan da, eta Einstein'ek egia duela nabarmen agertu da.

* * *

Zertan dira filosofoen gogoetak denborari buruz? Hau izango da, bukatzeko, oraingo nere azterketa laburra.

Zenbat ezaguera-mailla desberdin izanik ere, noraiño esan ditek Errelatibitatearen aurkikunde hauek Filosofiak alde batera utz ditzakeanik?

Bergson'ek, esate baterako, liburu oso bat idatzi zuen huni buruz (28); eta Einstein'ekin berarekin 1922-an mintzaldi mamitsu eta legorsko bat izan zuen, buruz buru, eta filosofo askoren aurrean. Filosofoa ez naizelako beharbada, Einstein'en erantzuna arras ontzat ematen dut. Bergson'en gogoetak luzaz entzun ondoren, hau erantzun zuen Einstein'ek: «Filosofoen denbora hori, izan, ez da.»

Lehen esan ohi zan, dio Einstein'ek, materia guzia desegin eta izarrak funditu ondoren ere, denbora eta espazioa hor geldituko zizkela, hutsik eta illunpean. Baiña nere ustez, ekingo luke, ez dago ez denborarik eta ez espaziorik. Lekugunea materiaren ekarria da, denbora bezelaxe. Edo, dana da «kanpoa».

Filosofoen illaran, ordea, ez da hori giroa.

Kant'ek, esate baterako, hau zion: «Denbora ez da bere buruz danik ezer; denbora ez da gauzak finkatzen eta mugatzen dituen gauzazko determinazio bat; esan nahi baita, bere buruz dirauenik deus... Denbora ez da ezer gure barne-ulerpidearen era baizik.» (29). Einstein'ek ideia horien kontra hitzegitea ez da batere harriztekoa. Nola birresan liteke horrelakorik 1967-an? Pauli fisikarariak behin esan omen zuen: «Hori filosofia da; beraz, faltsua da.» Hortara iritxi gabe ere, eta bi jakintza-mailla (edo gehiago) daudela ukatzeke, nola onar ditek XX-garren mendean, denborari dagokionez, Einstein'en aurkikundeak oiñarritzat hartzen ez dituen ezer?

Bergson'en iritziak, halere, ez dira oso desberdiñak (Kant'i buruz); eta ni bederen sutan jarri izan nautela ez dut ukatzen. «Ezin ditek (Errelatibitatea) aipa ez gure izkribu desberdiñetan azaldua izan dan

(28) *Durée et Simultanéité, à propos de la théorie d'Einstein.*

(29) *Crit'que de la Raison Pure*, 63.

metafisikaren alde, eta ez kontra ere; gure metafisika horrek irautearen barne-ezaguera baitu... Couderc'en hitzak erabilliz esandut nik: «Einstein'en ondotik filosofoak ezin dezake Einstein aurretik bezela pentsa.» (30). Einstein'en teoriak eta aurkikundeak Bergson'en burutazioen kontra aipa ditezke; eta aipatu behar dago hain zuzen, nere ustez. Zer da bestela Filosofia? Bihozkada bilduma illun bat? Hildo berean, bestela, zergatik ez eutsiko aspaldiko «lau elementoen» teoriari? Ura hidrogeno eta oxigeno dala? «Txatxukeriak», erantzungo dugu Bergson'ekin. Levi-Strauss'en liburuetan agertzen dan pentsakera (mitorik zentzugabeenak esan nahi dut, noski, ez Levi-Strauss'en beraren ideiak) eta Bergson'ena ez dira oso desberdiñak. Zientziari kasorik egin gabe, eta Zientziaren kontra ere, eraiki baditeke Filosofia, zer liferentzia dago Mitologiaren eta Filosofiaren artean? Pauli'k arrazoin luke hortara!

Unamuno'k ere, ezjakintasunaren hildo beretik (ez zait hau behin ere ahaztu), materia batzuk uraren gainean gelditzen dirala azaltzeko, ondoratu gabe alegia, trinkotasun edo dentsidade negatiboa dutela esan zuen ez dakit zein liburutan...

Bergson'ek ere hor nunbait Errelatibitateaz: «Denbora horrek, berriz, Espazioari nahasia, Denbora-Espazioaren laugarren dimentsio, ez du izaterik karkuluetan baizik; hau da, paperaren gainean baizik.» (31). Sorbona'ko irakasle haundi batek berriki horrelako arinkeriak nola esan ahal izan zituen ulertzea, oso zailla iruditzen zait.

Merleau Ponty gogoko dut askotan; baiña denborari buruz eta Einstein'i buruz argitara zuen entsegu laburra (32) negargarria iruditzen zait; eta gorago aipatutakoek hainbat erre ninduela ez dut izkutatu. Einstein'i buruz fisik ulertu ote zuenentz ez dakit.

Denborari buruzko, eta Errelatibitateari buruzko, iritzi horiek guziak, literaturazko sasi-filosofian sartu behar dirala uste dut. Gauza bat dira, nere ustez, Filosofia eta Metafisika, Zientziatik at osatuak bai, baiña Zientziaren aurkikundeak kontutan hartu ondoren osatuak; eta beste bat Zientziari uko egiñez, eta fenomenuak sakonki ezagutu gabe egin ohi dan mini-filosofia. Izadiari buruz ari diralarik, filosofo asko sasi-filosofo baizik ez dira; eta beren iritziak txatxukeria galantak sarritan.

Bertrand Russell'en iritziak, aldiz (Fisika eta Matematika sakonki ezagutzen dituelako hain zuzen, ez filosofo «hutsa» (?) egonik), kon-

(30) La Relativité, 30.

(31) La Pensée et le Mouvant, 37.

(32) Einstein et la Crise de la Raison.

tuan hartzekoak dira: nahiz eta Errelatibitateari buruz ukakorregi izan azkenean, nere uste apalez. Gaston Bachelard'enak ere azter ditezke beharbada.

Filosofia ahobatez bide hortatik abiatu artean, jai dukegu. Teilhard de Chardin'ez hitzegitean joera berbera aurkituko dugu. Ez Zientziatik kanpora ezer ez dagoelako, ez. Baiña Zientziak erakusten dituen fenomenuak, fenomenu hutsen maillan bederen, guztiz kontutan eta guztiz aintzakotzat hartu behar diralako. Hortarako, noski, ongi ezagutu behar dira aurretik. Literatura-Filosofiatik Zientzia-Filosofia pasa behar gorria dago. Denbora-Espazioa ulertzea eziña zaigula esateak, paperean baizik aurki ezin ditekeala, eta abar, eta abar, horrelako jakintza-oiñarrien gaiñeko filosofia bat, eta bere esaleak eta gerizatzaileak koloka uzten ditu, besterik gabe. Hiroshima'ko hilkontza ikaragarria paperetako karkulu alegiazkoen ondorio izan ote zan?

Iñori gaitzi bazaio ere, denbora eta materia loturik agertzen zaizkigu, funtsetik eta sustraietik beretik alkarri iratxekiak. Zergatik? Nola? Ez dakigu. Eta hor aurki dezateke azter-soro emankor bat filosofoek.

Betikotasuna, denbora, bateratasuna: Einstein'en aurkikundeen arabera ulertu behar dira. Eta bestela adieraziko dan guzia ez da deus.

Zer da denbora? Zergatik geldiarazten du grabitazioko kanpoak? Zergatik dago geometria ere horri hertsiki loturik? Horra hor, nere ustez, egiazko galderak. Horren abstrakto eta izpirituaren erakoa dirudiena, nola izan diteke funtsean horren gaikoia, horren materia-koia?

Ez dakigu. Galderak gotorrak dira; gure erantzunak ahulak. Ezkutapena hor dago, zindo, gudan eta gure inguruan Zientziak sako-nago eta harrigarriago egin du.

Einstein'ek, egiazki argi egin ondoren, eta argitu egin duelako hain zuzen, beltzago eta lodiago egin du gure inguruko illunpea. Denboraren ulertu-eziña bildurgarriago da sekulan baiño.

Tx. LARRESORO.

Oñatiko Euskera

Itzaldi au Akademiaren urrezko ezteien jaialdietan Oñatin egiteko prestatu zan. Zoritxarrez gauzak ez ziran uste bezala gertatu, eta jaialdi aiek ez dira Oñatin egin. Itzaldia ere eman gabe gelditu da. Bijoa, orduko partez, EGAN-en. FHV letrekin Mitxelenaren *Fonética Histórica Vasca* aipatzen da.

Atrebentzia andia nerea. Zer da ta, oñatiar ez naizela, zuei, oñatiarroi, Oñatiko euskeraren gaiñean itz egitera etorri! Barka zadazute, otoi.

Ondo dakizuten bezela, Euskal Akademiaren urrezko eztaiak ari gera ospatzen. Eta Euskal Akademia ori, ementxe, Oñatin, sortu zan, orain dala berrogeita amar urte. Orregatik gauza bidezkoa zan emen Oñatin zerbait egitea, gertaera ori gogoratzeko. Eta bestelako jai eta itzaldien artean uste det ondo etorriko dala Oñatiko euskeraren gaiñean ez estudio sakon bat, baiña azterketa motx bat edo begirada arin bat emen egitea. Izan ere, Oñatiko euskerak ba du bere berezitasuna. Ba ditu bere doai eta alde onak, gutxi ezagunak bearbada.

Gaiñera, nik emen esango dedan guztia, edo geiena, iñori zor diot. Aita Kandido Izagirrek argitara gabe utzitako lan bati, alegia. Aita au igaz il zan Arantzazun, minbiziak jota. Urretxuko semea zan. Askotan ikusiko zenduten emen Oñatin, atzera eta aurrera, bere brebiario zaharra eskuan zuela. Gizon ixilla eta umilla zan. Biotz onekoa. Urte asko egin zituen Arantzazun eta ez alperrik. Ez zuen zarata andirik aterako. Ixil ixillik lan egitea gustatzen zitzaion. Igan-de arratsaldeetan baserrietara joango zan: aitona zaharren bat edo amona zaharren bat bizi zan tokira. Eurekin itz egin, eurengandik ikasi, galderak egin, jasotako argitasunak paperean apuntatu, eta orre-

laxe bildu zituen ainbeste itz, esaera, berri eta argitasun jakingarriak. Bere apaiz lanak egitera auzoetara edo inguruko errietara joan bear izaten zuenean ere, berdin egiten zuen: bere euskal jakin gurea asezteko aprobeztatzen zituen ostera oiek. Orrela aritu izan zan amabost urte luzetan. Iztegi bat utzi digu, naiko ugaria eta oso zeatza, Oñati eta Oñati-inguruko errietan jasotako itz, esaera eta abarrekin osatua. Iztegi ori neronek daukat orain Arantzazun. Lenbailen argitaratu nai genduke. Iturri ortatik artuak izango dira, ba, nik emen esango ditudan gauza asko eta asko. Ez danak, bearbada. Neronek ere urte asko egin ditut Arantzazun eta beti izan det zaletasun pixka bat bertako euskal jendeakin mintzatzeko. Batez ere artu eman andia izan nuen Gesaltzako Grazianorekin bere bertso, ipui, esaera eta abar argitaratzen ibilli nintzanean.

Txar-konplejua

Nik uste det oñatiarrak ba dutela alako konpleju bat. Euren euskera txarra dala buruan sartua daukate. Zenbat aldiz entzun dedan onako au edo onen antzeko zerbait: «Guk euskeraz be ez dakigu. Gure euskera txarra da. Erdia erderaz egiten degu»... Arrituta gelditzen naiz orrelako gauzak entzutean. Alde batetik parregurea, eta bestetik negar gurea ematen dit. Goizetik gabera arte euskeraz baik egiten ez dutenak, besterik ez dakitenak bearbada, euskera mardul eta giartsua dakitenak, beren barruko gogoa oso euskaldunki eta jator agertzen dakitenak, eta ori esan... Zuek euskeraz ez badakizute, zeñek daki, ba? (esaten det nere arterako). Maisutzat jotzen ditugulako joaten gera eurengana —ikastera, noski—, eta eurak euskerarik ez dakitelakoan.

Baiña gauzak ala dira. Txar-konpleju ori dagoela, ezin uka. Purismuak gure erriari, erri euskaldunari, egin dizkion kalteak esan ditekenez baiña andiagoak dira. Baiña purismuaz gaiñera, beste nunbaitetik ere ba dator, bearbada, oñatiarren konpleju ori.

Fonetikak alako zarpail-itxura edo itxusi antza ematen dio Oñatiko euskerari. «Gure izkundiak xi/xau asko dauko» esaten dute oñatiarrak eurak. X-ekin idazten degun soiñu ori erruz sartua dago Oñatiko euskeran. Goitik beera dana jo eta bete duela esan genezake. Galsoro bat belar txarrak edo gorriñak ondatzeko eta itotzeko zorian uzten duten bezela. Bai verbuan eta bai bestelako itzetan ere ugari ageri da zorioneko «x» ori: «egixa», «aundixa», «balixo», «ekarri xao», t.a. Fenomenu au naiko berria da, jakintsuak diotenez. (FHV 109.) Zabaleta apaizak «Oñate» izeneko errebista batean egin zuen lan bat Oñatiko euskeraren gainean eta bertan erakusten du nola sartu dan x ori Oñatiko euskal verbuan eta nola sarrera ori naiko

berria dan. Orain «xao» esaten dana, lehen (eta ez ain aspaldi) «dosta» esaten zan; «xagun» = lehen dotsagun; «xaue» = lehen dotsai; «xaugu» = lehen dotsagu.

Dana dala, fonetika kanpoko itxura baizik ez da, eta ori gora behera Oñatiko euskerak barruko mamia jatorra eta bikaiña euki dezake, eta benetan daukala uste det nik.

Beste arrazoi bat ere ba da, nere ustez, txar konpleju ori esplikatzeko. «Euskera ona, Tolosa aldekoa. Kiputz-aldekoa.» Lelo au ere maiz entzuten da. Sermoi, itzaldi eta liburuetarako beti euskera ori erabiltzen da. Eta hori eskatzen du jendeak ere. Emen Oñatin ere bai. Ango euskera apain eta dotoretzat jotzen da. Bertsolariek ere ura maite dute. Ni asko ibillia naiz Grazianori, Txarraskori eta abar ipuiñak eta beste olako gauzak jasotzen, eta beti nabaitu det ori: kiputz-aldeko euskerara dutela joera.

Literario-euskera eta beste euskera-muetak

Joera orren kontra nik ez det ezer. Nik ba dakit izkuntza guztiak batasun bat egin bearrean gertatzen direla: literatura gauzetarako batasun bat egin bearrean, alegia. Ain zuzen ere, egun auetantxe orretarako biltzen da euskal Akademia Arantzazun: literario euskeraren batasuna nola egin diteken estudiatzeko.

Baiña orrek ez du esan nai —eta aditu au ondo!— idazteko edo itzaldiak egiteko erabiltzen ez den euskera-mueta, bestea baiña txarra denik.

Danok euskera-modu bat artzea bearrezkoa da, eta bearrezkoa dalako, eta izkuntzaren biziak eta osasunak ala eskatzen duelako, egiten degu ori; baiña orrek ez du esan nai beste euskera-muetak ura bezain on, jator eta egokiak ez diranik.

Oiñezkoak kamioetan ezker aldetik ala eskubi aldetik ibilli bear ote dute? Berez berdin da. Baiña beti esku batetik ibilli ditezela bearrezkoa da, eta orduan legeak zera erabaki du: ezkerretik ibilli ditezela. Emen ere zerbait antzeko gertatzen da. Ofizial gauzetarako, itzaldi, liburu eta orrelako zereginetarako izkera-mueta berdin eta bakarra bear da, eta orretarako bat aukeratzen degu. Baiña ez degu iñolaz ere pentsatu bear beste euskera-muetak, autatu ez diranak, txarrak edo gutxiestekoak diranik.

Euskaltzaindiak —euskal Akademiak— nai du euskera-mueta guztiak estimatuak eta aintzat artuak izan ditezzen. Nai du guztiak aztertu eta jaso ditezela. Oraindik denbora gutxi dala, Euskaltzaindiaren laguntzarekin argitaratu zan «Lexicón del euskera dialectal de Eibar», Toribio Etxebarriak egindako lana. An ageri da nolako euskera aberatsa, jatorra eta ederra dan Eibarkoa. Eta Aita Izagirrek

Oñatiko euskerari buruz egin duen azterketa ere argitaratu nai genduke. Euskaltzaindiak nai du, ba, alde guztietako euskera-moduak jaso ditezela, aztertu ditezela: danen legeak, itzak, esaerak eta abar ezagutu ditezela.

Orain beste kontu bat da euskera literario bat eta bakarra ere bear degula, eta ortara eltzeko pausoak eman bear dirala. Baiña zenbat eta obeto ezagutzen eta jasotzen diran euskera-mueta guztiak, orduan eta bide eta gai geiago izango dugu guztion euskera ortara eltzeko eta euskera literario ori izerdi berriz bizkortzeko.

Batasunaren kezka eta beste euskera-mueta guztien estimazioa ez daude ba bata bestearen aurka.

Oñatik mugakide dituen erri eta izkerak

Eta gauza auek sarrera-gisa esan ondoren, sar gaitezen onezkero gure gai autatuan: Oñatiko euskera nolakoa dan. Jakiña, itzaldi labur batean ezin degu gai au geiegi sakondu. Puntu nagusi batzuk ikutuko ditugu eta gero ejenplu batzuk eman: emengo euskeran diran berezitasun, pitxi, itz eta esaera jator batzuk aipatuaz ta abar. Gaia bere luzera ta zabalera osoan azaldu gabe, ezin diteke ta.

Baiña lehenik gogora dezagun Oñatiko lurra nun dagoen kokatuta, zer nolako erri eta izkuntzak dauzkan bere ingurumarian: orrek argitasun andia eman dezaiguke. Gipuzkoako probintziaren azken bazterra da Oñati, egoaldeko muga. Elgeako mendi-lerroak gaindituz, Arabako erri kokkor batzuk ditu mugakide: Elgea, Ozaeta, Aspuru, Narbaxa, Arriola, Gordoa, Galarreta... eta pixka bat arutzago Salbaterra dago, beiñolako Agurain zaharra. Orain erri auek danak erdalduak dira, baiña garai batean euskaldun izan zirala badakigu. Zer moduzko euskera egiten zan Arabako parte ortan? Ez da erraz jakitea. Beti esan izan da Arabako euskera bizkaitarra zala, bizkaitar dialektuaren atal bat, alegia. Orain, berriz, Mitxelena jaunak bere «Fonética Histórica Vasca»-n dialektu berezia bezela jartzen du Arabakoa. Bizkaiko euskal dialektuarekin antz aundia zeukana, noski, baiña era berean bere diferentziak eta doai bereziak ere bazeuzkan: egoaldeko euskalkia, «dialecto vasco meridional» deitzen du Mitxelenak Arabako euskera (FHV 42).

Oñatik beti izan du ar eman estua Arabarekin. Gebarako kondeak denbora askoan izan ziran Oñatiko lurraren jabe. Euskera kontuan ere bearbada emen orain egiten dan euskera modua eta beiñola Araban egiten zana, senide urbillak ziran. Ustekizun au sendotzeko proba bat baiño geiago aipa diteke (erabateko probak ez dira, noski, baina susmo oni alako egiantza edo itxura ematen diotenak).

Oñatiko euskeran ba dira itz berezi batzuk eta gaur eguneon ere itz oietako asko eta asko Arabako erderan esaten dira.

Ona emen adibide edo ejenplu batzuk. Oñatiko euskeran «belauntesia» esaten da (dakizutenez, itxituretan egoten diran pasalekuak dira belauntesiak): arabarrak gauza bera esateko «bolantés» edo «balontés» esaten dute beren erderan. «Buxo/buxúa» da gari alea, bere gaiñeko azal da guzti dagoenean. Arabarrak, gauza bera esateko, «bujó» «el bujó» esaten dute. Oñatin ba da beste itz bat berezia: «zurgu» = límite, lindero. Eta Araban ezaguna da «bastezurco» = zanja que sirve de límite entre heredades (euskerazko bazter-zurgutik artua, noski). Lastozko lokarriari «dentzeju» edo «lentzeju» deitzen zaio emen Oñati aldean; eta Araban gauza bera «vencejo» deitzen diote (ez Araban bakarrik; Nafarroan ere ezaguna da itz au). Eta or dago beste itz bat: «barga». Gure baserritarrek mendi baten aldapari «barga» deitzen diote: *cuesta*, *vertiente*, *cuenca* edo orrelako zerbait esan nai du. Oraindik egun asko ez dala, Beillotsaako Claudiori entzun nion esaten: «Barga orretako ur danak onaxe datoz.» Ba itz au, adierazpen berdin berdiñarekin erabiltzen dute mendiz beste aldeko arabarrak ere. Eta berdin «madura», «leku maduria». Erreka-ondoko lur onari deitzen zaio «madura». Arabako Salbaterran oraindak ala deitzen zaio auzo bati: erreka ondoan eta toki zelaiean dagoen auzo bati: *la Madura*. Oraindak lengo illean osterata bat egin nuen Gordoara eta itz auek an ezagunak dirala laister jabetu nintzan.

Ba dakizute Oñatik Unibersidade ospetsu bat izan zuela. Unibersidade orretan, XVIII gn. mendean, jesuita bat egon zan irakasle: Aita Bernardo Recio. Erdalduna zan, Valladolid aldekoa, baiña euskeraz ikasi zuen eta inguruko erri txikietan euskeraz mixioak ematen ibilli zan. Ba dakigu (berak idatzi zuelako) ura mixioak ematen ibillitako erri koxkor batzuen izenak: Urrejola, Araoz, Narbaja, Ozaeta, Aitzpuru. Jakiña, azkeneko auek orain erdaldunak dira, baiña orduan ez, ikusten danez. Aien euskera-modua eta oñatiarrena nik uste det oso antzekoak, elkarren antzekoak izango zirala.

Oñatik ego-aldera Arabakin egiten du ba muga. Sarkaldera, berriz, Leinzko baillararekin (Eskoriatza, Aretxabaleta eta Mondragoierekin). Alde ontako euskera eta Oñatiko guztiz dira antzekoak, baiña ez berdiñak. Bakoitzak ba ditu bere berezitasunak. «Ori leiztarikerixa da», esango dizute aguro oñatiarrak, gauza bat angó erara esaten badezu.

Iparraldera, berriz, Oñatik Bergarakin du muga. Emengo izketa ere naiko antzekoa da Oñatikoakin, baiña ez berdiña. Bergarekoak ere ba ditu bere berezitasunak.

Eta azkenik, sortaldera, eguzkialdera, Legazpiakin eta Zegamakin

egiten du muga Oñatik. Emen bai dagoela leize aundia eta alde ikaragarria! Legazpia eta Zegama aldeko euskera giputza da erabat. Oñati eta Legazpia: ain kilometro gutxiko tartea eta euskeran ain alde aundia egotea, siñistu ere ezin diteken gauza da. Eta aldaketa au ez da egiten poliki poliki, gutxika gutxika, bat batean baizik.

Gauzak ala dira. Eta oso aspalditik datozen gauzak, gaiñera. Deba ibaiaren inguruko errien euskera, bizkaitarra bezela klasifikatu zuen Bonaparte Prinzipeak. Bizkaiko euskerarekin antz geiago duelako, noski (Arabakoak ere, esan degunez, Bizkaikoarekin izan bear zuen antzik geiena, naiz ta berezia izan). Legazpia, Zegama ta alde oietakoari «kiputza» deitzen diote oñatiarrak. Kiputza, au da, gipuzkoar dialektua.

Gauza auek oso dira ezagunak eta nabariak. Ez dago ba oietaz luze itz egin bearrik.

Eta (lehen ere esan degu) auxe da emen oargarri eta gogoan eukitzekoa: gipuzkoarraren eta bizkaitarraren arteko mugak oso garbi eta zeatz daudela. Oso errez dala esatea: Emen asten da bata, eta or bukatzen da bestea. Beste dialektuetan mugak ez daude ain garbi; aldaketak ez dira izaten ain aundiak eta bat batekoak. Orregatik zion G. Lacombe jaunak euskeraz, gauzak ondo begiratu ezker, bi dialektu edo euskalki bakar bakarrik daudela: bizkaitarra alde batetik, eta gaiñetiko guztiak bestetik. Izan ere mugak oso dira nabariak eta garbi garbiak; eta alde ikaragarria dago mugaz alde batera eta bestera. Beste euskalkien artean ez da orrelakorik somatzen.

Oñatiko euskera, bada, bizkaitar deritzaion dialektuaren barruan sartzen dute linguistak. Baiña bizkaitar dialektua ere ez da toki dantetan berdiña. «Vizcaíno oriental» esaten zaion klasekoa da Oñatiko, baiña atal orren barruan ere oraindik bere berezitasunak ditu.

Ikus ditzagun ba zer moduzkoak diran berezitasun auek.

Oñatiko euskeraren berezitasun batzuk

Aurrenik, nik esango nuke alako zahar-itxura somatzen zaiola emengo euskerari. Ba dakizute izkuntza bizi guztiak ba dutela alako lege edo joera itsu bat, eta lege orrek eskatuta, etengabe ari dira aldatuz, kanbiatuz. Euskeran ere, beste izkuntzetan bezela, lege nagusi ori nabari da. Baiña aldaketa auek azkarrago gertatzen dira euskera mueta batzuetan: aldaketak aguroago eta aundiagoak egiten dira, alegia. Beste toki batzuetan, berriz, astiroago eta nekezago. Eta jakiña, toki auetako euskerak (gutxiago, astiroago eta nekezago aldatzen dalako), lengo euskera zaharra nolakoa ote zan jakiteko, geiagoko balio du. Oñatiko euskeran, bada, astiroago edo gutxiago egin dira aldaketak, gauza batzuetan beintzat.

Jarri dezagun ejenplu bat edo beste. Euskeran ba da lege jakin bat bokalen arteko «n» galtzen uzteko. Garai batean «n» hori esaten zan, eta orain ere kasu batzuetan esaten da, baiña galduaz doa. Jakiña, fenomenu auk ez dira egiten egun batetik bestera, poliki poliki eta gizaldi askoren epean baizik. Zestona eta Arrona, Zestua eta Arrua biurtu dira (bitarteko «n» jausi edo galdu dalako). Galdakano = Galdakoa, Lazkano = Lazkao. Arrano = águila, gavilán, «arrai» biurtu da. Campana = kanpaia. Corona = koroia. Cate-na = katea. Anate = aate (pato).

Cristiano, bada, dakizuten bezela, kristau esaten da gaur emen. Baiña ba da Oñatin eskuz idatzitako liburu bat XVIII gn. mendean Oñatiko euskeran egiña (Olabarrietako Arrazola etxean dago), eta an beti beti «kristauna» irakurtzen da. Seguru asko Oñatin orduan alaxe esaten zan. Ordurako «n» hori Gipuzkoako euskerak galdua zeukan, emengoak ez. Bizkaiko zenbait lekutan oraintxe ere «kristiñau» esaten da.

Asieran aipatu dizuet Aita Izagirrek Oñatiko euskeraren gaiñean bildurik dauzkan gaiak. An ba da beste ejenplu bat esaten ari naizen «n» orri buruz. «Eskibraun/eskibrauna» = escribano, jaso ahal izan du berak Arantzazuko emakume zahar batzuen artean. Geienetan gaur eskribaua esaten da (jatorrizko «n» galdu da or ere), baiña emen eboluzio ori zearo egin gabe dagoela ematen du, kasu ortan beintzat.

Oñatiko euskerak ba du beste berezitasun bat oso nabaria: bokal bikoitzak edo luzeak erabiltzeko joera. Lokatzaa = barro. Gesaltzaa, Lizartzaa, Beillotsaa, Kutulatzaa, laarregi, oostu, ooldui, óolua, orratz. Mitxelena jaunak bere Fonética Histórica Vasca-n dionez, antziñatasun seiñalea da au: «Estas hablas vizcaínas continúan en este punto un estado de cosas más antiguo que todas las demás variedades de la lengua» (FHV 113).

Beste adibide bat. Euskerak ba ditu «a» letrakín bukatzen diran itzak. Esan nai dut, itz oietan, bukaerako «a» ori ez da artikulua, itzaren zatia baizik. Baiña Gipuzkoan gaur egunean «a» hori artikulua balitz bezela tratatzen dute, eta erreki kentzen dute. Ala esango dizute: «gauz bat», «gauza bat» esan bearrean, «gauzik», «gauzarik» esan bearrean, «eliz ederra», «birjin maitea», «Urbetik etorri naiz», «Bitorira joan naiz» t.a. Oñatiko euskerak oso leialki errespetatzen du «a» ori. Ba daki ez dala artikulua, itzaren zatia baizik, eta beraz ez dala kentzekoa. Ala esango dizute beti: Bitorixara, Urbixatik, gauza bat, eliza ederra, gauzarik, astakerixa bat egin, aabi-xa bat = un nido (ez abi edo kabi bat)... Ontan ere antziñatasunari leialago ageri zaigu Oñatiko euskera.

Toki-izenetan Oñatiko euskerak «dui» sufijua erabiltzen du, Gipuzkoakoak «di» erabiltzen duen lekuan. Pagadui esango du oñatiar

batek; kiputzak, berriz, pagadi. Mitxelenak, lehen aipatutako liburuan dionez, «dui» zaharragoa da; «di» baiño zaharragoa (FHV 108). Arabako euskeran ere «dui» erabilli zan, dirudianez, Oñatiko euskeran bezelaxe. Or degu Ilardui (Ilárduya Arabako erri bat da), eta bai beste ejenplu batzuk ere.

Baiña Oñatiko euskerak ba du beste berezitasun bat oso nabaria: azentua (*acento tónico o de intensidad*, alegia). Amaika aldiz entzun izan degu euskerak ez duela onelako azenturik. Gaur beintzat, Bizkaian eta Gipuzkoan ozta ozta nabari da berorren arrastorik. Baiña ba dira euskera mueta batzuk, adibidez zuberotarra, Erronkarikoa eta beste batzuk, azentua garbi garbi dutenak. Jatorriz euskera zaharrak ba ote zuen? Ez da erraz ori erabakitzea. Aita Izagirik Oñatiko bere iztegian ardura aundiz aztertu du puntu au, eta Oñatiko euskeran garbi ikusten du berak azentua. Ez Erronkarin eta Zuberoan bezain sendo eta indartsu, baiña naikoa garbi ala ere. Berak jasotako itzetan ia beti markatzen du azentua eta azentu orren legeak. Ejenplu batzuk: Baso/basúa = bosque, baso/básua = el vaso, díru/dirúa, dómínistiku bat = un estornudo, dénpora askúan, góiberaak = las vicisitudes... Motel xamar baiña naiko argi ala ere gorde du azentua gaur arte Oñatiko euskerak. Eta ain zahar itxura duen euskera batek azentua badauka, ez ote da ori proba bat jatorriz euskerak azentua ba zuela uste izateko? Linguistikako auzi auetan maisu trebe eta jakintsu diranak esan bear digute ori. Mitxelena jaunak, aipatutako liburu ortan, ala uste du beintzat (FHV 405).

Erdi Aroan frantses erromes bat pasatu zan Euskalerriarn barna. Galiziako Santiagora zijoan. Ibillaldi ori eginda gero, liburu bat egin zuen, Santiagoko bide ortan pasatu bear diran errialde eta jende-klaseen berriak emanez. Euskaldunez ere mintzo da, eta naiko beltzak dira aiei buruz esaten dituenak. Dana dala, euskerazko itz batzuek ere jartzen ditu bere liburuan, gauzarik bearrezkoenak nola eskatu bear diran jakin dezaten erromesak: ura, ogia, ardoa, eliza eta orrelako gauzen izenak jartzen ditu. Baiña ba da an itz bat gaur ezezaguna eta guretzat ardura aundikoa, Jainkoaren izena: «*Deum vocant Urcia*» (ala dio): Jainkoari Urcia deitzen diote. Itz ori gaur ezezaguna da sentidu ortan. Ondo jaso edo aditu ote zuen, gero, atzerriar arek euskaldunak esan ziotena? Batzuek uste dute goialdea edo zerua (erderazko *firmamento*) esateko erabilliko zala itz ori, eta ez presiski Jainkoa adierazteko, eta atzerriarrek Jainkoaren izena bezela artu; beraz, oker aditu edo interpretatu zuela aiek esan nai ziotena. Nolanai ere, itz orren senideak edo antzekoak ba dira, bai, euskeran, eta beti dute zeruarekin, atmosfera edo firmamentuarekin zer ikusi: ortzadar, ortzegun t.a. Forma auek sortaldeko dialektuetan dira. Gure aldean, berriz, «ost» edo «osk» sustriaiarekin aurki-

tzen ditugu. Eta ain zuzen, Oñatiko euskerak ba du itz sail ederra, sustrai beneragarri onetatik aterea: «oskarbi» = cielo despejado; «oskorri» = nube rojiza. Esaera bat ere ba da: Góiseko oskórrixak, illúnkaako ittúrrixak. «Ostaizia» = el viento que precede a la tormenta. Ostargittuta eguan = había empezado a amanecer. Ostargixa badator = comienza a amanecer. Ostarku = arco iris. Ostarte, ostartiak = ratos de sol entre la lluvia. Ostóndo dana lañáatu = cubrirse todo el cielo de nubes. Ostraixa bistaan dao = se ve el azul (del cielo), eta abar.

Gramatikuak «nombre verbal» edo aditz-izena deitzen duten ori ere Oñatiko euskeran oso berezia edo apartekoa da. Gorago aipatu det XVIII gn. mendeko liburu bat, Oñatiko euskeran egiña. Liburu orretan, bada, onelako formak agertzen dira: geldiketán, ezaguketán, urreraketako, azpiraketán. Oiek orain ere alaxe esaten dira. Zillegi bekít gogoan dedan pasadizo bat kontatzea. Aspaldiko kontua da au. Ni baninjoan Oñatitik Arantzazura oiñez (orduan ez zegoan orain bezelako komenentziarik). Eta bidean emakume batzuekin topo egin nuen. Aiek ere gorantza zijoazen. Arantzazuko auzotarrak ziran, baiña ni ez nintzan konturatu. Erromes batzuk edo izango ziralakoan: Nungoak zerate edo nundik zatoze, edo orrelako zerbait galdetu nien. Arrituta, aietako batek esan zuen: Ene bada! Ez gaitu ezauketan? (Bueno! Ederra egin diagu!!, esan nuen nere barrurako...)

Ezauketan... Beraz, XVIII gn. mendeko liburu ortan aurkitzen degun forma bera. Baiña liburu ortan ba dira beste forma berezi aukerak: «Jaungoikoaren Legian gabaz eta egunaz medítaitan dabena»; «zergatik ez daguan iñor juizioz pensaitan dabeník», t.a. Oiek ere oso antzera entzuten dira gaur: pensaiten, konfesaiten, kantaiten...

Oñatiko euskera: itz bereziak

Itz jatorrak eta bereziak, esaera egoki, esanai eta indar aundi-koak asko ditu Oñatiko euskerak. Ontan oso aberatsa da. Ba dakit ondar gabeko osiña dala au. Ejenplu batzuk aipatu besterik ezin egin nezake.

Urtel: orra itz bat guttiz berezia, baiña gutxi ezaguna. «Urteltxo dao arbixa»: arbi gutxi dagoela esan nai du. Itz au uste det gutxi entzuten dala. Zahar batzuei jasota artu du Aita Izagirrek.

Sarden/sardena = derecho, esbelto, bien formado. Au ere ez da egunero entzuten dan oietakoa. Felix Arrazola apaiz jaunak kontatu dit bera mutiko zanean amak edo ez dakit nork esaten ziola sarritan: «Sarden ibilli bear da, sarden!»; eta berak erantzun ziola bein: «Zer da sarden?» Beretzat itz ori ezezaguna zan.

Sendor/sendorra: ona emen Oñatiko beste itz berezi bat. Erderazko carga, bizkarrean eramaten dan karga bat esan nai du. Baiña beste esanai batekin ere erabiltzen da: «ramillete» esanaiarekin, alegia. «San Juan sendorra» deitzen zaio, San Juan egunean umeak bedeinkatzera eramaten duten lore sortari. Arantzazuko auzoan oraindik bizi bizirik dago oitura eder au. An etortzen zaizkitzu umeak, bakoitza bere sendorrarekin. Lore edo belar klase batzuk derrigoreean sartu bear dira sendor orretan: *aafixua*, *errudia* eta *erbasantia*. Gero San Juan egunean bedeinkatutako belar oiekin kutunak egiten ziran, sorgiñen eta odeien aurkako babes ziralakoan. Ezaguna da artzai bati gertatua. Mari Gaizto edo Anbotoko Señoraren zuloan sartu omen zan artzai ori. Beste sorgiñak deadar egiten omen zioten Mari Gaiztori: Akixo ba al baakixo. Baiña artzaiak kutuna zeraman. Mari Gaiztok ba zekian ori, eta era ontara erantzun zuen: Bai ez-palleukok erruria ta aapixo (ruda y apio). Oiekin egiten zan, ba, kutuna.

Puxeta jo = hacer la colada, el lavado de la ropa. Au ere emengo itz berezia da. Gesaltzako baserrien ondoan ba dakizute nola dagoen arkaitz zulo ikaragarri bat: Lizuna du izena. Bertan sartzen da Arantzazuko erreka. Erreka azita datorrenean oso ondo entzuten da ur zarata baserri aietatik. Zaharrak sorgin kontua aguro, eta auxe esaten omen zuten zarata ori entzutean: Sorgiñak puxeta jotzen Lizunean.

Aixkomente. Au ere Oñatiko itz berezia da. Erderazko ordinariamente, por lo regular, edo orrelako zerbait esan nai du.

Axuarixak: orra Oñatiko beste itz polit bat. Erderazko vituallas, edo orrelako zerbait esan nai du. «Axuarixak gastau xaku» = se nos han acabado los bastimentos.

Jarein = soltar, dejar, librar. Au asko erabiltzen dan itza da. Eta ortik dator noski, beste au: járeixa edo járeña: zabarra, ajolakabea = un dejado, abandonado. Batez ere janari fiñei ematen zaie izen au: olio, azukre, kafe ta orrelakoei.

Ebali ere asko esaten da erabili-ren orde.

Ittoia, *ittúa* bat, *ittoa* txikiña... zera da: ikullua = la cuadra o establo.

Euskera arruntean edo literarioan joan esaten deguna, emen Oñatin *juan* edo *fan* esaten da. Eman, berriz, *emun*. Emunaldixa = época de producción.

Gaiñera, *gaiñeria* = la cima (de un monte). Gaiñeraik-gaiñera = (ir) de cima en cima.

Burduntzi ba dakizute zer dan: erderazko asador. Baiña tresna orren antz edo itxura zerbait duelako, erderaz «libélula» deitzen zaion mitxeleta klase orreri ere burduntzi deitzen zaio Oñatin. Ger-

nikan, gu ume giñala, Mari-orratzak deitzen genien mitxeleta luzexka oiei.

Bialeku: Oñati aldean itz au oso da erabillia. Au dok bialekua! = ¡qué trabajo! Lanbide txarra edo orrelako zerbait esan nai du. Gesaltzako Grazianoren liburu batean ba da ateraldi polit bat itz onekin. Kaletarrak baserritarren kontra tabernan itz egiten dutenean onako au esaten omen dute: Eun kaletarrek baiño baserritar batek Jaungoikuari bialeku geixao emuten xak. Batean euri eske, bestean egualdi onen eske: orreik sekula étxaozak konforme (Aitonaren Uzta, p. 77).

Grazianoren liburuetan ba dira zenbait itz bertako-bertako usaia dutenak eta beste euskal liburuetan nekez aurkituko diranak. Ez degu emen astirik oiek biltzen eta bana banaka aipatzen asteko. Baiña bat edo beste, bai, esango det. *Petriñak* = gerrikoak, cinturones (Bertso-Bilduma, p. 83). *Anbo/anbúa* = erle alperra (zángano) (Bertso Bilduma, p. 122). *Orkatxiña* = orkatilla (Egusentiko Txoria, p. 63). *Trango/tranguak* = baso bidietan egoten diran goraberak, orain sakonune bat, gero aldapa bat, eta abar (Egusentiko Txoria, p. 50). Jakia zer dan ere era ontara esplikatzan digu Grazianok berak: «Jakia da ogia jan eraiteko edozein gauza» (Egusentiko Txoria, p. 63).

Kaldar/kaldarra. Itz au ez da, noski, Oñatin bakarrik erabiltzen. Grazianok era ontara esplikatzan digu zer dan kaldarra: arrazoa emoten eztakiana, egia ikusi eta ala ere ukatu egiten dabena: ori da kaldarra (Egusentiko Txoria, p. 85).

Dontzu/dontzua ere asko erabiltzen da, errukarri edo orrelako zerbait adierazteko. Berez, jatorriz, orren kontrakoa esan nai du, au da, zorionekoa (feliz), baiña denporakin bigarren sentidu ori itsatsi zaio, Oñati aldean beintzat. Ona emen Arantzazuko auzoko emakumetxo zahar bati neronek artutako esana: «Illun istantetxuan Arriolatik urten geben. A be bieje zan! A be ein gendun guk dontzuok! Bai.»

Droga/drógia. «Gizurra ta drogia» = mentira y escándalo, engaño, trampa: orrelako zerbait esan nai du orrek. Itz au oso entzuna da. *Duakia* = terco. *Turko/turkua* = el que es muy suyo y no hace caso a nadie. Ala dakar Aita Izagirreraren iztegiak. *Masusta*, ba dakiute zer dan = la zarzamora. Baiña Aita Izagirreraren iztegian onako beste sentidu au ere ba dator = mujer dispuesta a tomarse cualquier libertad. *Faer, faerra*, «ermitaño» esateko erabiltzen dute oraindik zaharrak. San Juango faerra = el ermitaño de San Juan de Artia. Ala esaten du Claudio Beillotsaakoak. Ezagutu ere ezagutu omen zuen berak San Juan Artixako faer ori. *Estimetxa/estimetxia* = persona

que no sabe decir «no» y habla con mucha suavidad. Ala dakar Aita Izagirrek.

Aixa(r)i = zorra. Itz oso ezaguna. Baiña itz onetatik beste itz berri asko sortzen dira. Eta itz berri guzti oietan, aixari ori «aixal» biurtuta agertzen da. Ona emen Aita Izagirrek dakarren itz-sailla: aixal-amia, aixal-arra, aixal-arrapatzaillia, aixal-arrastua, aixal-artzaila bat, aixalkerixaak eiñ, aixalko (zorro viejo), aixálkoba, aixal-txakurra, aixal emia, aixálkuma bat, aixaltzaarra (grande), aixal-zaarra (viejo). «Axaixak bustitzeko eurixa» esaten da euri gutxitxo edo euri lanbroa egin duenean.

Euri itzarekin antzera gertatzen da. Beste itz asko daude itz onetatik etorriak eta danetan «eul» sustraia agertzen da. Eulandar = llovizna. Eulantza = llovizna o lluvia menuda. Eulauso = lluvia insignificante. Euléguna = día de lluvia. Eulónduan = después de la lluvia.

Aizkirriko Ladislaorekin Arabako mendietara ibillaldi bat egin nuen bein, ango toki-izenak berari galdetzeagatik. Mendi-arruak asko aipatzen zituen berak. Orduan arruak zer diran galdetu nion. «Arruak dira barruko sakonak, *huecos*, erantzun zidan berak.» Gaztaiña-arbolak barrua pipiak janda, utsik edo usteldua daukanean, ango sakon-uneari gaztaiña-arrua deitzen zaio. Aita Izagirreren iztegian ba da itz sail ederra, «*arro*» itz orrekin moldatutako itz sailla, alegia. Arrua = barranco. Errekarrua = cauce abierto por las aguas. Bidarrua = surco del camino. Aitzarrua = hondonada entre rocas. Mendi-arruak = repliegues o vaguadas de los montes...

Amill, amildu ezaguna da euskeraz. Gauza bat goitik behera itxumustuan edo zalapartaz erortzen danean, amildu egin dala, amilka datorrela esaten da. Sustrai onekin ere Oñatiko euskeran ba da itz sail ederra. Ona emen Aita Izagirrek bildu dituenak: Arramilla = piedra suelta que se precipita por una pendiente. Uramilla = agua que se precipita. Or datos urámillak! = ¡qué avenidas de agua vienen por ahí! Lurrámilla = corrimiento de tierra. Garrámillak = lenguas de llamas que se levantan en un incendio. Edurramilla = bola de nieve...

Ertz = esquina, orilla, borde. Itz ezaguna da noski. Baiña Oñatiko euskerak ba ditu beste itz egoki auek, orren laguntzarekin eratuak: Mendertza = horizonte, línea cimera de los montes. Uler-tza = raya del pelo.

Una = trecho, espacio. Itz onekin ere ainbat sortzen dira. Sabeluna = bache de carretera. Sakonuna = hondonada. Zabaluna = planicie, t.a.

Laun/launa = llano. Itz onetatik ere itz sail polita sortzen da.

Laundara = llanura. Laundu = allanar. Launkuna = llanura. Lautáratxo = llanurita...

«Egi» toki-izenetan asko agertzen da. Itz auekin argitzen digu Aita Izagirrek «egi» ori zer dan: En el relieve del suelo: cima alargada con dos vertientes. Oñatin ba da baserri bat Arregi izenekoa, or Okumardin eta Idigoras aldean. Arregi = cima alargada de piedras da, noski. Eta etxea nun dagoen ikusi besterik ez dago, izena zein en egoki daukan oartzeko.

Fardel/fardela, zer dan danok dakizute, noski. Baiña itz onek ba du bigarren sentidu bat: alperra edo nagia (haragán). Euskalduna fardeldu egin dala esaten zuen Grazianok.

Eraoskatu = repudiar, aborrecer esan nai du Oñatiko euskeran. Ardi batek bere bildotsa maite ez duenean esaten da itz ori. Ortik bide artuta, Grazianok beste au esaten zuen: Gaurko euskaldunak baserria eraoskatu egin duela...

Unain/unaiña, orra beste itz bat Oñati aldean ezaguna. Vaquero, pastor de vacas esan nai du. Zapiarbeko baserriari oraindik zaharrak Unaiñena esaten diote. Eta Aloña aldean ba da Unamendi toki-izena = el monte del vaquero.

Aari-buruak = cabezas de carnero, badakizute zer diran. Aita Izagirrek onela dakar: Nubarrones redondos que aparecen a la salida del sol y traen lluvia.

Zopizartu. Itz au ere oso ezaguna da Oñatin. Lurra jorratzea, baiña pixka bat arin eta azaletik, ori uste det dela zopizartu.

Buruereitxixa = la que es presumida. Ala dakar Aita Izagirrek.

Esaera jator batzuk

Naikoa eta geiegi ere izango da onenbestekin. Esaera bat edo beste eta gero igarteko batzuk aipatu, eta onekin bukatzera noa.

Grazianok esaera zahar asko esaten zituen. Nik ez dakit danak benetan zaharrak ote ziran, edo berberak asmatuak ere bai batzuk. Edozein modutan ere guztiz jator eta egoki esanak daudela, ori ezin ukatu. Orra or batzuk: Ez aiz mutil txarra i Erromara bulda diruakin bialdu eta zuzen entregatzeko (= Bueno estás tú para mandarte a Roma con el dinero de la bula. O sea, que no se puede fiar de ti.)

Eta beste au: Mee-unatik gorria, gizonik geienak alperrik daukate (= Lo que está encima del trecho delgado, o sea, del cuello, es decir, la cabeza, la mayor parte de los hombres lo tienen en balde.) (Aitonaren Uzta, p. 102-103.)

San Martinen olua pagau = pagar la avena de San Martín = verlas negras. I oindio San Martinen olua pagau gabe ago = gaitzik ikusi gabe aiz oraindik. (Aitonaren Uzta, p. 98.)

Elorrixo ikusi = egun txarrak pasau. Aurten Elorrixo ikusi bear-ko diau Kanpanzarrera barik, esaten zuen Grazianok.

Beste esaera au ere Grazianori entzuna da: Iru gauza omen dira munduan alperrik galtzen diranak: Mendiko egurra; alperraren indarrak, eta pobrearen arrazoia...

Txidurrixen garoiñak jango dituzula esan = dile que comerás sesos de hormigas. Esan zorrotz au Aita Izagirrek dakar bere iztegian.

Neskak, gazte denporako zoro aldiak ez dituztela utzi esateko, ba da esaera au: Gastiasoon pasa barik zagozai.

Atzekalde ona xakok = tiene buen pasado, es persona de garantía, de toda confianza. Aurrekalde ona ein = engañar, fingir.

Oillalurrrian bizi izan gaa... Oilloak ez dira urrutira joaten, etxe ondoan egoten dira beti. Orixe esan nai du, ba.

Giza-narru zer dan badakizute = piel humana. Baiña gaizkille = malhechor esateko ere erabiltzen da. Aita Izagirrek, beintzat, ateraldi auek jaso ditu: Oi dok giza-narrua! Etxakun guk emen giza-narruik = puede usted entrar en casa = aquí no hay ningún malhechor...

Txidurriak erlabixuari esandakoa (au ere Aita Izagirrek dakar): Udar birrin da burrun ta neguan eskian? Iri limosna emateko etzeok inor etxian (Kiputz aldeko tankera du esaera onek).

Igarkizunak

«Igartekuak» (= acertijos). Orrelakoak ere —batzuk beintzat— jaso ditu Aita Izagirrek bere iztegi ortan.

Adibidez, arrautzarena: Aita lekaarixa, ama kantaarixa, umia biotz gorrixa.

Piperrarena: lapikotxo gorrigorri, bera bete sorri.

Kipularena: miña da miña, ezta piparra; gónaak dakó eta ezta andría; bizárrak dakó ta ezta gizona.

Mizpirarena (= níspero): Agura txiki belendriñ, bost bizar da sei agin.

Masustarena: Mutikotan berde, mutilletan gorri, eta gizonetan baltz.

Eskopeta-tiroarena: Ama illetik, ume bizia.

Gariarena: Aundi banitzan txiki banintzan, mariatzian buru nintzan; berrogeigarren egunerako oramaixan ora nintzan.

Bukaera

Berezia, Zaharra eta Aberatsa: ona emen gogoratu ditugun alderdiak. Oñatiko euskeraren alderdi eta doaiak. Batez ere aberatsa.

Bai. Esan degunetik garbi ateratzen da Oñatiko euskera aberatsa, ugaria eta oparoa dala. Eta izkuntza tresna bat besterik ez da. Beste balio askoren euskarria eta gordelekua. Aita Izagirrek egin duen bezelako bilduma, ez bakarrik izkuntza ikasteko, baiña erri jakituria ezagutzeko ere iturri paregabekoa da. Azterketa auk euskera munta guztietan egin bear lirake. Euskera sustraitik eta bere osotasunean ezagutzeko orrelako lanak bear ditugu. Euskera literarioa bera ere izerdi berriz aberasteko bearrezkoak dira.

Orain Aita Izagirrereren lan ori argitaratu egin bear da. Bai. Kalerara atera bear da. Ortarako «kakua asmau» bearke (au ere oñaitarren esaera dala uste det).


Nere itzaldi kokkorrean aipatu det Arrazola Etxean dagoen liburu aundi bat, XVIII gn. mendean Oñatiko euskeran egiña. Ura argitaratzea ez da erreza izango. Baiña besterik ezean, beronen fotokopiak egitea bai komeni litzake, ale bat baiño geiago egon dedin. Ale bakarra dagoen bitartean, gauzak beti daude galtzeko arriskuan. Fotokopiak atera eta iru edo lau tokitan euki ezkeru, alde batetik seguruago, eta bestetik aztertu edo estudiatu egin nai duenak ere, erosoago egin lezake.

Eta bukatzeko, eskaritxo bat. Faborez, egin euskeraz. Izkuntzak ez dira ezer erabiltzen ezpadira, ezpainetan loratzen ezpadira, aotan artzen ezpadira. Egin, bai, euskeraz, lotsarik eta iñolako konplejurik gabe. Eta erakutsi, arren, gure izkuntza landare berriei ere. Belaunez belau datorkigun lokarri au ez dedilla gure gizaldi ontan betiko eten. Errudunak biurtuko giñake Kondairaren aurrean.

Eta besterik ez. Jaunak gau on dizuela danoi.

A. L. VILLASANTE.

10-IX-1968 (VILLIMAR).



OÑATI'KO EUSKO - IKASKUNTZA-ren

BATZARRA

eta

EUSKALTZAINDIA

1918 - 1968

BERROGEITAMARGAREN URTEURRENA

Beinola, Txina'ko Emperadore batek, agintzen jarri bezin laister, paper eta liburu guziak erre ta suntsi arazi omen zituan. Onekin adierazi nai izan zuan Txina'ren historia arekin asten zala, ta ordu arte, Erri artan ez zala deus baliokorik izan.

Oraingo Txina'n ez dakit garbi zer gertatzen dan, baiñan Mao-Tse-Tung gizon argiegia dala uste dut jokabide itsu artan jarduteko kultura-matxinada aitzekiz. Gure artean, orden, ba-ditugu mandarin gazte zenbait, Mao bera baño maotarragoak, ezjakiñez eta zima-gaiztoz egundaño Euskal-Kulturan ez dala ezer egin uste dutenok; edota egin dan apurra, oker-urri dala, gaizki esaka dabiltzanak.

Auei entzunik, intelektual-eremuan, literatura, musika, poesia, teatroa dirala; naiz beste arte barrutian eta jakintza gaietan orain artio ez omen dugu ezer giartsu ta sakonik bururatu ta politika, soziologia eta antzeko ikasbideetan oso atzeraturik omen gaude.

Mandarin diralako oiek uste bait dute berak sortu artio ez dirala gure Erriaren problemak bear bezela zuzendu. Eta uste makur oriek bazterretan zabaltzen ari dituzu gazte jendeen artean naspilla ta illunpea jarririk.

Argitasuna egin naiez eta Egia zer dan jakin dezaten lantxo au eskeñi gura diet. Batez ere, gazteai kulturaren iturburuak erakutsi bear zaizkie bertatik darion ur garbia eruz edan dezaten, eta ez ditezen alperrik ibil Mediterraneo berririk agertzen. Ez da gezurra oraingo aldiak uste ta asmo berri asko eskatzen dituala, bide berri-

tatik jo bearra. Bai, naski, baiñan asmo, ustekizun eta bide zaarrek noraño ekarri gaituzten jakin da gero.

Errialdeen bizitzan antziñakoa ta gaurkoa elkarri loturik bait daude eta aurrera jarrai ta gure kultura sendo ta indartzeko atzeruntz begira bearra dago. Orregatik azken berrogeitamar urteotan Euskal-Kulturaren barruan zer egin dan jakitea bearrezko ezik naita naiekoa zaigu.

Orain 50 urte Oñati'n Eusko-Ikaskuntza guzien Batzar nagusia ospatu zan: gure Kulturaren alde beñere egin izan dan bilkurarik aipagarriena. Aste bete baizik irauñ ez zuan ikastaro labur, baiñan sakon eta goitarra. Batzar hura Euskal-errirako iñoiz ikusi ez bezelako gertakizuna izan zan, aztu ezin ditekena. Eta alaz guziaz, ez al da egia garratza gaurko gazte gutxik dakitela aren berri? Au esker txarreko egitea ezik utsegiterik aundiena izango litzake gure Kulturaren etorkizunerako.

Oñati'ko Batzar aundian egindako itzaldi, lan eta jaiak ia milla orri dituan liburu lodi eder eta mamitsuan bildurik daude (1). Gregorio Mujika'k itzaurrean azaltzen duanez: «Guipuzkoa, Naparroa, Bizkaia ta Araba'ko Diputazioak alkar artuta Euskal-Erriari zegozkion ikasgaiak erabilli ta argitzera euskaldun jakintsu ospetsuenak bildu zituzten.»

Izkuntza, Historia, Artea, Etnografia, Errelijjioa, Lege zarrak, Politika, Musika, Literatura, Industria, Arrantza ta Lurlangintza, Itsaso ta Lurreko ogibideak. Eskola ta Kultura jantzia guzia ikutu ta aizetu zan Batzar gogoangarri artan eta orduko gizonik argituenak izan ziran irakasle. Aipa ditzagun izenak:

R. Azkue, T. Aranzadi, Allende Salazar, Apraiz, Eguren, Elizalde, Elorza, A. Donostia, Arrue, Galdos, Guiard, Gerra, Mourlane Mitxelena, Muguruza, Landeta, A. Lizarralde, Urabayen, Urroz, Urxixo, Olabide, Elorrieta, Etxegaray, Chalbaud, abar eta abar...

Auek ildakoen artean. Zorionez, bizirik daude oraindik eta anitz urtez bitez, gure J. M. Barandiaran, A. Inza, M. Lekuona, Lopez-Mendizabal eta M. Mujika gotzai agurgarria. Onek azken eguneko meza nagusian euskeraz itzaldi bikain bat entzun arazi zien batzarkideai biotzen altxagarri.

Aundikiro amaitu zan Oñati'ko «Congreso» aztu ezin ua!

Beste jai eta itzaldi asko egin ziran. Bateon bat anpatuegia ere bai norbaitzuen ustez. Norberak egun aietako berriak irakurriaz bere barrunbean egin dezala epaia. Geroak guztiok juzgatuko gaitu.

(1) *Primer Congreso de Estudios Vascos. Recopilación de los trabajos de dicha Asamblea, celebrada en Oñate del 1 al 8 septiembre 1918.* Bilbao, Imp. Bilbaina de Artes Gráficas, 1919-1920.

Goraxeago aste betean bururatu ziran lan gaiak, lerroz-lerro izendaturik utzi ditut. Lan errikoï ta Jakintza asmoz betetako gaiak. Ugariegiak bear ba da. Ez balio berdiñekoak noski: obeak batzuek besteak baño. Guziak, ordea, gogo sutsuz eta borondate onez tajutuak.

Batzar artan artutako erabakirik garrantzitsuenak bi gallendu bear ditugu: «Eusko Ikaskuntza» (Estudios Vascos) elkargoa sortzea; eta Euskaltzaindia'ri (Akademia'ri) asiera ematea bai oñarri sendoa jarririk.

«Eusko Ikaskuntza»-k, bere aldizkari R.I.E.V. laguntzalle, 1936 garren urteraño iraun zuan. Bitartean bost Batzar edo Kongreso aundi ospatu zituan. Eta nik al dakit zenbat batzar txiki ta lan xehe ta apalagoak «Eusko-Ikaskuntza» gure Unibersidadearen bide-urratzalle ta aurrelarizat ar dezakegu. Ez al dago berriz zutik ipintzerik?

Eta beste galdera bat. Orain asmo berri, ideia aurrerakoiez aldaketa irrikiz dabilzanan artean, zenbat ote ditugu Batzar artako lanak astiro ta sakon irakurri ta aztertu dituztenak?... Julio Urkijo'ren: *Estado de los estudios relativos a la lengua vasca*; L. Elizalde'ren: *Metodología para la restauración del Euskera*; Aita Olabide'ren: *Lexicología y lexicografía*; eta R. Azkue'ren: *Fonética Vasca...*, Gavel'en *Ortografía*'ri buruzko ikasgaia? Bada itzaldi aietan gaur aiputan dauden «estrukturalismo» ta beste linguistika berriaren problemak ez al ziran aztertzen asi? Al duanak erantzun beza!

Batzar artan, nere ustez artu zan erabakirik ajola aundikoena Euskaltzaindia sortzea izan zala esan dizuet. Eta ontan nago beti. Aurten 50 garren urtebetetzea ospatzen dugun ezker; erre-eztaiak jaitzen ari geranez, bidezko da gai oni leku oparoa ematea.

Euskaltzaindia euskera zaintzeko sortu zan, noski, ta gure izkuntzaren inguruan borobildu ta osatu nai nuke, gaurko nere jarduna, zerbait luzatuko ba da ere. Ausardia barkatuko al didazute.

Ez dala denbora asko «Kamiñazpi» ondarrutar idazleak auxe esan zidan: «Ea zergatik ez ditugun gure euskera sendotzeko eta nun nai erabiltzeko dauden arrazoiak geiago zabaldu ta tinkatzen. Ontan euskaldunok, aundiki ustekoak, batez ere, oso lazo ta zabarrak ditugula...» Zorigaitzoz egia da. Gañera, nere lagunak erantsi zuan: «Bertsolariok, erri erriarentzat, bai, oso egokiak dira euskal-zabalkundea egiteko, baiñan aundikiok, jende ikasiak beste argumentu. beste sinisbide batzuek bear dituzte euskeraren alde leia ditezten.»

Bertsolariak goratzeko esaten dan guzia gutxi da.

Ez du iñork auk eña egin euskera zabaldu ta eusteko. Ontan, apalki aitor dezagun, bertsolariak dira gizon eta ez gu euskeltzaiñok!

Baiñan, jende ikasiai euskerarenganako gutxi-etsitze ta txikitetasunaren komplejoa kentzearren, Euskaltzaindia'k ba du zerbait bete bea-

rra. Lan au Akademiaren egitekoa da. Alegia, euskerak ez duala kulturarako balio eta beste antzeko aurre-iritzi ta prejuizioak baztartzea.

Arlo oni lotu natzaio ta agertzen joango natzaizute irakurriko deuzen bezela. Gai ontan nere jakituria urri ta azalekoa dan ezkerero, besteengandik ikasi ta xurgatutako ideia ta gogapenak erabilliko ditut nere lana indartzeko.

Bereziki euskeraz itzuliko dizuet Ramon Piñeiro jaunak Real Academia Galega'n sarrerako itzaldian: «A Lingoaxe i as Lingoas» (2) emandako irakasbide eder eta sakonak.

«Cada pobo antes de poder realizar o seu destino no tempo, na historia precisa realizar a sua personalidade co leitiva. A forma interna e viva desa personalidade e a lingoa, poisque e a que lle da unidade espritoal creadora.»

IZKERAK ETA IZKUNTZA

Zer da izkera, eta zertarako da?... Izkera gizonezkoak duan almen berezi bat da, beste abereak ez dutena: mintza-bide almena (facultad locutiva). Izkera dalakoa zeaztu ta erabat borobiltzen danean izkuntza dala esan dezakegu. Izkera bat berez zeingabea da, abstraktoa, zeaztu ta berezten danean izkuntza biurtzen dana.

Teknika ta kultura ez dira gauza berdiñak. Teknika arrazoi utsezko zitua da; kultura berriz goragoko mallan dago, ta gizonaren almen guziak betetzen ditu.

Euskeraren goresmen eta apolojia askotan egiñak izan dira, geinetan erderaz ordea. Gaur goresmen hori euskeraz nai dizuet. Eta naiz nere lana balio gutxikoa izan, zenbait argumentu ta zergati berrri agertuko dizkitzuek zuen adimenaren aurrean. Ez biotz-sentiera soillak, arrazoiz orniturik baizik.

Eragozpen guziegatik gizarte batek bere izkera maite badu, norberaren izkuntzari atxikia badago, au ez da ilko. Maitasun hori falta ba'zaio, berriz, bere izkuntza utzi ta beste bat artuko du.

Oñati'ko Batzarrean agian esan ziran itzik baliotsuenak Alfonso XIII'garren erregearen ezpañetatik ateratakoak:

«Cultivad vuestra lengua milenaria y venerable, joya preciadísima del tesoro de la Humanidad, que recibisteis de vuestros padres y que debéis legar incólume a vuestros hijos.»

Izkuntza gordetzea egunero landu ta erabiltzea da; nun nai ta zernaitarako itzegitea, konplejorik gabe, dakigun eran, bai bizkaitar, giputz eta gaiñerakoak. Bakoitzak bere mintzoa, ta zuek oñatia-

(2) *A lingoaxe i as lingoas*, discurso lido o día 25 novembro 1967 na sua recepción pública. Edit. Galaxia, Vigo, 1967.

rrok zuen berbetia... Gai ontaz jardunean ari giñalarik norbaitek oso egoki *modrautar* bati esan zion bezela: «Ez da euskeria zatarrrik, ezta *Santa Agedakoa be!*» Egia auxe ederto erakutsi digu Toribio Etxeberria argiak Eibar'ko euskeraren aberastasuna goian ipiñiaz (3).

Orain, ezberdintasunaren komplejoa kentzearren, euskaldun guziok elkarrekin obeto adi gaitezen izketan eta idazkeran Euskaltzaindia'k batasun lege ta arauak emango ditu guziok onetsi bear ditugunak.

Gizona, izkuntza ta kultura, irurok izankide, izate bateko ditugu. Euskerari orainarte zergatik ez diogun garrantzi aundiagorik eman azteitzera goazen arazoa da.

Beste arrazoi askoren artean bi aurre-iritzi (prejuicio) nagusiok gebendu gaituela esango nuke.

LINGUISTIKA AURRE-IRITZIA

Iritzi au ezbaikor, eszeptiko gogai bat dugu, gure izkuntzaren baliari buruz sinesgaitz egiten gaituana; euskerak gaurko kulturarako gauza ez ote dan uste izatea.

Eta uste onen oñarri gutxi-gora bera auxek ditugu:

- a) Dialekto-Izkelgien ugaritasuna.
- b) Ortografiaren ta itzberrien naspil eta anarkia.
- d) Aundi-maundi ta sozial gizartean aipu ta osperik eza.

Aitzeki-maitzeki auk banan banaka araka ditzagun:

Dialektoen ugaritasuna. Euskal-Erriko lurralde guzietara begiratzan baldin ba dugu, benetan dialekto ta izkelgi mota geiegiz betetako ikusbegia agertzen zaigu. Egia da eta ez dago ukatzerik.

Baiñan beste izkuntza guzietan ere zerbait antzeko gertatzen dala esan bearra dago. Izketa oro sareak bezelakoak dira toki jakin batzuetan zabaldu ta edatzen diranak. *Soziologia linguistika* deritzan azter-lanak, garbi adierazten dute, esate baterako, uri aundi batean, Madrid, Paris, Londres ala New-York'en izketa ez berdiñak egiten dirala, zer nolako gizarte jende mota mintzatzen dan. «Dialektoke-ria» ez dala bakarrik euskeraren gaitza.

Gure kontra dagona onoko auxe dugu: Gaztelerrian, erdal «dialektismoa», naiz prantzes, ingles eta abar, ots itzegiten dan erdera idazten duten izkerarekin estalirik daudela. Izkera auk idazkeran batasun bat dutela mintzaeran ez dutena. Euskerak, aitzitik, eta zoritxarrez, ez duala lortu batasun hori naiz bidean izan.

(3) Lexicon del Euskera Dialectal de Eibar (Arrate'kikuen izketia) Rev. Euskera, Bilbao, 1965-1966.

Eta, noski, izkelgi mota ezberdiñez josia agertzen zaigula gajoa! Onek esan nai du beste izkuntza aurreratu ta tinkatuen aldamenean atzeraturik gaudela.

Atzerapen au, ez da funtsezko atzerapen eta gibelatzea. Ez du esan gura gure euskerak adierazpen indarrik ez duanik; ez dala gauza mintzabide izateko; ez dezakela aurrerapenik.

Atzerapen tekniko au aldi gutxi barru garai ditekela nago Euskaltzaindia'ren batasun arauak beterik, eta aginduok idazleok literaturaren, eskolaren, elizaren bidez Euskal-Erri osoan zabaldu eta edatzen ba dituzte. Alabiz!

ORTOGRAFIA TA ITZBERRIEN ANARKIA

Arazo onek ajola gutxiago du, nere ustez, Ortografia'k beinik bein. Idazkera, berez, gauza konbenzionala da. Ituneko erreza erabaki ditekela eta ia egiñik geneukaguna...

Ortografiaren batasuna azaleko jantzia dugu, soñeko apaingarri eta ezaugarri, kultura izkuntza batek, jakiña, jantzi bear duana. Orain arte gure izkuntza kultura arruntez besterik ez dugu jantzi; ez diogu baserriko azalik kendu. Eta garaia da, eta guri dagokigu ez zarpa zarrez baizik liñozko Akademi jantzi ederrez apaintzea. Au egin bearra dago eta egin dezakegu eragozpen eta zailtasun aundirik gabe.

Ortografiaren batasun oztupoak ez ditugu ain larri: zuritzeko bidean daude.

Itzberri, neologismoen anarkiak ez nau geiegi ikaratzen. Azken urteotan zabaldu ta jendeak onetsi ditunak artu; gaizki egiñak eta alperrikakoak bazterturik. Eta aurrerantzean alik eta gutxiena sortu eta auek Euskaltzaindia'ren ardurapean. Bitartean teknika itz berriak, gu baño indartsuago diran izkuntzen eran jokatu eta onela gure lana erreztu.

GIZARTEKIKO AIPU-EZA (Desprestigio Social)

Au da, ene irudiko, euskerak duan oztoporik larriena: gizartekiko aipu-eza. Gaitz izugarria benetan. Onek, sikologiaren aldetik begiraturik gutxietsipena bait dakar, txikitasunaren komplejo bildurgarria. Onen kontra burruka gogorra egin bearra dago, aurrelari intelektual, aundiki, ta jende ikasiak batez ere.

Erri-izkuntza kultura-izkuntza biurtzea bearrezko zaigu. Gure burua txiki ta apalegi egin gabe, igesbiderik artutzeke, gure izkuntza dugun euskera, euskal-nortasunaren agerkairik nabariena sendotu ta tinka bear dugu. Burruka orren bidez bi gudaldi irabazi bearrean gaude: kulturaren aipu ta prestijioa ta gizartekiko entzutea.

Kulturaren entzutea pizka pizkanaka irabazten ari gerala dirudi. Unibersidade askotako irakasle ta ikasleak euskera aintzakotzat arzen asiak dira. Orain arte sekulan idatzi ez ziran aldizkari ta liburuak zer nai gaiez agertzen dijoaz: *Eusko-Gogoa, Egan, Jakin, Laiketan, Jaunaren Deia* eta abar.

Euskerarenganako «txikitasun komplejoa» bide ortatik sunsitzen joango da. Emakumezkoen leia, burruka ontan erabatekoa izan di-teke, garaipenaren asiera. Gaurko andereñoen aur-ikastolak, bigarko bigarren mallako, batxiller-ikasketak; eta gere teknika eskola ta Unibersidadea bera iriki dezaiguken giltza.

Ain gora igotzeko asko falta zaigula, esango dezute. Bai! Orain arteko lana ez da minori batena besterik. Baserri-kultura batetik Teknika ta Humanismo ta Industria jakiturira igotzea ez da egun bateko lana, baiñan bidean goaz. Mistika berezi bat bear dugu gizartekiko aipu-eza zapaltzeko. Belaunez-belaun, gizaldiz-gizaldi datorkigun gaitza sendatzea ez da gauza erreza. Erdera giroa aldatzea erri eskolarik gabe, egunkari, liburu, irratsaio, tele-ikuskin ta gañerako aurrerapenen kontra gaitza dala ez dago esan bearrik.

Eta emen aitortu nai dut, Eliza bakarrik —naiz ez beti ta askok nai aña— izan dala gure alde jokatu duana. Vaticano II Konzilioko azken erabakiak Liturjiari buruz euskerari laguntza aundia eman diote, baliatzen baldin ba-dakigu.

Kristauok sinismenean ez ezik euskaldungoan sendotuko dira ta Elizari gure eskerrona azaldu bear diogu.

Berriz ere irakaskintza gaia aitaturik, Erri-eskolak urte ta urteetan euskera baztertuak egin digun kalteak ez daki iñork! Aur eta gurasoen sikolojian barruraño euskerarenganako gogo-eza ta gorrotoa sartu bait du. Eta izurte onek euskal-anima ta espiritua arras zauritu ta il du. Eriotz galgarria. Eta ez dala aski, Pedagojiaren aldetik begiratuaz ere txarra erakuste kontuan bere elburuaren kontra joan dalako.

Gure gogoetak esandako aurre-iritzien inguruan laburtuaz bayeztu dezakegu, dialekto, iz-berri ta ortografiaren naspilla dala-ta, eseptiko ta sinisgabeen arrazoiak egia izanik ere ez dutela indar geiegirik. Literatura-euskeran batasun osoa ez bada batasun egokia egitea gure esku dago, Ta Euskaltzaindia'ren ardurapean urte gutxi barru lortuko da Jauna lagun.

Barkatuko al didazute nere leia dakizkizuten gauzak ekin eta ekin berriro esaten ari ba natzaizute, baiñan, ziñez, buruauste aundiema eman bear diguna erderazko «desprestigio social» gizartekiko aipu ta entzute eza dugu. Ez da gaurkoa aspaldikoa baizik ta aiena ez dezagun bitartean euskeraren gutxitasun komplejo ori ez da gure izkuntza indartuko. Historia'k gizaldi ta gizalditan gure kontra jokatu

du ta naiz gaur giroa zerbait gure alde aldatua izan, oraindik egunkari, irrasaio, telebista, etsai ta izterbegi ditugu.

Ez ditzagun itxi begiak egiari, baiñan ez dezagun ordea biotza gal eta adorerik laga ezer egiteke. Itxaro beti itxaropenaren aurka ere! : «Espérer contre toute espérance» frantzesez diotenez. Eta au, zergatik? Zer dala-ta?...

Ona emen arrazoiak:

1. Euskarenganako gutxi-etsipena garaitzeko burruka dugu asia ta lenengo erasoaldia irabazirik daukagu. Elizako liturjiak euskerari eman dion aipu ta entzutea ezin neurtu añakoa da. Bat batean goimallara iritxi arazi du.

2. Aur-ikastolak gero ta geiago ugaltzen ari zaizkigu. Perretxi-kuen antzera nola sortzen diran ez dakigularik ere. Euskal-kulturaren lurra, gertu, giro dagola esan nai du. Onela jarraiturik ta agintarien aldetik eragozpenik sortzen ez dirala bigarren mallako Lizeoak ere bururatzen joango dira. Onela urte gutxi barru Unibersidadeko atarian... ere ate joka gaituzute.

Ez genduen egundaño orrelako ametsik egin. Eta euskal egunkaria, euskal-teatroa ta euskal-zine, Irrasaioak eta beste aurrerapenak gere esku euki genitzakegu.

3. Onetarako euskal kontzienzia piztu bear eta gizartekiko-atsa, sozial espiritua zabaldu jende ikasi ta aundikietan bezenbat industrietako langille ta baserritarretan. Elkarrekin bat egiñik Euskal-Erri osoa ezi ta altxako dugu. Kulturaren bidez euskera indartuko da. Ez bestela.

4. Oñarria familian lenengo ta gero... eskolan dago. Euskal ikastolak bear ditugu. Eskola ikasi ta erakusteko bait da ta au egiten ez duana Pedagogia guztiaren kontra doa.

Estadua'k bere eskoletan izkera-biko, bilinguismo irakaskintza sar dezan alegin guziak egin bear ditugu. Justizia ta zuzentasunak eskatzen duana bait da eta Unesco-k emandako lege ta arauak agintzen dutena.

5. Beraz, zailtasun, eragozpen eta oztopo guziengatik ez gaitezen koldar eta lazo izan; ez dezaiogun ajolagabekeri ta eszeptismoari lekurik eman. Asmoz eta jakitez, adimenez eta gogoz jarduten ba dugu etorkizuna gurea da.

Ez naiz geiago luzatuko Linguistika ta beste aurre-iritziai buruz. Naikoa esan dudala uste dut.

Goazen azken-prejuicio bat aztertzerara.

IDEOLOJIARI BURUZKO AURRE-IRITZIA

Prejuizio au aurrerapen eta progesismoaren izenean artu oi dan aurre-iritzia da. Alegia, munduan izkuntza geiegi dirala ta elkar ondo aditzeko obe litzakela guzientzat izkuntza bakar bat izatea ta mintzatzea.

Gai au bi masailletatik begira ditek: Jakintza Zienziaren aldetik ikusten dan ikusbegia; ots, munduaren batasuna egin eta gizonezkoek elkarrekin obeto aditzeko izkuntza bakarra eskatzen duan «balizko» teoria... ustekizuna.

Gaur egun:ko «zibernetika» dala, makina ta elektriko tresnak dirala, Zibilizazioaren azken aurrerapenak zabaltzeko izkuntza bakarra bear omen...

Diteken gauza da, baiñan jakintsuek ba-dakite izkuntza «teknikoa», intelektual itz berriz eta esaera otzez betetako izkuntza hori, ez dala benetako izkuntza bat. Erderaz, ez «lengua» baizik «meta-lengua» izena ematen zaio. Euskeraz, berriz, «izkuntza-izuna» deritzakeguna. Baiñan tresna hori ez dezakegu mintza eta erabilli gure izkuntzaren orde. Arrazoizko izkera *otza* bait da. Michonneau apaizak dionez (4): «Faux intellectualisme qui ne crée rien, ou qui croit créer parce qu'il a inventé un ou deux neologismes.» Gizon aurreko, sasi-progresistok izkuntza geienak zokoratu ta mundu guzirako bat bakarra artu nai lukete. Eta ontan oker bat dago, oker bi obeto esteko: bat aurrerapena, progresoa, simplifikazioa dala uste izatea; errezkeria. Ta bigarrena izkuntza tresna teknikotzat besterik ez jotzea. Arestian aipaturiko Michonneau apaizaren arabera: «Le bon sens n'est simple ni simpliste. Il est au contraire le composé le plus harmonieux et le plus riche qui soit. C'est la réaction de tout l'être humain, c'est l'expression de l'homme total.»

Progresoa dalakoa benetan aurrerapena da, gizonaren onerako baldin ba'da; gizona, asmoz eta jakitez aberastutzen baldin ba'du. Au ez da simplifikazioan lortzen, osotasunean baizik.

Aurrerakoiek progresoa teknikan dagola uste dute. Teknika alabaiñan arrazoizko gauza da ta gizonaren almenetatik bat besterik ez. Gizona ez da teknika soillik, baizik kultura batik bat.

Teknika ta kultura ez dira gauza bera; ez dira berdiñak. Teknika arrazoizkoa da ta kultura aldiz gizonaren osotasunari dagokiona. Orregatik ez da zinez izkuntza mundu guziaren neurri ta izarian batu di-

(4) "Lettre d'un vieux grognard", Abbé Michonneau, *Ecclesia*, n° 229 Paris avril 1968.

teken tresna bat. Ideia liluragarria, bear bada, baiñan ameskeria utsa, utopia bat.

Emen norbaitek galdegin dezaidake: «Ta esperantoa zer?...» Bada arras ondo! Hori besterik da: izkera praktiko bat erri guzien arteko zabaltzea. Ez naiz orren etsai ta ezta erri txikiak ere. Esperantoaren arerio izkuntza «aundi-maundi» aberats okituak dituzute: Txina, Errusi, Ingles-Amerika ta aleman, prantses eta españera. Guri ez li-guke kalterik egingo ta pozik ar genezake kanpoan erabiltzeko etxe-rako gurea gorderik.

Eta jakiña, esperantoa ez dugu nahasi bear lehenago aitatu dugun beste «metalengua» edo teknika-izkera izunaz. Tresna onek, «Robot» bezela, Zibernetikarako balio dezake baiñan ez ordea gizonaren gogo ta espiritua betetzeko. Gizona ez bait da Teknikaren seme ta ume, jatorri goitarragokoa baizik.

Izkera ta izkuntzai buruz egindako gogoeta auek amaitzeko ga-raia da. Gai orren inguruan amaika gauza geiago esango nizkitzuteke, baiñan zuek aspertzeko beldurrak geldi arazten nau.

Zer dan izkera ta zer dan izkuntza garbi dagola uste dut.

Izkera, mintza bide da, gizona abereangandik berezten duana.

Izkera au zeaztu ta borobiltzen danean izkuntza deritzaigu.

Izkuntza erri bateko kulturaren muña. Gizona, kultura ta izkun-tza izate bereko ditugu. Egia da gizona beti aldaketan dagoala; aurre-rapenaren bidean dijoala. Orregatik kultura ta izkuntza alda ditezke. Eta onela gerta oi da, gizona gizon dan ezkerero. Ez da ezer alda ta mugi ez danik. Au dala-ta aurrekoiak eskatzen duten izkuntza baka-rrak alda-eziña izan bearke luke... ta au gizonaren izatea ukatzea litzake. Gizona gizakoi da noski ta, bakana izanagatik, besteenganako ar-emanekin osatzen du bere nortasuna.

Errialdea du berezko batasun tokia; kultura da era eta izkuntza bidea. Errialde ezberdin, kultura diferente, izkuntza berezi, au da Gizadiaren ondarea. Errialdeak kultura ta izkuntzen bidez egizatzen dira. Eta onek Gizadiari ematen dio ezberdintasunean... batasuna.


Gu, euskaldunok, batasun orietatik bat gera; Gizadia osatzen duan errialde bat gaituzu. Gizadiaren barrunbean jatorri berezi ba-tetik gatoz, gere izkuntza ta kultura ditugu eta nortasun au gure biz-ka artzea dagokigu.

Euskerari nola eutsi? Jardun ortan gabiltza euskaltzain eta laguntzalle oro. Ni baño maisu jakintsuagoak bideak erakutsi dizkigute beren lan sakon eta ederretan. Geientsuenak argitaraturik dauden ez-kero aztertu ta irakur itzazute arretaz. Nik nere motzean, orain amar urte zerbait idatzia daukat, *Eusko-Gogoa* aldizkarian, norbaitek irakur nai ba'lu-(5).

Goiko ta beeko, aundi ta txiki, guzior alegiñak eta Euskeltzaindiarenak, bere Urre-ezteien muga oroigarri ontan euskeraren onerako izan ditezela. Gure egitekoa bait da euskal kulturaren ziturik nabarriena landu ta ontzea Gizadiari eskeñiaz.

Antonio M.^a LABAYEN.

1968-X.



(5) *Eusko-Gogoa*, Bayona 1958, IX Urtea: "Euskeraren kinka gaiztoa" 74-90 orrialdeak.

Edgar Allan Poe

KARTA OSTUA

(The purloined letter)

Paris'en, 18.. gn. urtean, udazkeneko illunabar euritsu kaxkar batez, nere adiskide G. Augusto Dupinen laguntasunean arkitzen nizan, onen liburutegi txiki edo irakur-gelan, «au troisième, N.º 33 rue Dúnót, Faubourg St. Germain», itsas-aparrezko pipa batek eta erdi-ametsetan egoteak emandako atsegin biñakoaz gozatzen nuela.

Ordubete edo ba-zan ixil-ixillik geundela, Bizkitartean norbaitek, ustekabez etorrita ikusi izan ba-gindu, uste izango zuan nunbait, beste zeregiñik ez genduala, ez batak ez besteak, gelako aidea loditzen zuan keari begira egotea baño. Nik neronek ordea ba-nuen beste egitekorik; arratsalde artan bertan biok egindako elkarrizketa bateko puntu batzuk ausnartzen nengoan. Morgue kaleko gertaera hura eta Marie Roget'en iltzeari zerraikion misterioa (1), orra nere orduko gogoetak. Bi gauza oien artean alakoxe artu-eman bat bazala pentsatzen nuan momentuan, gelako atea zabaldu eta gure ezagun zar, Mr. G., Parisko Polizi-buru edo Prefeta, sartu zan. Arrera ona egin genion, gizon arrek ba-zuan alabaiña bere alde atsegiña, naiz beste aldetik purtzil xamarra izan. Gaiñera, ez genduan azken urte aietan elkar ikusten.

(1) *Morgue* kaleko bi erailtzeak eta *Marie Roget-en* misterioa, Poe'ren bi ipui. Auek eta *Karta ostuak* irukonde edo triptiku gisako bat osatzen dute.

Illunpean geunden eserita. Dupin zutitu zan krisaillu bat piztutzeko asmoz; ez zuen piztu baña eta berriz exeri zan, G'k esan bait-zuan guri konsultatzera, edo obeki esan, nere lagunaren iritzia eskatzera etorria zala, naspil aundia sortu izandako egiteko ofizial baten gainean.

—Gogoeta-egitea eskatzen duen kasua baldin bada ori —oarerazi zuan Dupin'ek, metxa zegoen bezela utzirik, illunpetan aztertuko dugu obeto.

—Orra zure bitxikerietarik bat! (2) esan zuan Prefetak. Onek, ezin konpreni zezakean edozer gauzari «bitxi» deitu oi zuan, eta onela, ezin konta ala «bitxikeriz» inguratua bizi zan.

—Bai alegia! erantzun zuan Dupin'ek, etor-berriari pipa bat eskeñiaz eta alki bigun bat arengana bultzatuaz.

—Eta, galdetu nuan nik, zein duzu oraingo korapillo ori? Beste erailtzeren bat izango ez al da gero!

—O, ez olakorik! Egia esan, oso eginbide erraza da bera, eta ziur nago, geurok moldatu gindezkeala, ederki moldatu ere, iñoren laguntzarik gabe. Bañan nik pentsatu dut Dupin'ek atsegín izango zuala aren xetasunak entzuteaz, gauza bitxi-bitxia baita...

—Erraza... eta bitxia! —Dupin'ek esan.

—Bai orixe... eta ez orixe. Bata ta bestea, orratx. Gauza da, gu guziok estu-estu ibilliak gera, egiteko onek, erraza dalarik ere, burugaltze aundia ekarri digu-eta.

—Gauzaren erraztasuna bera liteke, apika, bide zuzenetik okertzen zaituztena, esan zuan nere lagunak.

—Ori da zozokeria, gizona! erantzun zuan poliziburuak, parrari ezin eutsirik.

—Misterioa, nork daki, argitxoegia izaki...

—O Jaungoiko maitea! Nork noiz entzun du olakorik?

—...agiritxoegia edo...

—Ja, ja, ja! Ju, ju, ju! Jo, jo, jo! deader egiten zuan gure bixitalariak, ito bearrez. —Oi Dupin, ni parrez lertzea nai duzu ala?

Orduan nik: —Eta zer da, gero ta gero ere, zure egiteko ori? galdetu nion.

—Esango dizuet bai —erantzun zuan Prefetak, alkian lasai katuaz eta pipatik ertendako ke-zirimol luze lodiari behako (3) pentsakor bat emanaz. Itz gutxitan kontaktuko dizuet. Asi baño len orde, utzi zadazute oar bat egiten, alegia, nere zer au, ixil-ixillean

(2) *Bitxi* (Lapurdi ta Baxe-Nabarre'ko itza): gauza arraroa, xeblebre edo oiez-bezelakoa. ("Bakan eta arrigarria: Esaera bitxia, zuk jalki dozuna ere!") —Etxeberria Juan Anjel'en Euskal-iztegi laburra.)

(3) Behako: begiratu bat.

eukitzeko gauza dala, eta norbaiteri esan diodala igarriko balute, orain dudan kargua bera ere galduko nukela... bai segurik!

—Asi zaitez... —nik.

—Edo-ta... ez asi. —Dupin'ek.

—Tira ba. Goren-goreneko leku batean auxe jakiñazi didate nerineroneri: ajol aundiko dokumentu bat ostua izandu dala errege-erregegiñen gela batetik. Lapurra ezaguna da; eztago onetan dudarik, osutzen ikusi duteta. Eta auxe ere ba-dakite: dokumentua aren eskuetan arkitzen dala oraindik.

—Nola dakite ori?

—Argi ta garbi ageri da ori, dokumentuaren beraren izakeratik, bai eta lapurraren eskuetatik irten ezker bereala agertuko liraken zenbait ondorio ez agertzetik ere; bestela esan, lapurrak hura ez erabiltzetik, asmo bide duen bezela.

—Mintza zaitez argixeago —esan nuan nik.

—Ongi, geiago esatera arriskatuko naiz. Paper orrek, bada, ematen dio bere oraingo jabeari nolabaiteko eskubide, al-izate bat, al-izate onek indar aundi-aundia duen nunbaiteko leku batean...

Agidanez, gure Prefeta diplomatikoen mordollo-zalea zan.

—Oraindik ere eztut zearo konprenitzen —esan zuan Dupin'ek.

—Ez? bada... dokumentu ori irugarren pertsona bati erakutsi ezker —beronen izena ez dut azaldu nai— zalantzan jarriko litzake goren-goreneko aundiki baten ohorea; eta gauza orretzek ematen dio paperaren eusleari eskubide hura bestearen gaiñean, alegia, ohorea eta pakea arriskuan dituan aundiki arren gaiñean...

—Bañan eskubide ori iristeko —egin nuan nik— lapurrak ostutako aundiki orrek bera ezagutzen duela jakin bear luke. Nor atrebituko litzake ba...?

—Lapurra —jarraitu zuen G'k— D' ministroa da, eta ori zernai egitera atrebitzen diranetakoa dugu, bai gizon bati dagokiona ta bai ez dagokiona ere. Lapurreta au egitean, azkarra bezin ausarta dala agertu du. Dokumentua —karta bat, labur esateko— ostutako aundi-kiak errezibitua zuan, erregeren «boudoir»en bakarrik zegoan batean. Hura irakurtzen ari zala, beste aundikia —nor eta berak karta ezkutatatu nai zion huraxe, ain zuzen, sartu zan ustekabean. Estu ta larri, kajoi batean sartzeko alegiñak egin zituan; alperrik ordea, eta bertan bera, mai baten gaiñean utzi bear izan zuan. Zuzenbidea zegoen bazterra orratik, agirian gelditu ta barru-aldea berriz, azpian gordeta. Augatik ez zion kasurik egin sartu-berriak. Une artantxe sartzen da D.' Ministroa. Begi zorrotzekoa izaki, bereala ikusten du papera, esku-letra ezagutu, aundikiaren estutasuna somatu ta beronen ixillekoaz jabetzen da. Gero, eguneroko eginkizunetan jardun ondoren —zarra-parra, oi duenez— karta bat ateratzen du paper-zorrotik, bes-

tearen antzekoa; iriki ta irakurtzen duelakoa egin eta gero lenbizi-koaren ondoan lagatzen du. Bere eginkizunetara berriz ere biurtuta, ordu-laurdentxo batez jarduten du, erreinuko gauzen gainean. Azkenik, agur-egiterakoan karta jasotzen du maietik... berea ez ordea, bestea baizik. Onen jabea, alako jokua ikusi arren, ez zan noski txin- tik ateratzen ausartu, beste aundikiaren bildurrez. Aldegin zuen Mi- nistroak, beraren karta hura —inportantzi gabeko bat— mai gainean utzita.

—Ortxe duzu —esan zuan Dupin'ek niganontz erdi jiratuta— ortxe duzu eskubidea iristeko zuk eskatzen zenduan baldintza: ba- daki lapurrak, ondo jakin ere, ostutako aundikiak bera ezagutzen duela.

—Bai —prefetak erantzun— eta onela eskuratu duen ahal-izateaz ederki baliatua da zenbait illebetez onuntz, beraren protxurako eta puntu oso kaltegarri bateraño. Ostutako aundikia etsi-etsirik dago, gero ta etsiago, karta bereganatu bear duala. Au ordea ezin egin li- teke onez-onean eta agirian. Azkenik, itxarogabetua, egiteko ori nere gain uztea erabaki du.

—Ezin aukeratu, ezta asmatu ere, ajente azkarragorik esan zuan Dupin'ek ke-laño baten barru-barrutik.

—Zurikatu egiten nauzu zuk... baliteke ordea, beste nunbait ere zuk bezelaxe pentsa dezaten...

—Karta, zuk esaten duzun bezela —nik esan nuan— Ministroaren eskuetan dago oraindik, argi dago ori; bera eukitzeak, eta ez bera erabiltzeak ematen bait-dio alako ahal-izatea. Karta erabilli ezkeru, agur ahal-izateari...

—Egia, eta uste sendo orrexek eman dit kemena eginbideari eki- teko. Ministroaren jauregia, mandiotik sotorano arakatzea (4) izan nuan lenengo egitekoa; eta nere buru-austerik aundiena aldiz, ara- katze ori arrek ez susmatzeko moduan egitea. Ezer somatzen baldin bazuan, arrisku aundia sortu zitekeala-ta, kontuz ibiltzeko agindua eman zidaten.

—Baiñan —esan nuan nik— ez zenduan orretan bat ere buru- austerik, zuk! Parisko poliziak maiz askoan egiña du eta, orain bai- ño lehen, egikizun ori...

—Egia da! Eta orrexegatik ez nuan itxaropena galdu. Ministroa- ren oiturak eta ibillerak ere asko zelaitu zidaten bidea. Sarritan pa- satzen ditu gauak etxetik kanpo. Zerbitzari gutxi ditu, nagusiaren ge- latik urrunxko lo egiten dutenak; eta geienak napolitarrak izanik, beti arkitzen dira ordituak izateko prest. Nere giltzak, dakizutenez,

(4) Arakatu: arduraz, arretaz aztertu edo miatu.

Paris'ko edozein ate zalbadu dezakete. Iru illebetean, gabeko ordu geienetan, jai ta aste egona naiz, jo ta ke, nerau egon ere, D'ren jau-regia miatzen. Izen ona dijoakit onetan. Eta —inportantzia aundiko ixilleko bat agertzen dizuet onenbestez— eskeiñitako saria izugarri aundia da. Onela bada, azterketari jarraitu nion, amorerik eman gabe, aliketa lapurra ni baño maltzurrago dala etsi nun arteraño. Paperak gordetzeko egoki izan zitezken bazter eta zokondo guziak miatu ditut, nik uste.

—Bañan —oarrerazi nuan nik— ez ote liteke gertatu, Ministroak karta euki arren —eta badauka noski— etxeaz kanpo gorderik euki-zea?

—Orrek ez du itxura aundirik —esan zuan Dupin'ek— Gaur egunean, korteko gauzen egoera berezia dala-ta, batez ere D., daki-gunez, sartuta dabilleneko sator-lan oiek dirala-ta, karta hura, berak nai duenean, berari komeni zaionean alegia, erabilli ahal izatea, gauza txit inportantea de beretzat, dokumentua eukitzea bezin inportantea bai, esango nuke.

—Berari komeni zaionean erabilli ahal izatea? nik galdetu.

—Edo-ta, naiago ba-duzu, ondatu ahal izatea.

—Izan ere, esan nuan, papera etxean dagola ezta dudarik. Gai-ñerakoaz, eztugu uste izan bear, Ministroak aldean daramanik.

—Ez noski, argitu zuan Prefetak. Bi bider, kalean, gezurrezko lapurrek oldartua izandu da, ta bere sakelak ondotxo miatuak, ne-ronen begipean.

—Alperreko nekea —esan zuan Dupin'ek—. D'ori, nere ustez erabateko zoro bat ez izanik, alde-aurrez izan bear zituen igarri ka-leko oldar oiek eta...

—Erabateko zoroa ez, apika; baiñan poeta da; zoroaren urrengo beraz, nik uste.

—Egia —esan zuan Dupin'ek pentsakor, bere itxasaparezko pi-patik ke-motots luze bat boteaz—. Egia da ori, bai... nerau bertso-gintzan iñoiz saiaturia izana ba naiz ere...

—Ea azterketa orren xeetasunak ematen dizkiguzun...

—Bai pozik. Gauza da, bear aña denbora artu ta nunnai miatu genduala. Osorik eta aspaldidanik nago ni gauza oietara oitua. Egoi-tza guziaz jabetu nintzan, gelarik-gela, bakoitzari astebeteko gau gu-ziak ematen nizkiola. Lenbizi, gela bakoitzeko tresneria aztertu gen-duan, kajoi guztiak zabalduaz, bai agiri ziranak eta bai agiri etzi-ranak ere. Zuek badakizute noski, ongi ikasitako polizia batentzat ez dagoala munduan ixilleko kajoirik. Asto galanta da, alajaña, orre-lako azterketa batean kajoi «izkutu» oietakoren bat arkitu gabe uz-ten duan polizia! Gauza errezagorik! Ba-dira edozein gelatan kon-tuan artzeko zenbait utsune ta zabalgun, eta guk ere ba-dauzkagu

orretarako erregla zeatzat. Lerro baten berrogeitamarrena ere (5) itzuriko ez litzaiguke. Ontzi-apalategiak eta kristal-arakak, bitrinak, ikusi ondoren, alkietara itzuli genituan begiak. Aburdikoak (6) mia-tzeko, zuek dakizuten orratz luze-luze aiek erabili genituan. Maieta-tik ere, gaiñeko olak jaso genituan.

—Eta ori zertarako?

—Batzuetan, norbaitek ezer gorde nai duanean, maiaren naiz onen gisako beste mueble baten gaiñaldea jaso, zangoetako batean utsune bat egin, utsunean gordegaia sartu eta gaiñaldea berriz ipin-tzen du bere lekuan. Era berean erabili oi dira oe-zangoak ere, be-ren goiko eta beheko muturrak ustuz.

—Baña, ez ote liteke utsunea igarri, soiñu-bidez, kanpo-aldetik jo ta ateratzen dan otsa adituaz?

—Ez iñola ere, baldin gauza sartu ondoren, algodoia naikoa zu-loan sartzen bada. Gaiñera kasu ontan, ez aztu, zaratarik gabe jardun bearrak giñan.

—Baiñan zuk ezin txikitu zeñituen, ezin zatikatu mueble guztiak, alegia, zuk esandako moduan zerbait gordetzeko onak izan zitezken mueble guztiak... karta bat estutua izan diteke, zorroztua, kiribil (7) me-me bat biurtu arteraño, galtzerdi-orratz aundi baten itxura ematen zaiola, eta itxura orrekin alki-makillen batean, esaterako, sartua. Ez ote zenituen alki guztiak zatikatuko zuk, noski...!

—Ez, jakiña. Ba genduan oberik. Jauregiko alki guzien makillak, eta zer esanik ez, mueble-mota guzietako lotuneak ere (8), indar aundiko lupa baten bidez aztertu genituan. Ikutu-aldi berri baten arrastorik egon balitz, bereala ikusiko genduan; ginbeletak ateratako zerrauts-pikor bat, esaterako, sagarra bezin aundi agertuko zitzaigun. Orobat, likatze (9) berririk egon balitz, edo-ta makillen lotunetan tarteren bat bear baño zabalagorik... aski genduan orrenbestez gorde-lekua somatzeko.

—Ixpilluak ere ikus-miratuko zenituzten noski... eta ixpilluen barneko tartea... eta oak, eta oe-estalkiak eta kortiñak, errezelak eta alfonbrak...

—Noski baño noskiago. Eta etxeko tresna guzi-guziak orrela ikus-miratu ondoren, etxea bera ikertu genduan. Onen luze-zabal osoa sailka banatu genduan, sail bakoitzari bere numeroa ematen genio-

(5) Berrogeitamarrena: luze-neurri bat, bi milimetro gutxi gora-bera dituana. (Quincuagésimo.)

(6) Aburdiko: almohadón.

(7) Kiribil: rosca. Kiribildu: enroscar.

(8) Lotune: bi atal edo pieza elkartzen, lotzen diran lekua.

(9) Likatze: encoladura.

la, bat ere azturik geldi ez zedin; gero sail oiek guziak, bana-banaka, ikertu genituan luparen bidez, len bezela; baita aldemeneko etxeak ere.

—Aldameneko etxeak ere! oju egin nuan. Baña, ori lan neko-soa!

—Ala da bai. Bañan saria ere... hura alakoa.

—Etxe-inguruko lur-bazterrak ere bai?

—Orube guzia, adrilluz estalia dago; neke gutxi izan genduan orrekin, aukeran. Adrilluen arteko goroldioa ikertzean, iku-gaberik zegoala oartu giñan.

—D'ren paperak ere eta bere apalategiko liburuak ikertuko zemituzten, zer esanik ez...

—Bai benetan. Paper-pillo eta paper-sorta guziak iriki ditugu; liburuak oster, iriki ez-ezik, orriz-orri begiztatu ere bai, ta ez astindu bakarrik, guretako ofizial batek edo bestek egin oi duan bezala. Liburu-estalki bakoitzaren lodiera, arretarik aundienaz neurtu genduan eta lupaz alik zorrotzen begiratu. Estalki oien artean ezer sartu berririk egon balitz, ez zitzaigun igarri gabe geldituko. Ba-ziran an bospasei liburu, azalgintzatik (10) etorri berriak; oiek ere aztertu genituan arretaz, luzeran, arako orratz aiekin.

—Alfonbraen azpiko zolak ere, miatu?...

—Jakiña. Alfonbra guziak kenduta, azpiko zoladura ikertu genduan, lupa-bidez.

—Paretetako paperak?

—Bai.

—Eta ardangelak?

—Bai ardangelak ere.

—Orduan —esan nuan nik— oker ibilliak zerate eta karta ezta jauregian arkitzen, zuk bestela uste arren.

—Arrazoia ez ote duzun bildur naiz, esan zuan Polizi-buruak. Eta orain, Dupin, zer kontseju ematen didazu?

—D'ren etxea ondo miatu berriz ere.

—Alper-alperreko lana litzake ori gero! Karta jauregian eztagoala ziur nago, bizi naizela bezin ziur...

—Eztut kontseju oberik orde. Kartaren zeazkuntza (11) izango duzu noski.

—Ori bai. —Eta orduan Prefetak, agenda bat aterata, galdutako dokumentuaren azalpean zeatz bat irakurtzen asi zitzaigun; nolakoa zan barrutik eta, bereziki, nolakoa zan kanpo-aldetik.

(10) Azalgintza: encuadernación.

(11) Zeazkuntza: azalpea, deskripzioa.

Zeazkuntz ori irakurri bezin laister, alde egin zuan gure gizonak, inoizkorik erorien.

Illabete-garrenean beste ikustaldi bat egin zigun. Lengo patxada berean arrapatu ginduan. Pipa bat artu ta eseri zan eta ajolik gabe gozatu gauza batzuez asi zan mintza ta mintza. Azkenean nik:

—Eta, G.? Kartaz zer berri? esan nion. —Etsita egongo zera nunbait, Ministroa arrapatzea txantxetako gauza ez dala?

—Deabruak daramala! Alaxe, da, bai... egin dut alaere Dupin'ek burutan ipiñi zidan bigarren azterketa ori. Lan alperra ordea; bane-kian nik, aurretiaz jakin ere.

—Zenbatekoa zala esan zenduan —galdetu zuan Dupin'ek ziri-ka— zenbatekoa, eskeñitako saria?

—O... ori... puska galant ederra, aundi-aundia benetan. Eztut esan nai zenbatekoa dan, ain zuzen; auxe bai esango dut: 50.000 liberako (12) txeke bat neronen sakeletik emango niokela, penarik gabe, karta ori billatu ta ekarriko lidakenari. Au da egia, aren garrantzia egunetik egunera aundiagotzen dijoala. Eskupekoa ere, orain berean duplikatu egin dute; baña, iru aldiz aundiagotuta ere, ezin egin nezake nik, orain arte egiña baño geiago.

—Bai gizona! esan zuen Dupin'ek, pipa-lañoen artetik itzak narraztuaz. Nik uste dut... egia esan, G'..., zuk ez duzula zure burua aski estutu eginbide onetan... azken-azkeneraño ez beintzat... Zer-bait geiago egin ahal zendukela... ez? uste dut.

—Nola? Nolatan baña?

—Orra... (puf, puf, puf, pipari tiraka)— kontsejua eskatuaz, orratx, gai onen gainean (puf, puf, puf). Gogoratzen al zera... (puf, puf) Abernethy'ren pasadizuaz?

—Ez nik! Inpernura zure Abernethy edo dalako ori!

—Bai, inpernura, gogo ba-duzu, eta bejjondaiola. Beiñola bada, dirudun zurkaitz bati, Abernethy zeritzan sendagille orrengandik diagnostiku bat, utsean, ezer ere pagatu gabe, atera bear zuala bururatu zitzaion. Eta bein batean, lagun batzuen artean arekin izketan zegoala, alegia ta deus ez azaldu zion bere «kasua», besterena zalako itxuran. —Irudi egin dezagun —esan zion zurkaitz arrek— olako ta alako erizantzuak (13) dituala... bai? Eta orain, sendagille jauna, zer artzea aginduko zenioke berari?

—Zer artzea? erantzun zuan Abernethy'k —ba... kontseju artzea, gizona, kontsejua... bai orixe! (14).

—Baña —esan zuan Prefetak suminduxea— ni ere kontsejua

(12) Libera: franco, Franzia'ko dirua.

(13) Eri-zantzia: sintoma de enfermedad.

(14) Kontsejua: kontsulta esan nai du (ingl. "advice").

artzeko gertu nago, baita beragatik ordaintzeko ere... nik emango nioke, benetan eman ere, 50.000 libera lan ontan lagunduko lidaken edozeini!...

—Ori orrela dala —erantzun zuan Dupin'ek kajoi batetik txekeliburuxka bat atereaz— esan duzun kantidade orretako txeke bat egingo didazu, bai? Bera firmatuz gero, karta eskuan utziko dizut.

Txundituta gelditu nintzan ni. Prefetak, tximistak jota zirudian. Alditxo batez muturik eta geldirik egon zan, nere lagunari begira, ao-zabalik, ezin siñisturik, begiak zuloetatik iges egiteko zorian. Gero, bere buruaz nolerabait jabetuta, luma bat artu zuan, eta iruzpalau zalantz-aldi ta beste ainbeste behako zoro egin ondoren, izenpetu zuen, azkenean, 50.000 liberako agindua, eta mai gaiñetik eman zion Dupin'eri. Onek arreta aundiz ikuskatu ta sakel liburuxka batean sartu zuan. Orrengoan, «escritoire» bat zabaldurik, karta bat artu ta Prefetari eman zion. Kargudun onek, pozez lertu-urren, hura arrapatu, esku dardartsu batez iriki, barrukoari begikada arin bat egotzi ta gero ostopozoka ta bilin-balaunka ate aldera joanda gelatik irten zan, zilimonirik egin gabe, eta iztxo bat ere gaiñeratu gabe, Dupin'ek txekea firmatzeko eskatu zionez geroztik.

Hura aienatu ondoren, nere adiskidea argitasunak ematen asi zan.

—Paris'ko uri-zaingoa (15) —esan zuen— guztiz azkarra da bere eginbidean. Tematsua da, asmakorra, amarrutsua, bere lanak eskatzen dituan gora-behera guzietan ederki ikasia. Orrexegatik, G'k, D'ren etxea nola arakatu zuten kontatu zigunean, konfiantza osoa izan nuan nik, bear bezalako miaketa egiña zutela... beren lana zabaltzen dan mugaraño.

—Beren lana zabaltzen dan mugaraño?

—Bai. Artutako neurriak, beren klaseetan onenak ez-ezik, ezin obekiago ezarriak ere izan ziran. Karta bada, poliziaren billaketa-barrutian egon balitz, mutiko oiek, zaude ziur, arkitu egingo zuten.

Irri besterik ez nuen egin nik. Berak ordea, benetan esaten zuan guzia.

—Neurriak beraz, onak ziran, izan —jarraitu zuan— Auxe zuten akatsa: kasu berezi onetarako eta alako gizonarentzat desegokiak izatea. Ba-du Prefetak, bere korapilloak askatzeko, antze-aundiko maratil-xorta bat, molde jakin aldakaitz bat; eta beronekin egokituazten ditu bere asmo guziak, naiz dirala aundi, naiz dirala txiki, Prokusto'k bere oatzea erabiltzen zuan bezelaxe erabilliaz, alegia. Eta irutarik bitan poto egin oi du bere lanean; batzutan, sakonegi jokatzen dualako, bestetan ariñegi. Ba-dira amaika eskola mutil, bera baño arrazoikari obeak diranak. Bat ezagutu nuan nik, zortzi urtetsu-

(15) Uri-zaingoa. Policia, servicio policial.

koa, «baña ala biña» deritzan jokuan jendeak arriturik uzten zitua-
na, inoiz ere galtzen ez zuan-eta. Joku au txit erreza da. Jokalari
batek kanika pillo bat esku batean gorde ta kontrakoari galdetzen
dio, ea pillatxo «bana ala biña»koa dan. Onek igarri ezkeru, kanika
bat irabazten du; bestera bat galdu. Mutiko arrek, ikasle guzien
kanikak irabaziak zituan. Ba-zuan noski, ain ederki igartzeko, bere
asi-masi edo printzipioak; bere kontrakoaren maltzurkeria noraño-
koa zan igartzeko ta neurtzeko gaitasuna, alegia. Esate baterako:
irudi egizu kokolo inoizo batekin ari dala jokuan, eta onek, esku itxia
jasota galde egiten diola: «Bana ala biña?» Gure mutikoak bana
erantzunda galdu egiten du. Bigarrenean berriz irabazten du, bere
buruari onelaxe esan bait-dio: «Kokolo onek biña jarri dik lengoan,
eta oraingoan bana jartzeko tontoa naikoa izango duk. Bana esango
diat nik, ba.» Eta bana esan da irabazten du. Beste bein, lengoa aña-
ko kokolo ez dan beste batekin, buruak onelaxe emango dio: «La-
gun onek, lengo aldian «bana» esan dudala ikusi dik. Bigarrenekoan,
lengo kokolo arrek bezala, bere lenengo ustea «bana» jartzea izango
duk, baña gero, bere maltzurkeriak esango zioek errazegia dala ori,
eta azkenik «biña» jartzea erabakiko dik, len bezela. Nik beraz,
«biña» esango diat.» Bai esan eta bai irabazi ere. Orain zuk esan:
mutiko orren arrazoiketa, bere lagunak «suertia» deitzen zutena, zer
ote da gero ta gero ere?

—Arrazoikariaren adimena, bere kontrakoaren adimenarekin bat
egitea, besterik ez, erantzun nion.

—Orixe bada. Eta nik, garaipena ematen zion bat-egite biribil ori
nola egiten zuan galdetu nionean, ona mutikoaren erantzuna: «Nor-
bait, azkar ala tentel, on ala gaizto ote dan, edo-ta nerekin dagoan
unean nolako usteak ote dituan jakin nai ba dut, nere arpegia bere
arpegiaz batera itxuratu oi dut, albait zeatzen; alegia, berak arpegia
nolako, nik ere alako; eta gero zai gelditzen naiz, alik-eta nolako
pentsamentu ta sentimentuak nere buru-biotzetan sortzen diran so-
matu arte, ea oiek neronen arpegiarekin bat ote datozen...» Muti-
koaren erantzun ori, La Rochefoucauld'i, La Bruyère'ri, Macchiavel-
lo'ri edo Campanella'ri leporatu oi zaien sasi-sakontasuna baño asko
sakonagoa da gero!

—Eta, zenbat eta zeatzago neurtzen duan arrazoikariak bere kon-
trarioaren adimena, zeatzago beteko da bion arteko bateratze ori,
ez al da ola?

—Orrexeri dagokio gauza. Eta bateratze ori egiten ez dutelako
uts-egiten dute, orren sarri, Prefetak eta bere gizonak; eta baita, be-
ren kontrarioaren buru-indarra, adimena alegia, gaizki edo bat ere
neurtzen ez dutelako ere. Ez dute onen azkartasuna gogoan artzen,
beraiena baizik; eta ezkutu baten billa dabiltzanean, eurak nola iz-

kutatuko zuten moduari begiraten diote soil-soillik. Gauza batean bai, guztiz zuzen daude, alegia, beren azkartasuna arrunteko jende-arentzat ona dala; bañan, oi-ezbezelako azkartasuna duan bat edo beste topatzen dutenean, muturruts gelditu oi dira, olako orrek azpiratuta. Beti gertatzen zaie ori, gaizkillea eurak baño azkarrago danean, eta maiz asko, tentelago danean ere. Ala ere, ez dute beren egin-moldea aldatzen; geienera jota ere, ustekabeko kasuren batek zirikatzen dituanean —eskupeko aundi-aundiren batek, adibidez— beren egin-molde zahar oiek ahal dan urrutiraño bultzatzen dituzte, beraien astapenak (16) ordea ezertan ere aldatzeke. D'ren kasu onetan, esaterako: zer egin dute bada, arako egin-molde edo sistema hura aldatu ta berrizatzeko? Deusik ere ez. Zer dira bestela arako zulatze oiek? Zer, orratz-bitarteko probaketak eta arakatzeak, eta lupa-bidez egindako miaketa aiek guztiak? Eta zer, egoitza osoa sailkatu ta sail bakoitzari numero bat ipintzea? Zer da guzti ori, diot, billaketa-molde uts bat baizik, ahal dan urrutiraño eramana? Eta molde orren oñarria, nun dago? Begira: Prefetak, gizon askoren buru-indarra, azkartasuna, aztertu ondoren, au nolakoa ta norañokoa dan ezagutu ondoren, ezagutza au oñarrizat arturik, billaketa-molde batzuk asmatu ditu, bere lanerako onartu, eta gero, lan ontan luzaro ta beti era berean arituaren arituaz, oituraz bezela erabiltzen ikasi du. Ez al duzu ikusten, gauza jakintzat jotzen duela orrek, karta bat izkutatu nai duan edozeñiek, beti aukeratuko duala ongi gordetako lekuren bat? Ez du uste izango, noski, leku ori, nai ta ez, ginbeleta-bidez alki batean egiñikako zuloa izango danik, bañan bai, orren antzeko besteren bat beintzat. Gorde, izkutatu, nolaz edo alaz estali... orra or, beti ta beti, gordetzaillearen asmoa... Prefetaren iritzian.

Eta, ez al duzu ikusten, zera, olako gordelekuak, ola-alako kasuetan eta irudimen eskaxeko pertsonak bakarrik erabilliak izaten dirala?, izkutaldi guztietan izkutatzeko modu biurri ori erabillia izan dala uste izatekoa da beraz; eta ala, gauza arkitzeko, ez dute billazailleak oso burutsu eta azkarrak izan bearrik; aski dute borondate oneko, tematsu ta arretatsu izan. Eta garrantzi aundiko kasua danean —edo, polizien begietan gauza ber-bera dana, eskupeko aundiren bat somatzen dutenean— doai oiek ez oi dute sekulan ere utsik egiten. Orain ulertuko duzu zer esan nai nuan, lenago zera esaten nuanen, alegia: karta ostua Prefetaren miaketa-barrutian egon balitz —bestela esan: baldin karta, Prefetak uste zuen moduan gorderik egon balitz— hura arkitzea gauza ziurra zala. Kargudun au berriz, aboa bete ortz gelditua da. Eta badakizu zergatik? Ministroa zoro uts bat dala uste dualako, olerkari izena irabazi dualako-ta beste gabe.

(16) Astapena: asi-masiak, printzipioak.

«Ero guztiak olerkari dira.» Ona Prefetaren iritzia, eta iritzi auxe aintzat arturik, eta «batez-beste» edo «non distributio modii» deritzan legez azturik, olerkari guztiak ero batzuk dirala pentsatzera iritxi da.

—Baña, berau al dugu olerkaria? galdetu nion. Badakit bi anai dirala, eta literatura-arloan bi biak irabazia dutela entzute ona. Ministroak, nik dakidanez, tartekien kontuaz (17) idatzi omen du, oso jakintsuki, bai orixe. Matematikari da au, beraz, ez olerkari.

—Oker zaude, ondotxo ezagutzen dut nik. Bata ta bestea da. Olerkari «eta» matematikari izanik, ongi arrazoikatu bearra zan; matematikari utsa izan balitz, ez zuan ifiolaz ere arrazoikatuko, eta ala, Prefetaren eskuetan egongo zan.

—Arritu egiten naute zure ustekizun oiek, mundu guztiak uste duanaren kontrakoak dira-ta. Gizaldiz-gizaldi ongi mamitutako uste ta iritziak urratu nai izango ez dituzu gero! Munduaren iritzira eta aspaldi ezkeroz, arrazoirik bikaiñena, berebizikoena, «par excellence» alegia, matemati-arrazoia da, ain zuzen ere.

—«Il y a à parier —erantzun zuan Dupin'ek, Chamfort aotan artuaz— que toute idée publique, toute convention reçue, est une sottise, car ella a convenue au plus grand nombre.» Matematikariak, egia esan, beren alegiña egin dute zuk aipatzen duzun uste oker ori zabaltzeko, uste okerra alaere, naiz guztiak zuzentzat euki. Antze aundiz, «analisi» itza, algebrari ezartzen oitu-erazi gaituzte. Obe zuten antze ori beste nunbait erabili balute... Frantsesak izan dira xikana orren zabaltzailleak. Baña, itzak benetan artzekoak baldin badira, ots, itz baten baliotasuna eta adiera, bera nola erabiltzen dan modutik agertzen bada, orduan... bai alafede! «analisi» itza ba-datorkio «aljebrari»... alegia, latinezko «ambitus» itza, anbizioneari datorkion bezelaxe, edo «religio» errelijoari, edo «homines honesti» gizon prestuen saillari...

—Paris'ko zenbait aljebralarirekin eztabaidan sartua ikusten zaitut... baña tira, segi zazu.

—Auzipean jartzen dut nik, lojika soillez ez-baña beste edozein bidez landutako adimenaren indarra, gaitasuna... labur: baliotasuna. Gezurtzat jotzen dut bereziki matematika ikastetik ateratzen dan arrazoia. Itxuraren eta kopuruaren jakintza dira matematikak. Matematika-arrazoiketa, itxura ta kopurua lojikaren bidez aztertzea besterik ezta. Okerrik aundiena auxe da: aljebra «soilla» dalakoaren egiak ere, egia abstrakto, edo egia orokarrak (18) dirala uste izatea. Eta

(17) Tartekien kontu: cálculo diferencial.

(18) Orokar: jeneral.

oker ori ain da aundia, arriturik nago nola guziak egiazat artzen duten. Matematiko-axiomak ez dituzte nun-naiko ta noiz-naiko egiak agertzen. Elkarrekiko (19) egiak diran aiek —itxura ta kopuruareki-koak— gezurrak izan ditezke, askotan, moral-barrutian. Gezurra izaten da, moral-jakintzan, zati guzien batuketa, osoaren añaakoa dala. Kimi-jakintzan ere, uts-egiten du axioma orrek. Ar ditzagun bi motor, bat 10 zaldi-endarrekoa, bestea zazpikoa; biak alkartuta ematen duten indarra, ezta 17 zaldi-endarrekoa nai ta nai ez izango.

Ba-dira beste matematiko-egia asko, elkarrekiko, edo errelaziozko egiak baizik ez diranak; bañan matematikariak, oituraz, bere egia mugatuetatik ondoreak ateratzen ba-dakite, egia oiek nun-naiko ta noiz-naikoak balira bezela... munduak uste duan bezela, alegia. Bryant'ek «Mythology» deritzan bere liburu jakintsuan, aren antzeko oker-iturri bat aipatzen du, onela diolarik: «Naiz ta jentillen ipuiak iñork siñistu ez, sarritan aztu egiten zaigu au, eta aietatik ondoreak ateratzen ditugu, egiazko gertaerak balira lez.»

Aljebrealariak berriz eurak ere jentillak izaki jentillen ipuiak egiazat artzen dituzte, ondoreak aietatik atereaz; eta egiten dute ori, ez azkorrak diralako, ez ipuiak dirala aztutzen zaelako, baizik-ere ezin konprenituzko buru-auleri bat sufritzen dutelako. Laburki: nik ez dut iñoz topatu matematikaririk, bere ekuazioez eta sustraiez kanpo konpianza merezi duenik; ezta bat ere, $x^2 + px = q$ dala, bere baitan fedezko artikulutzat artzen ez duenik. Esaiozu, txantxetan berderik eta gustokoa bazaizu, esaiozu zalduntxo oietako bati, $x^2 + px$ ori, noizpait ere ba-ditekela q ez izatea uste duzula; eta zure uste ori adirazi ondoan, anka egin zazu alik laisterren, bestela muturreko bat emango dizu seguru asko.

—Onenbestez esan nai dut —jarraitu zuan Dupin'ek, nik bere azken ateraldiari irri egiten nion bitartean— zera, ministroa matematiko soilla izan balitz, Prefeta txeke au neri emateko premian arkituko ez zala. Nik ordea, bai matematikari ta bai olerkari zala jakiñik, olako gizonak eskatzen zituen neurriak artu nituan, berari zegozkion zertzelada guziak ere kontuan eukita: kortetarra zala, sator-lanetan trebea zala... olako gizon batek, pentsatzen nuan, jakin bear zuen, ondo jakin ere, polizien jardunaren berri; igarri bear zituan —eta igarri zituala orain badakigu— kalean sufritutako ekiñaldiak; aurrez ikusi bear zituan bere etxean egindako billaketak. Aren gabazko aienaldiak, Prefetak lagungarritzat artzen zituanak, nik maltzurkeriak bezela ikusten nituan, alegia, Prefetari azterketa lasai bat egiteko aukera emateko pentsatuak, dokumentua jauregian ez zegoala lenbailen etsi zezan... eta bai etsi zuen alajana! Somatu ere

(19) Elkarrekiko: relativo.

nuan, arestian eta nolabait ere azaldu dizkitzudan ustekizun oiek, alegia: poliziak izkutuki-billa ari diranean erabilli oi dituzten asi-masi aldakaitz oiek, somatu nuan, diot, ministroak ere kontuan artu bearko zituala nai ta ez. Eta orrexegatik arrunteko gordelekuak ar-buiatu bear zituala. Ezin izan zitekean orren begi-lauso —egin nuan neregan— zera ez ikusteko, alegia, bere hoteleko zokorik izkutuena ere, agiriko arasak bezin zabal agertuko zirala Prefetaren begi, saio, ginbeleta ta lupa guzien aurrean. Ikusi nuan azkenik, errextasun al-dera makurtu bearra zuala, bere gogoz ezpazan ere, beste biderik etzualako beñepein.

Gogoratuko zera nunbait nola eman zion parrari Prefetak, gure lenengo elkarrizketa artan, nik esan niolarik misterio au, agiri-agi-rikao zalako bear-bada iruditzen zitzaiola orren illun.

—Bai egia... aren algarak! Parrez lertu ez zanean!

—Bai... Ba-dira materia-munduaren eta materia-gabekoaren ar-tean antz aundiak ugari. Au dala-ta, egi-itxura eman diogu arako erretorika-dogmari, zera: argumentu bat indartzeko naiz azalpen bat edertzeko, metafora edo berdintza erabiltzea on litekela. «Vis inertiae» (pixu-lege)aren astapen edo printzipioa, adibidez, berbera omen da bai fisiko-munduan eta bai metafisikoan ere. Fisi-munduan egia baldin bada gorputz aundi bat beste txiki bat baño nekezago mugit-zen dala, eta gero bere mugimentua abiaduraren araberkoa izaten dala, orobat gertatzen da metafisi-munduan: eragin aundiko adime-na, eragin eskaxagokoa baño sendoagoa, iraunkorrago ta gorabera ugariagokoa izan arren motelago ere izaten da, eta bere lenengo pausuetan trabatuago eta zalantzakorrigo ibiltzen da. Beste adibide bat: konturatu al zera iñoiz, zein diran, dendetako letreruetan, gure ikusi-naia geien piztutzen dutenak?

—Ez, eztut beñere kasorik egin.

—Ba-da igarri joku bat —jarraitu zuan— mapa baten gainean jokatzan dana. Jokalari batak, mapa orretako izen bat esaten dio besteari, eta onek aurkitu egin bear, irabazi nai badu. Uri naiz ibai naiz errialde naiz estaduren baten izena... laburki: maparen gainalde ñabarrean arki diteken edozein. Jokalari asi-berriak, oitu-ezak, geienetan letra txikidun izenak aukeratu oi ditu, bestea larri jartzeko asmoz. Jokalari oituak berriz, oso bestelako itzak aukeratu oi ditu: maparen mutur batetik besteraño zabaltzen diran letra aundiko izen aietako bat edo beste, alegia. Abexek, kaletako letra aundi-aundiko iragarkiak eta izen-plakak bezela, nabarmenegi diralako noski, ez oi ditugu aintzat artzen. Eta kasu ontako begien ajolik-eza, buruaren ajolik-eza bezelakoxea dugu, adimenak sufritzen duan ajolik-eza, gau-zarik agirienak pasatzen uzten dituanean. Puntu au ordea, Prefeta-ren ulermena baño gorago, edo-ta beherago dago, agidanez. Onek ez

zuan inoiz sinistu ahal izan, karta hura izkutatzeke, guzien sudur-azpian jartzea bururatuko zitzaioke nik Ministroari, ongi gordetzeke biderik seguruenaren orixe zala erizita. Zenbat eta geiago ausnartzen nituan nik gogoan gauza auek guztiak, zera: D'ren asmamen ausarta, zolia, zentzuzkoa... dokumentutik zerbait onik aterako ba-zuan, beti eskumendean euki bearra zuala... karta —Prefetak argi ta garbi erakutsi zuanez— kargudun onen oiturazko billaketa-barrutian arkitzen ez zala... bai noski, segurtasun oso-osoaz atera nuan ondore auxe: karta gordetzeke, Ministroak bide egokienetik joaz, inola ere ez gordetzea erabakia zuala.

Ustekizun oiek buruan neuzkalarik, koloredun betaurreko pare bat jantzirik, goiz eder batean eta alegia deus ez, Ministroaren jau-regiko atea jo nuan. Etxean zegoan bera, aozabalka, etzanik, eta, oi bezela, nagikeritan, asper-miñak jota zegoalako itxurak egiñaz. Nik badakit baña, biziro kementsua dala gizona, munduan kementsurik baldin bada... inork ikusten ez dualarik ordea.

Arekin bat etortzeagatik, ni ere asi nintzan illetak jotzen. nere begi-auleria kausa zalarik, betaurrekoak erabilli bearra nuela-ta... oien azpitik bizkitartean gelako zoko ta leku guztiak osoz eta kontuz aztartzen nituan, aren izketari adi-adi nengoala irudi egiñez.

Luzaro eta arreta aundiz, etxeko jaunaren aurreko idazmaia ikuskatu nuan; bertan, zabalerik-zabalera, karta ta paper batzuk, bi edo iru musika-joare (20) eta zenbait liburu ikusi nituan. An ez zegoan ezer susmagarrik.

Noizpait ere, nere begiak, gelari jira-bira egiñik, papertegi edo txartel-zorro baten gainean erori ziran; kartoiezkoa zan, filigranaduna, itxuraz polita baña balio gutxikoa; brontzeko kako batetik tximini-buruaren erditsutik zintzilika zegoan, lokarri urdin eta zikin baten bitartez. Paper-zorro arrek iru-lau zisku zituan eta oietan bospasei bixita-txartel eta karta bakar bat. Zikin-zikin eta zearo maruskatuta ageri zan, erditik kasik bi zatitan egiña. Ba-zirudian, ezertarakoeza erizita edo, bera puskatzeko asmoa izan zutela lenbizikoan; baña gero, lengo asmo au aldaturik, zegoan bezela uztea erabaki zutela. Zillu beltz aundi bat zeukan, D'ren monograma nabarmenkiro agertzen zuala; eta emakumezko letra txikiz egiña, Ministroaren beraren zuzenbidea. Goreneko zisku batean zegoan, bertara ajolagabeki, edo areago ere, erdeinuz egotzia.

Hura ikusi bezin laister, nik billatzen nuan berbera zala zaiñak eman zidan. Egia esan, bazan alde aundia, bai, Prefetak ain zeazki azaldu zigun karta artatik oraingo onetara. Onakoaren zillua aundia zan eta beltza, D'ren monogramarekin; arako artan, zillua txikia zan

(20) Musika-joare: instrumento de música.

eta gorri, S'tarren duke-armakin. Emengo onek, Ministroaren zuzenbidea letra ttipiz egiña zuen, emakumezkoen batek idatzia; lengo arrek, erregetar norbaiti zuzendua, letra ausarta zuan, dzartadakoa. Aundi-txikian bai, bateratsu ziran. Nik baña, ezberdintasun orretan alakoxe geiegikeri bat somatu nuan. Izan ere, zikin, tolestu ta maruskatuta zegoan... Ministroaren oituraz kontrakoa oso. Dokumentua, ezertarako balio etzuela nork-nai pentsa zezan moduan jarrita zegoan, antzadanez. Gauza oiek guziak eta gaiñera papera ain leku nabari batean kokatuta, edozeiñek ikusi ahal zezakean gisan —ots, neronen lengo usteari indarra ematen ziola— gauza oiek, diot berriz ere, biziki susmagarri ziran, susmatzeko joana zanarentzat beñepein.

Nere ikustaldia ahal aiña luzatu nuan. Eta Ministroarekin, beroni beti kilikagarri izaten zaion gai batez mintza ta mintza nengoan artean, nere begi-indar osoa kartaren gaiñean finkatu nuan. Eta bere itxuraz eta zorroan zuan egoeraz ongi gogoratzeko, ederki eragin nion oroimenari. Oarpen bat egin nuan azkenean, nere lengo zalantzizpiak —zalantz-izpirik baldin banuan— osotoro uxatu zituana. Orra zer: paperaren ertzak aztertuaz, bear baño zanpatuago eta zaharrago agertzen zirala konturatu nintzan... Nola gelditu oi diran, paper gogor batean egindako izurrak (21) izurgailu edo plegatzaille batekin alde batera tolestu ta zanpatu ondoren, berriz ere tolestu ta zanpatzen dugunean, bañan itzulitara, beste aldera, ta lengo marra edo ertz berberatatik? Ba orixe bera. Aski nuan orrenbestez; argi ta garbi zegoan, karta hura itzulikatua, guante bat bezela barrendik kanporatua zegoala, eta gero beste zuzenbide bat eta beste zillu berri bat erantsi zizkiotela.

Alde-egin nuan Ministroarenetik, bere maiaren gaiñean urrezko rape-kutxatilla bat utzita.

Urrengo goizean kutxatillaren aitzakiz joan eta aurre-eguneko solasari gogo ta bizi lotu giñan. Alako batean, zarata ikaragarri bat, pistola batek egiña zirudiana, entzun genduan, jauregiko leioaren azpi-azpian; eta berealaxe, izugarrizko deadarrak, bildurrak jotako jendearen karraxiak ugari. D', leio-alderutz joan zan antxintxika, hura zabaldu ta kanpora begira jarri zan. Artean nik, paper-zorroraño eldu, karta artu, patrikan sartu eta fak-simil bat —kanpotik beñepein aren irudikoa— beraren lekuan ipiñi nuan... etxean eta arreta aundiz tajutua nuan, ogi-mamiz egindako zillu baten bidez D'ren monograma irudikatuz.

(21) Izur : pliegue.

Kaleko zarata, mosketedun gizon kasketatsu batek sortua zan, bere izkillua emakume ta aurren erdian ustuta. Balarik gabe egin zuala erakutsi ahal izan zuan gizon arrek, eta bere bideari jarraitzen utzi zioten, illargi-jo edo mozkortiren bat zala siñistuta. Bera aienatu bezin laister D' itzuli zan leiotik, eta ni ere arrek, karta artu ondoren leiora joana nintzan eta. Andik laister, egur egin nion.

Illargi-jotako hura, nik agindutako gizon bat zan.

—Baña, zer asmo zenduan —galdetu nion— karta-trukatze ori egiteko? Ez ote zenduan obe, lengo bixitan bertan, zabal-betean artu ta anka egin?

—D' —erantzun zidan— gizon ausarta da, dzartadako gizona benetan. Ba ditu gaiñera etxean zerbitzari leialak. Zuk esandako zoreri ori egin ba-nu, ez nintzakean aren etxetikan bizirik irtengo. Paris'ko erri zintzoak ez zukean geiago nere izenik entzungo. Banuan, orrez gaiñera, neri-neroneri zegokidan arrazoitxo bat. Nere politika-usteak zein diran badakizu zuk. Egiteko ontan, arako andrearen alde jokatu dut. Joan diran illabete auetan Ministroaren esku artean egona da bera; orain berriz Ministroa da aren eskuetan arkitzen dana; karta galdu duala ezpaitaki, galdua ezpalu bezela jokatu nai izango du-eta, lengo «chantaje»ari jarraituaz; eta onela berak egingo du, bidenabar, beraren politiko-ondamena. Bere erorikoa, zalapartatsu ta parragarri izango da gero! Ederki da noski «facilis descensus Averniz» mintzatzea, baña igoaldi guztiez esan diteke emen, Catalani'k (22) kantu-gaiñean esaten zuan arakoa: «errezago dala igotzen, jeisten baiño». Kasu ontan, amiltzera dijoan gizona ez zait begiko, ez atsegin, ez kupidagarri ere. D' dalako ori, egiazko «monstrum horrendum» oietako bat duzu, jeiñu prestuez bat. Aitortzen dizut alaz guztiz, berebiziko poza artuko nukeala, aren gogoetak ezagun ahal banitza, noiz-eta, Prefetak «gorenengo norbait» deritzaion andre arrek erronka egiñik, karta-billa joan ta nik utzitakoa irakurri bearra izango duanean!...

—Zer ba! Utzi al zenion bertan ezer idatzirik?

—Bai ba, aren barrua zuri-zuri uztea, itsusi, iraingarri izango zala-ta... Bein batean eta Vienan, ezegiteko bat egin zidan berak, eta nik, txit arpegi onez, «gogoratuko nintzala»ko itza eman nion. Eta ola, oraingoan bera baño azkarrago nor izan ote dan jakin naiko zuala-ta, arrastoren bat ez uztea penagarri izango zan. Ondotxo eza-

(22) Joan mendeko andre kantari famatua.

gutzen bait-du nere idazkera, paperaren erdi-erdian itz abexek kopiatu ta ipiñi nizkion:


«... un dessein si funeste
s'il n'est digne d'Atrée est digne de Thyeste.»

Itz oiek, Crébillon'en «Atriarena» deritzan komedian arkituko dituzu.

R. BOZAS-URRUTIA'K
euskerara itzuli du.

Madrid'en

1968-IX-25.



Tao-Te Txing

1. Esan diteken ITZA ez iraun osoko. Mintzoan oguzi diteken izena ez iraun osoko.

Izen gabe Ortzi eta Lur'en asiera. Izendun amar-amarreun izakiren ama.

Oikoan lerarik ez dunak, aren (ITZA'ren) tximena ikusten. Biotz zaletsuak aren azken-dizdizak bakarrik oartzen.

Bi oriek (ITZA eta ama, noski) elkarrekin sortzen; bañan, izena bana izan. Biek orobat izkutu; eta, izkutu-arrigarri guztien ate.

2. Lurtar guztiek, ederra eder dala ba-dakite; ondoren okerra zer dan. Ona on dala, eta gero zer ez dan on. Orrela izana eta ez'a elkarrean sortzen. Erreza eta zalla elkarrean datoz (egiten dira). Luzea eta laburra batak bestea zuzentzen. Goia eta beca elkar-berdintzen. Ots eta aren zarata elkarrean batzen dira. Aurrea eta atzea elkar yarraian dabiltz.

Gizon gurenak ezeri ekin gabe isillean dirakas.

(Gizon gurenak) ukorik gabe amar-amarreunak dagitzi. Guztiak oro eratzen ditu, aietaz yabetu gabe. Ontzen ditu eta ez da ayetan entzintzen.

Lana amaitzean ez da *egindako* artan kokatzen. Arengan kokatu ez, arengandik bakandu ez.

3. Adimen onekoak aintzakotzat ez artuz, errian eztabaidarik ez. Ogasun bildu-gaitzak ez aundietsi, erria ebasle bilaka ez dedin. Irriki-pizlea ez ikusi, biotza naastu ez dedin.

Gizon gurenak urkoaren biotzak ustu egiten ditu eta ayen urdallak bete. Zalea emetu eta ezurrak gogortu. Beti ere, ua, erria ez-yakiñean egon dedin alegintzen, arrontekoak ezer yakin ez dezan

eta olakoa ezeren gose izan ez dedin. Azkarrenak ez ditezela ezertan asteko gogoz. Ezeri ez ekiteaz zuzentzen ez danik ez da aurkitzen.

4. Utsa du ITZA'k eragille: bein ere ez da betetzen.

Aren sakona-amar-amarreunen sorburu.

Aoak amusten ditu; naspillak askatzen; bere ista emetzen du eta autsari lotzen zaio.

Bere sakonak damaio irauna.

Noren seme dan ez dakit. Aren azala Guren'a baño leenagokoa da.

5. Ortzi-lurrak ez dira adeitsu. Izakiak lasto-txakur bait-liran darabizte.

Gizon gurena ez da adeitsu. Erria lasto-txakur litz darabil.

Ortzi eta lur arteko tartea, txistu barneko zuloaren antzeko: utsa. Bañan ez aize gabe; erabilliago eta otsa aziago.

Iztun berritsu, sarritan laburregi ari da. Obe erdiko zidorrean ibili.

6. Barrendietako atsa ez da iltzen. (Illezkor da.)

Ua, urrix arrigarri.

Urrix-arrigarriaren atea, Ortzi eta Lur'aren zain (erro).

Irauncan beti; aren ariketa-yarduna axolatsu.

7. Ortzi, luzea (betirauntsu); lurra, zarra (aldi-iraundun).

Lurraren irauna, beretzat bizi ez izatetik dator. Orretxegatik luzaroan iraun dezake.

Bereola, Gizon gurena, bere burua atzean ipiñiz, aurean dago. Bazter-bereizten dala, irauncan arkitzen. Berekoikeriz yarduten ez dula, dagozkionak iritxi oi ditu.

8. Goitiko Ona, uraren antzeko.

Ura, amar amarreunentzat ona. Iñorekin ez du liskarrik. Beste guztiek iguin duten txokoa datza.

Orrela ITZA'ren urbil dabillena, ON'ean datza. Alakoren biotza bere sakonaz eta adeiberaz on. Aren esanak zintzotasunez on. Aren yaurpidea arau zuzeneko. Aren aurka iñork ezer ez: ez bait-du arek iñorekin eztabaidarik. Mugonarren aren lana on.

Aren yarduketan antzea onartzen.

9. Ez ezer geiegi ondu. Sorbatz zorrotzegia ez luzarorako. Altxorrez bete-betea dan aretoa ezin ongi zaindu.

Aberats arropuzak, bere ondamendia ondareztat.

Arloa amaiturik izen ona irabazi ondoren, norberera lekutzea Ortzi-zuurtasuna.

10. Soiña eta azi-atsa ertsi yagon: ez bitez bereiz.

Egurasketa maite izan, bularreko aurraren biguñia lortu arte.

Gaitza aldentzeko, gogaketa biurriak iraitzi.

Erria maite izan: erkala yaurri lanik gabe.

Ortziko goora-beerak diralata, ez eme biurtu.

Azkar eta argi izan, eta ez-yakin agertu.

Sortu eta azi; ernarazi eta ez yabetu; egin eta egindakoaren bearririk ez izan. Iñor menperatzeko (añean) nagusi izan... (Zazpi oriei) indar-almen berexi deritzaie.

11. Matarrak ogeitamar erro: gurpillarentzat bere utsa onuragarrriago.

Ontziak buztinez erutzen, aietan beren utsa adiñon.

Etxean ateak eta leioak zulatzen dira, ayetako utsa etxearentzat onuratsu.

Orrela, IZAN'ean irabaziak: EZ'ean, UTS'ean, onurakor-izatea.

12. Bost margoek ikusindarra meartzen dute. Bost otsek belarriak gortzen dituzte.

Bost txastaek txasta-indarra amusten. Laisterketa eta eizeak biotzak zoratzen. Altxor yasoegiak gizona galtzen.

Orrela Gizon gurenak bere urdailla zaintzen du. Bere begiak ez ditu ainbeste yagoten.

Beraz, bat ua utzi egiten, eta bestea artzen du.

13. Bai adeitik, bai ezespentik, egonarri-txar. Iritzi-on eta ausiabantza norberagan datzate.

Zergatik diot, adeia ta ezespena larriak dirala? Adeiak yaso egiten gaitu. (Auzoak gu) gutxitzat artzeak kokildu. Iristea (lortzea) larri; galtzea larri. Adei ta ezespén, larri uts.

Nolaz diogu izen ona eta ausiabantza norberagan datzate? Gure arriabarraren erroa geron burua da. Zer gaitzek atxi gentzazke, geron buruaren nortasunik ez ba'gendu?

Beraz: ludi osoa bere burua bezin aintzakotzat artzen duna, uaxe ludia yartzeko on. Ludia bere burua bezela maite dunari, ludia egoziko zaio (yaurri dezan).

14. ITZA zuin-ainditsu, ikuigaitz. Begiek ezin ikusi dute: ikus-tezin deritza. Entzumenak ez dezake atxi: oartezin deritza. Ezin di-teke oratu, atxiezin. Iru auek zula eziñak dira: orretxegatik ere ba-tean naasten dira.

Goien ez da argitsu. Azpian ez da illun. Neurriz-andik dalako, ezin izenez deitu. Bere ez-izatera itzultzen dalarik (antzik eta ertzik) gabe ERA da: ez argi eta ez neurri ANTZA. Aurretik arre, zoazkiolarik burua ez ikusten; gibeletik, sorbaldarik ez.

Aspaldiko ITZA eta oraingo izateak, elkarrekin erkatuz, auxe ulertzen da: ITZA arildu egin izan dala.

15. Garai zaarretako yakintsu gurbil-azkarrak zorrotzak ziran, biurri, sakon eta ulerkaitz. Ulerkaitzak ziralako, adirazgarriak zera-bizten, zesatenaren mamia azalduz.

(Aietako bakoitza onela gendun): Ibai izoztu gañean bai'lebillen beldurti; lau zokoetako auzoaz ikara dana bezela zintzo; nonbait sartua legokena bezela zut; enborra bezela yator; elur urtua bezela zabal; ibarra bezela edatua; ur arrea bezela illun.

Arre izanik, indarduna, aratz dedin, apurka-apurka garbituko. Atergabeko ibilian atsedean dezan, indarduna, nare biziko.

ITZ au yagoten dunak, bestetzaz bete izaterik ez du naiko; eta, bete izan gabe, lengoaz dirauke berritu gabe.

16. Uts-utsera iritxi: orra atsedean aundia (sendoa).

Arek irazandako amar-amarreunak Arengana itzultzen dira. Iza-kiek irakiñean irteten dira, ondoren lengo errora doaz.

Bere sorterrora itzultzea, atsedean. Atsedena, bakoitza bere izan-gora itzultzea. Izangoa bakoitzaren iraun.

Irauna ezagutzea argia: ez ezagutzea erroan okerra burutzea.

Irauna ezagutzea, betea da. Betea, batza da. Batza, guren-izate. Guren-izatea, Ortzi. Ortzi ITZ da eta ITZAK ba-dirau. Murgiltzen-amiltzen dalarik ez da ezabatzen.

17. Leenagokoak, soillik, nagusia ba-zala zekiten. Geroago, ua maite izaten asi ziran eta ari txalo yotzen. Ondoren aren beldur izaten asi ziran eta ari muzin egiten. Usterik ezaren ondoren, kezkak sortu ziran eta itz-zuriak.

Yardunari amai osoak zerraion; eta, erri zumeari, oldez ari zala zirudion beti.

18. ITZA irauli zanean, adeia ta zuzena sortu ziran. Sen eta adimenarekin, ariketa aizunak etorri ziran.

Sei adeiak, elkarte gabe gerta ziranean, adeia eta maite-izatea sortu ziran. Aberrian naaspillak sortu ziralarik, orduan ere sortu ziran menpekoen zintzo-izateak.

19. Yakintsuak (yakinlariak) baztertuz eta azkarrak erbestertuz, erriak eun alako izabaziren.

Ken adeitsu izatea, erauzi zuzena eta erria berez zintzotasun-maitazarrera itzuliko.

Antze-ariketak uxatu, irabazkizunak moztu eta ebasle-gaizkilerik ez.

Esaniko iru oriek apaingallu alperrak dira.

Beste ontan datza zidorra: yatorra eta berezkoa aintzakotzat artu eta enbor utsa besarkatu. Berekoikeri gutxigo eta zalekeri pixka.

20. Ikasketak moztu: irizketarik ez. Zer alde dago *wei'tik e'ra?* (*Otze'tik ots'era?*) Zer bereizpen *on* eta *gaitz'ean?*

Gizonak beldurgarriari beldur izango: naiz eta ori ez izan erdi-erditik asmatzea.

Guztiek pozik, opari aundiak (izan ditugun) yai ederrean bezela; edo'ta, sabai ager batetik udaberriko zelai apaña ikustean bezela.

Bakarrik ni nare, aduak muzin egin bai'lit. Ume izatera iritxi ez dan aurraren antzera, nora yoan ez dakila, mokolo.

Guztiek gañezka dute, ni lur yota. Nere biotza, zunzun bai'litz, alderrai. Guztiei dizdiz darie, ni illunpean. Besteek urduri eta langille, ni motel. Itxaso betean aizea bezela, egonarri gabe. Besteak abe-rats, ni nere xarpa xaarretatik irten nai ez ba'nu bezela.

Bakarrik naiz besteak ez bezelako, Ama Iñudea aintzakotzat de-dalako.

21. Zuloko indarraren yarmiña ITZ'etik dator.

ITZA izaki arre-illuna da eta argitsua. Illun-izatea dizditsua da, barnean *antza*. Bere dizdizean illuna da, barnean izakiak daramazkita. Sakona eta ezkutua, barnean datza izaterik meena eta izate au egiatzkoa da oso.

Aspaldi-aspalditik aren izena ez yoaten; ez itzurtzen. Izaki guztien aita deritza.

Nondik antz-eman izaki guztien Aitari? Ontatixek (izakietatik).

22. Yakintsua garaile: aitziko diranei azke uzten bait-die.

Makurra zutitu oi da. Okerra zuzendu. Utsa bete Zaarra berritu. Gutxia (askora) iritxi oi da. Aitzitik, ugaria naaspildu egiten da.

Orregatik, yakintsua ludikoentzat eredu: bati itsasten bait-zaio. Are, argi egiten du, ageri ez dalako. (Ua) dizdizean dago, bere burua aintzakotzat ez dulako. Bere egitekoa burutzen, liskartzen ez dalako. Azi oi da, bere burua zaintzen ez dulako. Iñork ez dio (Ari) ezer ukatzen, ber-bera ez bait-da ukatzalle. Ez ote-da egi arbasoen esan au: «Makurra zutitu oi da?». Egi-egi da.

23. Itz gutxi. Berriketa labur. Izadiari yarrail!

Erasoak ez du goiz bat irauten. Euri yasatsuak ez dirau egun osoan. Oriek nork egiten? Ortzi'ak eta Lur'ak. Beraz, Ortzi'ak eta Lur'ak luzaroan iraun ezin ba'dute, gizonak gutxiago.

Orrela Yakintza'rekin (ITZ'arekin) diardutenentzat beren zidorra Yakintza'ren zidorra da. Irabaztean Yakintzarekin darabazte. Galtzen ba'dute Yakintza'rekin galdu. Yakintza'rekin doaz bidelari, pozik ala ere yoan. Yakintza'rekin darabazte, irabaztez pozik. Yakintza'rekin galtzen dute, galdu izanaz pozik. Au ez da uste izaten bear danez; eta, arean ez da sinisten osorik.

24. Oin muturrez zutitu nai dunak, ezin zutik iraun. Urratsak luzeegi daramatzina, ezin ibili. Ageri danak, argirik ez. Bere burua aintzakotzak dunak, dizdizik ez. Alegiñetan diardunak, porrot egiten. Bere burua nabarmen zaintzen duna, ezin azi.

ITZ'aren gizonak geiegikeri oriek iguin ditu: maieko ondakiñak bezela; edo'ta soineko azikontxoak bezela.

Orrela ITZ'a berekin duna ez da orietan ibiltzen.

25. Ortzi eta Lur baño len, naas-maas zerbait ba-da bizidun. Isilla, barrentsu, bakarra eta alda-ezin. Atertzerik ez dun birazko igi, aren izatea. Agian, Ludi'ren Ama izana da.

Aren izena ez dakit. Aren bir-izena ITZA. Izena ematen asten ba'gera, AUNDI dei genezaioke, urrutiratzen dana bait-da: ba-doa eta itzultzen da (zabaldi luzeetara edatzen da).

ITZA, beraz, aundi. Aundi Ortzi; aundi Lur'a, aundia orobat Nagusia. Gaudiko aundiak lau: orietatik bat Nagusia.

Gizonak, eredutzat Lur'a. Lur'ak (eredutzat) Ortzi. Ortzi'ak (eredutzat) ITZ'a ITZ'ak, bere burua du eredu eta arau.

26. Astuna, ariñaren oinarri. Egonak «ibilli» azpiratzen.

Orrela, egun osoz ibili-dabilen nagusia gurdien sailletik ez da bereizten (saiesten). Ikuskizun alaiak aurkitzen ditula ere, guztiak utzi eta bazter nareetara lekutzen da.

Amar-amarreun gurdien yabeak (Nagusilenak), bere buruaz nola arindu du yaurerria? Biguindu, alegia? Biguinduz, oinarri-orpoa nola galdu? Nolatan, igi-ibiliaz nagusitasuna galdu?

27. Lasterkari onak aztarnik uzten ez. Izlari ona ez da naasten. Zenbale onak zotz bearrik ez. Arotz onak maratil guztiak irikitzen.

Orrela, Gizon gurenak eta yareileak iñor ez arbuiatzen. Guztiak oro yareiteko gai, ezer ez du askatu gabe uzten.

Argiaz yantzia deritza. Gizon gurenari, irakasle izatea ez deritzaio on. Ona ez danak, gizonen esku-erakutsiei on irizten. Irakasletza aunditzat ez etsi; besterenak ez irriki izan; eta, seneko izanik, azken-mallan egon... arrigarria!! Askatzalle onarentzat, korapillo txarrik ez.

28. Arra izan, eta eme bezela yardun: eguzkipeko arru. Eguzkipeko arru izan, Indar Luze'tik urruti ez egotea da, bularreko aurtxo izatera biurtzea.

Txuri dala yakin, eta beltzean iraun, eguzkipeko arau izatea. Eguzkipeko arau izatea, Indar Luze'tik ez bereiztea, ez'aren ertzera itzultzea.

Bere aintzaren yabe izan eta ezespenean egon, eguzkipeko sakan. Indar Luze'z beteta dagon sakan. Enbor yator izatera itzultzea.

Enborra pitzatuz atuxak ontzen. Yakintsuarentzat au on, nagusi danean. Osoa ez da erdibitzen.

29. Eguzkipez nagusitzeko ari izatea, nere gardiz, eziña nai izatea. Nagusitza, ontzi gogotiarra txito. Ezin diteke lankai izan. Ua, lankai litz erabiltzea, alperrik galtzea añaxe. Ikuitzea, galtzea.

Beraz, zer batzu aurretik dabilta, besteak aien yarrai. Batzuek emeki aize-ematen, besteak oldarrez. Batzuek azkar dira, besteak aul. Batzuek ba-diraute, besteak galdu egiten dira.

Auetan guztietan, yakintsuak ardura bakarra du: geiegikeriak moztu; ugaría kendu; oparoa iñausi.

30. ITZ'arekin Nagusiari lagun zazkietenek, ludia ez dute izkilluz zakarki erabili bear.

Orrelakoak ain errez alde-erantzira biurtzen!! Gudarozteak iñaurri ziran lekuan, sasia ugaltzen; eta, aien ondoren beti urte mearrak datoz.

Beraz, gizon zuzena oldez damaiotenaz naikotzen da. Apurtxo geiago artzearren ez du ezeri oldarka ekiteko biotzik. Alea, zalerik gabe. Alea, geiagotan ari gabe; alea, atze-asmo ezkuturik gabe; alea, geiegi biltzeko apukorik gabe; alea, ezeri gogor egin gabe.

Osasun azkarraren ondoren, zaartzaroa dator: au, berriz, ITZ'a ez izatea da. ITZ'ik gabe, laister amaitzen gurtia oro.

31. Izkillu onak asmakizun gaizto, iguingarri txito. ITZ'a dun gizonak eztarabizki.

Zaldunarentzat, esku-ekerra omenezko. Izkilludunarentzat, esku-eskuia omenezko. Izkilluak, lagun gaizto, zaldunarentzat laido. Beste-rik ezean erabiltzen dira. Nare geza, obe. Izkilluen garaitza ez da eder. Okerrean pozten danarentzat bakarrik eder. Okerrean pozten diranen asmoak ezin ditezke garai irten ludian.

Alaiantzat, esku-ekerra omenezko, eta esku-eskuia adu txarrekoentzat. Ezkerrean bigarren buruzagia eta eskuian lenengo buruzagia. Alegia: illetan oi danez. Asko sakaildu ditunak negar egin bear (illetan erostalariek bezela).

Izkilluen garaitzarentzat, illetakoan oi diranak on.

32. ITZ irauntsuak izenik ez. Gerri-me, eguzkipean ez ezer ua menderatuko dunik. Nagusiek eta bakaldunek ua atotsi ba'lezate, amar-amarreunak oro, oldez, aien babesera lioazke. Ortzi eta Lurra ere elkartuko lirake intz eztia eraitxi dezaten. Agindurik gabe, erria batu egingo litzake itunez.

Asieran, beragandik ebakiak izan zitun izenak. Izenak zitulako bere artan iraun izan al du. Eraio al izan dulako, galduenik ez. ITZ'a ludiarentzat auxe: lats kokoriak eta sakanak ibai aundientzat eta itxasoarentzat dirana.

33. Besteak dazagutzina, uaxe yakintsu. Bere berri duna, uaxe argitsu. Besteak garaitzen dituna indartsu; bere burua ezitzen duna azkar-gurbil. Askí izatea zer dan dakina, uaxe aberats. Adoretzu aurrera dcana, uaxe gogodun. Bere lekua galtzen ez duna, iraunkor. Il eta gero amairik ez, orixe adiña!!

34. ITZ aundia, banatzen dan ibaia: berriro bere urak biltzeko, arean. Ezkerretara eta eskubitara banatu diteke. Amar-amarreunak arengana urbiltzen dira bizi ditezen; eta, Arek ukorik ez. Bere lana burutu bai, ez ordea aldarrikatu. Amar-amarreunak irazaten eta aye-taz ez yabetzen.

Aren zalerik-ez luzeak kaxkartu lezake bera. Amar-amarreunek arengana itzultzen dira; eta, aietaz ez yabetzen. Aundi gertatzen Ua.

Bereolaxe, gizon gurena, bere burua aintzakotzat ez duna, aundi izatera iristen.

35. Antza Aundi'ren billa dabil ludia. Ez doa, baña, bere galpenerako: Gentza, orobatasun, aurrerapenera baizik.

Bideztia, eresi ta yakiak geldiratzen dute. ITZ'a, alabaña, geza da. Aotik irteten danean ez du ao-gozorik. Begientzat ez da betegarri. Belarrientzat ez durundi atsegingarri. Aren onaurkiak, ordea, neurrik ez.

36. Estutzeak, zabala zuan aurretik. Aul-izatearen aurretik oldar eta indar. Ausiabartzari, ongi-alderdi-aurrerapenak (dabizkio aurretik). Kentzearen aurretik emana. Oni, argi estalia deritzaio: biguiñak eta samurak gogorra eta indartsua garaitzen dutela.

Arrainak, bere barrendi aiek ezin utzi. Aberriaren altxorak ezin ditezke eguzkitara atera.

37. ITZ'ak arrontean ez du ezer egiten; eta, egiteke ez du ezer uzten.

Agintedunek orobat egin al ba'lezate, amar-amarreunek berez elkartuko lirake.

Aien eraldatzeak eragiñerako edo yardunerako zaleak sortuko ba'lira, gerok enbor oso-yatorraren izengabeaz zapaldu bear genituzke. Enbor yatorraren ezkutu-izatean ez dago zalekeririk. Zalerik gabe ludian gentza bai; eta ludia berez naikotzen da itunean.

Lenengo idaztiaren Amaia.

GAHUT: 1962.IX.10

O A R R A K

1. IDAZTEUNA esaten diogun idaztia, ludiko izkeratara erruz itzulia izan da. TAO Te-txing onek ere itzulpen asko izan ditu.

2. TAO itz onen marrazkia era askotara emana izan da. Alegia txinatarrek berak ere, ez dirala bat etorri izan. Ondoren itzultzalle bakoitzak bere aldera'edo ulertu. Arako Yon deun Bialduaren idaztian, lenengo atalean, lenengo puxkan auxe dago: «Asieran ITZA ba-zan». Eta ITZ au, txineraz, batzuk beintzat TAO esaten dute.

3. Amar-amarreun: ...Izaki guztiak, alegia. Amar aldiz amar eun.

4. Lasto-txakur: antziña-antziña, Txina zabalean, yainko-aizunei eskeintzak egiterakoan, lastozko txakurak erabiltzen omen. Beren yaurespen-ariketak lasto-txakur oriekin edo txakur orien gain burutzen. Lasto-txakurak eskuratzeko txanpon gutxigo bear nonbait, okel yatorra erosteko baño. Bai ta, garai artan, olako agurketak egin bear zituzten tokietan, bestelako abelgorri biziak gutxigo ziralako ere.

5. Eguzkialdeko lurraldeetan txito zenbakizale dira: goraxego amar-amarreun egokitu zaigu. Ondoren *bost* margo. Txina'n, enda osoko izendegian ere izenak EUN dira.

Ixraeldarrek orobat zenbakizale: onela, *Iru daude neretzat ostetik...* Ikus, Itzurak 30, 18.

6. Sei adeiak edo artu-emanak auetxek ditugu: aita-semeen artekoa; senide artekoa; senar-emazte artekoa.

7. WEI eta E'ri dagozkien marrazkiak, txineraz, oso elkarren antzeko, alegia idazkeran. Ortatik ipiñi det OTZ eta OTS. Euskeraz itz bi oriek bat ez diralarik, idazkeran zenbaitek naasten ez ote-dituzte?

8. Ogeita amaikagarren atalean erostak ditugu aiputan. Formosa ontan erostak oraindik ere oso giroan diraute. Zerraldoaren yarraian, semeak zurdatz-soñekoz yoaten dira; illobak soñeko zuriz, billobak soñeko urdiñez; illobasoak, soñeko gorritz. Azkeneko auek, geienetan

aurtxo'edo izaten dituzu eta malkorik gabeko. Beste iru sallean oriek, malko eta garraxi atera oi dute.

9. Idazti-bilduma au osatu zuna, giza-biotzaren berri zekiana izan. Norberaren bizi-izaterako aolku bikañak damazkigu. Noskiago «bai» arduratsuago aztertu eta maite izan zizun. «Ez», berriz, beti zapuztu. Alegia «Bai» eta «izan» txito goraipe eta argi bizitan guri eman. Lanera bearturik gabiltzanok alakoxe «Ez»a gerokin daramagu: gosea, irritsak, zerbait motz eta labur. Bitartean TAO orren ereduko izan nai zuna, giza-antzeko ziteken, bañan giza-nabaimen eta ayurri gabe. Gizon zirudilako, gizonekin elkartua bizi. Giza-irritsik gabe, ordea; eta, arengan IZAN eta EZ-izan ez aurkitzen.

10. Bilduma au, gure egunetaraño eldu izan da: aspaldi zaarreko arnasez, noski. Gure egun auetan bestela gabiltza. Bañan, gu bes-tela ibili izateak antziñateari ezin ezer kendu. Leenagoko gizona eta oraingoa erroan bat: adarretan alderantziko ere bai: beti ekin-maite.

Arbaso eta zimeldu ziran aroetako irakatsietatik apurtxo guretzat artzea, argi-zale gerala esatea añaxe.

ETXEBERRIA'tar P., S.I.-k.

itzulia eta azaldua





naas - maas

EUSKALZAINDIKO URRE-EZTEIAK

1968 urtean dira 50 bete, Euskera-Akamedia Oñatin sortu zala 1918-an; karia hortara bilkura eta mintzaldi egokiak dira Arantzazun joan dan Urriari egin, eta Irakurgai sakonak argitaratu ere, JAKIN aldizkari ernean. Euskalzaindiak bere urteburua ospatzeko, euskera idatziaren batasuna du langaia bezala hartu. Eta Arantzazu-Pralletegian, gaia horren inguruan, Michelena, Villasante, Xabat Garmendia, Zatarain eta Lekuona buruzagiak leenbizi, dituzte oiñarriak azaldu.

Geroztik, aurrerapen franko egin dira, iztegi saillean, joskeran, morfologian eta ortografian ere. Batasuna lortzea, zati batean bedere, etzen gauza zailla izango, idazleak gure literatura zaarraren irakur-zaleago bagiña. Aski da konturatzea horretarako, euskalki bateko eta besteko izkiriataileak, elkarren gandik aise urbilago zeudela joan den mende, oraingoak baino.

JAKIN aldizkarian hala dio S. Garmendiak: «Hamazazpi, heme-»zortzi eta hemeretzigarreneko euskal idazleak irakur baditzagu, gar-»bi ikusiko dugu, orduko izkribatzaillan artean oraingoetan baino» berezikuntza gutxiago zegoela, eta MOGEL-ena (Edo Gregorio»ARRUE-ren moldea) eta DUHALDE-rena berdiñagoak zirela, orain-»go zenbeit gipuzkoar eta lapurtarrena baiño.»

Eta aurrerago dio: «Euskalerriko idazle guztiek ezpada geienek »idatzí dute... *neskarik, aitarik, makilla bat, anaia bat, gauza bat...*; »orain gera asi, *neskik, aitik, makil, anai, gauz bat...* idazten... he- »rriak ezpaitu horrelakorik esaten; herriak *makilla bat, makillaka, »esan ohi du guk uste baiño maizago...»*

Lege hori egun ere segitzen dala frogatzeko, Barandiaran-en Ipui-ñetatik kopiatuko ditugu Gipuzkoan eta Bizkaian usatuak:

...gau baten *anaie* zaarrenari // gero *anaiz* gazteena // *makilla bat* eman ementzión // *makilla* orrek... // *makilla* oi geatu // ni *aizkora* batekin txiki txiki // ikusi eban *neskatilla...* // pentsatu eban *neskatilla* arekin // *neskatilla* eder bat // erriko *neskatxa* gu-
siak // *burdiña* au lagun dabela //

Berdin -f- eta berboaren erroa, eta -h- bera ere, Gregorio ARRUE hernaniar idazlearen LIBERALEN DOTRIÑA liburuan usatzen di-
rala, maiz ikusiko dugu: ...Icena ematen dion *hura* // eta *hura* gañ-artuta guertzea // Lapur bat edo *hiltzalle* bat // ona litzaquean *hura* bera ere // Eguiaz guerta liteque // chit ongui *saya* liteque // batasun *eguiazcoa...* *borchazco* alcartasuna eguitemarren // Ceinbait *guizonec* (ez *guizonac*)... egon nai ez // Iñorc ezin *guezurta* leza-
quean // eguin litezque *farragarri* bere oitura // lotsez *estal* ditez-
que // ematen dan errecetac *menturaz hilco* luque *hura* // guere an-
tziñaco *guertacarietan* // ...eta berdín beste halako asko.

BATASUNAZ

EUSKALZAINDIko biltzarrek erakutsi dute batasun osoa ez ezik sail bat egin daitekela; eta bizkai-euskalki aberatsa eta edatua (eta xiberotarra) demendrenik ere gutietsi gabe, aitzitik; urratska egin behar baita batasun hori, lenengo pausoa erdiko euskalkien artean egin beharko; eta horiek urbiltzea ezta zailla, XIX garren mendeko idazleeri jarraitzen bazaie; bizkaikotik berba asko onartuz ere, orain beretik. Hitz edatuenak usatuz ere, *aireko, eskualde, orkesta, base-
liza, apezpiku, bizilagun, deitura, erresuma, egunkari, grekoa, beza-
lakoak*, hoken ordez sartu diren berriak baino lehen.

Hortan da ari Euskalzaindiko komisione bat: oraindik egiteko dago, *-izan-* aditzaren forma usatuenen bateratzea, giputz eta nafar-
lapurtar euskalkien artean beinik-pein. *Zera -zara- zira- zare-* en ar-
tean bat autatu beharko, serioSKI ari bagara: berdín *-gara-gare-gera-
-gira-gire-* en artean, edo ta *-diozka- dizka- dizkio- diotza- ditio-
-dazko- dazkio-* edo ta *-dozue- duzue- duzute- dezute- dezue-* en ar-
tean, eta beste halakoak ere.

Michelena buru, ortografiaz ere aritu zan Arantzazun, baino hortan erdi eginik zegoen batasuna; eta hemen Iparraldeko idazlariek bi urte hoketan borondate haundia erakutsi daukute, gure -x- eta -tx- onartzuz, beren betiko (mendez mende) -ch- eta -tch- ak baztertuz.

-H- letraz ere erabakia hartu izan zen, naiz goganbeharra dagon oraino, konturatu gabe, Gipuzkoan ere franko usatua izan dela (Larramendi, Mendiburu, J. B. Agirre, Gregorio ARRUE, etc.), eta Euskalzaindiak 1920 garren urtean onartua.

Hala ere, behar bezala usatu behar da, geiegikeririk batere gabe; eta zuzen ezta kitenek, ez usatzea ere zillegi dutela, esana da behin eta berriz.

ERMU-ko euskal idazleen batzarrea

Joan den urteko Irailean, Bizkai-hiri haundi hortan 50 bat idazle bildu ziran, Euskalzaindiaren babesean. Hor ere batasunaz aritu ziran, S. Garmendia, Laspiur, Lafitte, Irigaray eta besteak oraino. Idatzmoldeaz zenbait erabaki hartu ziran; dela euskalki bakoitzen barrenean, elkargana geiago urbiltzeko xedeakin, dela tankera bateratuan, Iparraldekoekin ados, hiztegian, morfologian eta ortografian.

Iztegiaz hiru sail aipatu ziran, orain Komisione batek, Michelena buru, eskutan hartu dituenak: I. 1.500 inguruko eleen hiztegiño bat osatzea; hontara bi edo hiru euskalkietan usatzen diran hitz (ahal bada) soillak sartuko; eta euskalki horien artean bat, Iparraldekoa izan behar.—II. Beste hiztegiño batean, euskalki bateko hitzak sartuko dira, besteen toki hutsak betetzeko: autatze hontan, hitz edatuen, ulert-errezen, herrikioen eta jatorrenak obesten dira, leunari eta eufoniarri ere ohartuz.—III. Hitz lerroaldi batean, oraingo bizi modernoak premiatsuki eskatzen dituen hitz berri edo teknikoak sartuko dira; euskera eorrikokoak batzuk, eta besteak grekotik edo latinetik erakarriak. Eta hontan, marra edo muga batean gelditu beharko, sobera espezializatu gabe; auzia eztago, euskal hiztegian hitz berri asko sar ditazkenez, gero mintzaira bizira pasatuko direnez baiño.

Hortako, oraingo euskeraren gaitasuna, otzean ikertu behar: lan horietan Euskalzaindiko batzorde bat ari da, Iparraldeko batzuekin batean.

Durangoko GEREDIAGA Elkartea

Bizkaiko hiri eder hortan, joan den urtearen azken aldera, Lizundia eta gaineratiko buruzagiek hiru egunetako euskal liburu eta dizkaen Erakusketa bat zuten antolatu, arrakesta haundia bildurik.

Ainbeste liburu eta argiltaldarien artean, urruneko GOMEZ iruñarra ikusi ginuen, bai eta HEGOSA editorial berriak, Leteren olerki liburu ederra, eta Lekuona eta Lertxundiren euskal dizkak azaltzen.

GEREDIAGA elkartearen areto ederra eskeinirik, batzarrean bildu zan Euskalzaindia, LASUEN jaun argiak berbaldi xarmanta ginez.

BILBAOko EUSKERAZALEAK deitu elkarteko komisione bat, Euskalzaindiko OLEAGA buru, Madrilen egona da, *Educación*-eko ministro-arekin; eskoletan euskera sartzeko auziaz aritu ziran eta ministroak ongi hartu omen zituen, jaunak eta eskeak, bai eta agindu ere bi-eletakoa euskal herrietako eskoletan abiatzeko prestamenetan daudela. Eske hau bizkaitarrek 50 milla firma baino geiagokin indarturik azaldu zioten, eta ministroak Ikastolendako Bilbon aurkitzen zituzten trabak arindu ere berehala; itxaropen haundia ekarri zuten etxera, baina esan zaarraz oroitzen ere gara; ZUHURRAREN EGI-TEA // GUTI EDATEA eta GUTI SINESTE. Agian edoien arte-
tik argia ikusiko.

BATZARREAK Iruñean eta Baionan

Urre-ezteiak ospatzeko Donostiaz landako hirietan ditu, Akademiak azken bilkurak zelebratu. Abendukoa Iruñean egin zan, haundi haundian, Aaldundegi foralak bere areto ederrena utzirik. Ohorezko euskalzaineri makilla dedikatu bana partitu zaieten; A. Intza, Lekuona eta Lopez Mendizabaleri, eta 1918 ondoko urte haietako lagun-zaille diran Apraiz Ot, Ibargutxi eta Manterola-ri ohorezko agiriak.

Itzaldietan aipagarri dira, Lafitterena, aleman-euskera iztegi berri batez, Lopez-Mendizabalena, M. Pidal hil-berriaren xehetasunez be-
tea, erakustera emanaz, gure izkuntzarendako zuen maitasuna. A. In-
tza, euskalzainen artean, 1920 inguru hartan izendatua, bakarra, gure artean bizi da orain, Chile-tik berriki itzulia.

Bortxaz Chile-ra igorria gerla denboran, pizti bildurgarria bezala, berbaldi xarmagarri bat bota zigun, lehen egun haietako batzarreak kondatuz, eta Campion, Urquijo, Azkue, Altube, P. Lhande eta bes-
teen itxurak xarmanki pintatuz; bere lagun Martin Lekuona apez do-
hakabea, zizpuruen artean aipatuz ere.

Gero buruzagiak ere orduko zenbaiten izenen artean Fermin Iri-
garay LARREKO nafar idazlari maisu zenarena aipatu zuen, 1869 urteko sortzearen ehun urteburua betetzen dalako. Eta karia hortarat goratarre zerbait presta dadin eskatua izan zen. Baita eskatua ere, J. M. Seminario zenaren euskalzain-leku hutsa Aita Iraizozkoak be-
te dezan; euskalari jakituna dalako, eta idazlari eta olerkari garbie-
netakoa. Aunitz urtez!! , nehoizere baino, berant obe.

Gero, *Hiru-errege* hotelean oturuntza bat eskeini zion Euskalzaindiari Foru Aaldundegiak eta ondotik euskalzain batzuk, *P. de Viana*-ko ordezkorekin, bai eta *Bascongada* eta *Euskerazaleak* delakoenekin batean, hitz-aspertu bat izan zuten, egun hortarako etorriak ziran (eta gomit) galaico, catalán, valenziano eta mallorquinekin, oroen kezka beretaz solastatuz, elkarturik zerbait egiteko bieletakoren alde. Itxaropen berri bat piztu zen egun horretan.

Baionako Akademia-batzarrea

Goizean, St. André Elizan euskal meza xarmant bat eman zen, Eppherre jaunak kantatuz eta predikua eginez, euskara eder eta xarmagarri batean; zergatik eztute hala ematen Donostian, *mantso-mantso* elekatuz, tarrapataka aritu gabe, arront ulerkaitz eginez dana? esaten zidan ondoan neukan donostiar adiskide batek.

Euskalzaindiaren Batzarrea *Musée basque* dalako areto batean egin zan. (Hiriko Alkate Dr. Grenet-ek geroago, ameketako bat eskeini zigun, prediku amultsu baten ondotik.)

Batzarrean, Liturgiaz Iratzederrek Beloken bururatu dituztenen berria eman zuen. Eta Liturgiaz ari garenez, indar bat egitea ez ote zen komeni izango, gaude, Katixima idaztean, lapurtarrekin ados egonez euskeratzean, Erromatik euskeratze soil bat eskatzen dutenez geroz; planteamenduz eta ideiaz Konziliotik urbilago gindeke, gure erderakotik itzulzean baiño, eta batasunerako ere parada obeagorik ezin aurki genezake.

Gero Lafitte Linguistikako kartaz mintzatu zen, eta Dassance oroitzapen zaharretaz. Arregi gaztea Alfabetatzearen premiaz mintzatu zen, bai eta oraidanik lotunai duten lanaz; eta euskera idatziaren batasunerako zer premia haundiko egitekoa den, autore zaharren irakurtzea eta irakastea. Oturuntza, Nautique biltoki apaiñean.

* * *

SARIAK.—Turismoko Ministerioak euskal liburu oberenarendako eskeini IPARRAGIRRE saria, Gabriel ARESTI olerkari ezagunak irabazi du.

EUSKALZAINDIKO Txomin AGIRRE Saria Jose L. Alvarez *Txillardegi* idazlariak irabazi du, ELSA SCHEELEN bere euskal nobelaren bidez.

AGORA Saria, Donostiakoa, Olerki gaia baten bidez, Mikel Inxaustik irabazi du. Eta Euskal Kulturaren aldeko Saria, A. Onaindiak, bere euskal obra osoaren kariatara.

Zienziako euskal lan batendako 5.000 pezetako Sari bat oparoki eskeini dio Euskalzaindiari, Anbortxi ZATARAIN euskalzain-lagun-zaille jaunak.

Euskera pizten eta euskera zahurtzen

Erresumako Eskolategietan ematen ar' diran Ikasgaiek *Altsasun, Elizondon* eta *Etxarri-Aranatzen* arrakesta haundiakin segitzen dute. Azken herri ondoko UNANUA herrixkan berriz, aur guziak ikaraturik bizi dira, Eskolan euskeraz mintzazeagatik, eta bai kanpoan ere, pairatu behar dituzten gaztiguak eta bortizkeriak direla kausa. Iruñeko eta Madrilako Inspektore nagusiek baote dute bidegabekeri honen berri? Erdara ikastea ongi da, behar ere, bainan gure euskera iñolaz ere baztertu gabe, eta oraingo Pedagogiak irakasten duenez, honen bidez erdara ikasi ere.

Apezpiku bat hil. Apezpiku berria etorri

Bereziartua Laurendi jaun agurgarriaren eriotzeak dolumin haundia utzi zuen euskera maite duten guzien artean, lehenbizikotik euskeraz predikatzen asi zalako eta Apezpikutegiko gutun eta izkiribuak gure mintzairan ere argitaratzen zituelako; bai eta Liturgia saillean ere, gogorik oberenarekin euskeraren itzulpenak egiteko bere laguntza beroa ematen zuelako. Bihotz haundiko kristaua zen bere bizi guztian izan.

Haren hillarietara bospasei apezpiku bildu ziran; IRUÑEKO AR-TXAPEZPIKU izendatu berria dan Arturo TABERA ARAOZ jaun agurgarriak eman zuen meza, guztiz hil-prediku lañoa eta sentikorra eginik; azkenean lerro parrasta bat euskeraz irakurri ere zuen, Euskalherriaren ganako bere sendimendu onak erakutsi naiez.

Geroago, Nafarroako parrokia batean meza euskeraz eman duela badakigu eta bere diozesako mintzaira eroria borondate oberenarekin lagundu nai duela ere.

Euskarazaleen aldetik eskerrik beroenak.

ARGAYA apezpiku berria Donostian

Gipuzkoarako apezpiku izendatu berria dan ARGAYA GOI-COECHEA Jazinto jaun agurgarria ere euskalduna da (beratarra) eta bere etortzean, Donostiako katedralean esan zuen mintzaldia, erdaraz

eta euskaraz egin zuen. Bere mintzaira bereko dirala Gipuzkoako euskaldunak erran zuen, bere oitura eta izpiritu bereko; langilleen eta zorigaixtokoan alde laguntza egitera prest dagola aitortu zuen. Aditzale guztiek atsegin handienarekin entzun zioten eta probintzia osoan denek ongietorri beroena egin diote.

Bihotz eta argi desiratzen dizkiogu aldi on eta gaitzetan ere, aunitz urtez.

A. APAT-ETXEBARNE.





Azkeneko illabete auetan jan-edan-txapelketa asko egin dira Gipuzkoa'n. Baña, gure uste apalez, nabarmenena ta aipagarriena uztailan Zumaia'n egin zana izan da.

Gauza jakiña da noski, Zumaiarre inguruko erritakoak *olarroak* izengoitiz deitzen diela, ta, beragatik, Zumaiar umoredun batzuei olarro-txapelketa bat antolatzea bururatu zitzaien.

Erriko enparantza nagusian egin zuten, eta berealdiko jendetza bildu zan.

Ta, bukaeran, epai-maieko batek bere itzalditxoan esan zuan: «Emakumeak eta olarroak zenbat eta geiago jotzen diran orduan eta xamurragoak gelditzen dira.»

* * *

Gipuzkoa'ko Moko-fiñen *Boletina*'ren zenbaki berri bat agertu da. Ona emen beraren arkibidea:

Etxetik.—Pregón de Gala (Alcalde de San Sebastián).—La Gastronomía y la línea (José María Busca).—Presentación de Antonio Arrúe (Alvaro del Valle).—Gastronomía Vasca (Antonio Arrúe). Presentación de José María Castroviejo (Jesús Martínez Flamarique). El Buen Comer y el Buen Beber en Galicia con un recuerdo a la influencia francesa (José María Castroviejo).—Poder antibiótico del vino de la Rioja (Félix Moco-roa).—¿Influencias orientales en la pre-

paración de los chipirones? (Ignacio Olagüe).— Los Pimientos (J. M. Busca).—Comida inaugural de la Cofradía (A. A.).—Un desafío culinario en 1895 (A. V.).—Yo sugiero, tú sugieres... (A. V.). Comida y tauromaquia (GAY).—«Le Coq au Cidre» (GAY).

* * *

Azken-aldi ontan jan-edan-gaiaz idatzitako bi liburu argitaratu dira Euskalerra'n. Batek, *Manual de Cocina Económica Vasca* du izenburua, ta Jose Castillo'rena da; ta besteak berriz *Navarra. Gastronomía. Platos de Caza* deritza, ta bere egillea Biktor Manuel Sarobe Pueyo da.

Castillo'ren liburua eder-luzea da, ta, batez ere, arrai-prestaera on ugari dakarzki.

Sarobe'rena berriz liburuxka bat da, baña jatorra ta txit apaña. Ar bitzate bi egilleak gure zorionik beroenak.

* * *

Oraindik orain jan-edan-gaiaz idatzitako beste liburu ernagarri bat ere eskuratu degu. Bartzelona'ko *Destino* aldizkariaren zuzendari ta gure adiskide on dan Nestor Lujan'ek argitaratua da.

Liburuak *Viaje a Francia* izenburua du, ta bertan Frantzia'ko jan-edan-gaiak bereziki erabiltzen dira.

* * *

Bein batez Gipuzkoa'ko tabernari batek erriko Erretore jauna bere etxera bazkaltzera eraman zuan. Ta, arkume errearekin, ardo gorri napar portitz bat eman zion. Ta...

—Zer moduzko ardoa da au? —galdegin zion ondoren taberna-riak Erretorea'ri.

—Ona, txit ona —erantzun zion apaizak.

—Meza emateko balio duala iruditzen al zaizu?

—Meza emateko ez, baña bezperak ondo kantatzeko bai noski.

* * *

Donostia'ko senar-emazte batzuen arteko elkarrizketa.

—Gezurtia alena! Bart arratsean erdi-berdoztuta etxera etorri ziñanean, ea nun pasa zenduan eguna galdegin nizun, eta erantzun zidazun: Altza'n. Eta orain jakin det, Aizarnazabal'en pasa zenduala.

—Barkatu, Joxepa; baña bart etxeratu nintzanean, nere mingaña

ardoak katramillatua zegoan, eta ezin esan zuan inñola ere «Aizarnazabal», eta orregatik «Altza'n» erantzun nizun.

* * *

Nere adiskide min Xanti, gizon argia, asko ikusia ta jakintsua da. Lengoan Kafetxea'n zion:

—Neri mundu ontan geiena gustatzen zaizkidan gauzak, iru auek dituk: ardoa, eskopeta —eiza, jakiña— ta emakumeak.

* * *

Mendekoste-bestetan
Aurthen Arnegiko errekan
Istorio bat gertatu izan da,
Kasik ezpeitirok erran:
Bortz emaztek edan tuzte
Amalau pinta bepetan
Jokaturikan kartetan.

... ..

Bosgarren hori zoin ote da?
Pentsatzeko ez da pena:
Zerafina gaizo orrek,
Nola ezpaituke lehena,
«Benedika dakiola, dio,
Mahatsari aihena,
Arno ekartzen duena».

(Bordel'en *Mendekoste-bestetan* deritzaien bertsoetatik artuak. Iku-
si Jose Maria Satrustegi'ren *Bordel bertsularia* liburua.)

* * *

J. Z.—Ez da egia, egia osoa ez beintzat, nik, zuk diozun bezala, joan dan azaroan jan-edan-gaiaz Bartzelona'n eman nuan itzaldian Filosofia'ren aurka mintzatu nintzala. Nik itzaldi artan Filosofia'ri buruz esan nituan itzak, auek bakarrak izan ziran: «La Gastronomía es la antítesis de la Filosofía alemana».

* * *

«Egunean askotan jan eta edan egin bear da, baña beti gutxi ta ongi.»—*Baltasar Gracián*.

A. A.

ADABAKIAK

PRAGAKO TAUEREN LIBURUTEGIKO «*Linguae Vasconum Primitiae*»-k. Tauer-Norbert txekotar adiskide onak idatzi deuste, EGAN-1967, 15-16'garren orrialdean Detxepareren *L.V.P.* olerki liburuaren ganean idatzi nebanari erantzunez.

Tauerren liburutegian gordetan diran Detxepareren liburuak oniek dira:

1. *Poésies basques de Bernard Echepare*. Bordeaux; Stempf, 1893.
2. Reproducción en facsímil. Tolosa; Urkijo, 1933.

Lenengo argitaraldiko alerik eztauka, ba, Tauerek. Uts bat eta besterik ez da izan.

Euskal liburu askoren jabe da Tauer. Batez be gure gerrate-oste-koak deukoz asko. Eta gerrate-aurrekoak be ez gitxi.

N. A.G.


ARRIGOITIA

«Bilbao, 24.6.1968. / N. A.G. Jaunari. Donostian. / Jauna, 1967-gko EGAN-en, 1-6 zenbakiaren 103 orrialdean, zeuk izenpetutako atalean, Arrigoitia izenburua benetakoa ete dan diñozu. Neure aita zanaren aita Ceferino Lopategui Arrigoitia zan, Asua-Erandio'ko semea. 1898 urtean il zan 44 urte zituzala. / Neure amak —83 urte— abixen orren entzutekoa ba daukola diño. / Besterik eztaikit Arrigoitia ixenaz, baña geyago jakin gura ba-dozu aleginduko naz idoroten. Neure agurrik onenagaz, / Miren Lopategui / Huertas de la Villa, 2-5.º-B, Bilbao-7.»

Millaesker Miren Lopetegiri eskutitz onegaiti. Arrezkero, Argoitia jokalariaren izena be asko entzuten da.

Nundik jakin ete-eban Pardo-Bazanek abizen onen barri? Eta nundik artu ete-eban Barojak izen au?

N. A.G.



LIBURVAK

JUAN SAN MARTIN: *Escritores euskéricos*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1968.

Araubide ta zentzu onez egiñiko liburua, askorentzako ongarri izango dana. Sarritan gertatzen jakuna da, gaurko euskal idazleen barri gitxi edo ezer ez jakitea. Liburu au jatorku utsuna ori betetan. Laureun eta geiago idazleen txartelak agertzen dira bertan: laureun eta amairu kontau dodaz nik. Gure gizaldiagaz jaiorikoak, edo 1940'garren urtetik geroago il direanak. Eztagoz danak or, jakiña. Egilleak berak esaten deusku itzaurrean, seireun inguru izango garea euskal idazleok, errietako barri-emoteilleak kontuan artu ezkeru.

Euskal idazleen txarteltegi bat egiten asteko saio bat eta besterik eztala, diñousku San Martiñek, baiña ori baiño geiago da liburu au, egia esateko. Bizitza ta egille danen edo beintzat askoren barriak agertzen dira txartel bakoitzean, eta bildur barik artu leike txartel pillo bat ortik idazleen iztegiatarako be, kritika-iritziekin ornidu ezkeru pixka bat. Aberatsa da oso, idazle bakoitzak erabili dabezan izengoitiak aitatzean. Baita bibliographia be ondo beteta dator, bakoitzak zer idatzi daben, eta nun.

Ez da sarrera aundia egilleak berak eskeintzen deuskuna, baiña tinkoa ta barri ugari emoten deuskuna bai. Erdera-izkuntzetatik euskeratu diran idazleen izen-lerro luzea dator gero (eun eta geiago), eta erretratutegia gero, azkenengo orrialdietan.

Bateri baiño geiagori etorriko jako euskal idazlea izateko deia, liburu au irakurri ta gero. Euskerea ikasteko gogua be bai, askori.

Euskeraz jakin eta erderaz bakarrik idatzi dabienez barruari kontuak eskatzeko bidea be izango dala uste dot.

Ez deusku bier txikia egin San Martin adiskide langilleak. Euskal Kulturari be badaki berea emoten Eibarrek, etxurea danez, eta zorionean.

N. A.G.



AITA ONAINDIA: *Larrea eta Karmeldarrak*. Bilbaon: «Gráficas Bilbao». Irarkola-Etxean, 1968.

Ainbat apaingarri jatorrez edertuta agertzen jaku Iagoba Onaindiaren liburu au. *Karmeldarrak Euskalerrian*, *Larrea gizaldiak zear*, *Karmeldarrak Larrea'n Larrea zeru-arnas jarioka*, eta *Larra'ko Karmen'go Ama koroatu nai*. Orrexek dira liburu onen gai-buruak. Kristau-fedearen alde egin deuskue urte askotan Larreako fraideak, euskerearen bidez batez be. Larrako fraideen euskal sermoiak entzunikoa naz gaztetan, eta Larrara bertara joanikoa gurasoekin umetan.

Euskerearen alde egin dabeen komentu guztien artean be, Larrea dogu ospetsuenetariko bat, zalantza barik. Gora Larrako euskal komentua!

Aita Onaindiak Larrako euskal idazleen ganean idatzi deuskun atala irakurri dot batez be atsegiñez. Or dagoz Aita Martin, Zelestino Gorrotxategi, Doroteo, Pio Etxebarria, Gabriel eta Gotzon Jaurigi, Antonio Goiria, Onaindia, eta Lontzi-Abaren bizitza ta euskal-lanen txartelak. Ipolito Larrakoetxea, Anbrosio Abasolo, Isidro Maguna, Segundo, Modesto, Elorrieta, Atutxa, Garate, Luki, Libano, Pedro Mari, Akesolo, Juaristi, Zubizarreta, Borda, Goia, Mitxelena, Batiz eta Etxebarria Aitak be aitatzen dira: aitatu bakarrik, eta ez dira idazle danak aitatzen. Orregaitik, lan egoki bat izango leitza-kela uste dot, batoren batek egingo baleuke Karmeldar euskal idazleen iztegi osotu bat, beste liburu batean, bibliographi zeaztu bategaz, Aita Larrinagak frantziskotarrakin egin eban moduan.

Zenbatgarrena ete-da au *Larrea eta Karmeldarrak* liburu au, Aita Onaindiak argitaratu deuskuzanen artean? Azkenengoa be ez dai-tela izan ba, Aita Iagoba!

N. A.G.

BASTARRIKA'TAR ISIDOR: *Aditza. Método Nor-Nori-Nork o el secreto del verbo vasco*. Argitaldaria: Lazkao'ko beneditarrak [Gazteizeko E. Montepio Diocesano'n irartua] 1968.

Estibalizeko nagusi dogu Aita Baztarrika-Isidor beneditarra, liburu onen egillea. Lazkaon bizi izan da urte askotan, eta euskera-erakustaille be egin dau bertan. Zipitria-Elbirak emon ebazan ikasaldi batzuk Lazkaon, eta ortik datoz liburu onen oiñarriak.

Orain urte batzuk dirala (sei-zazpi bat bai, gitxienez) artu eban liburu au egiteko asmoa Aita Isidorek. Metodu barri baten beartasuna ikusi eban, aditza erakusten asi zanean, eta Estibalizen egin deusku lan au: Aditza sakon, argi eta errex erakusteko metodu edo irakasbide barria, batez be gaurko gazteai begira egiña dago.

Saiaketa barrizat datorkigu. Aditza euskal metoduz eta ez erdal metoduz ezaltzen saiatu jaku egillea. Bere estructures, jokabidea ta tankerak azertu ditu orretarako.

Metodu onen gauza aipagarrien batzuk:

1.º «*Nor-Nori-Nork*» izkiak oiñarri ta ardatz moduan artzen dira (ikusi 11, 41, 52, eta 67'garren orrialdeak).

2.º Bi sailletan emoten dira aditzak: a) *Nordun* aditzak; eta b) *Nor-Nork*dun aditzak (41, 52 orr.).

3.º Beste iru atal nagusi: a) El verbo vasco con *Nori* (67); b) Conjugación compuesta y perifrástica (81); c) Sufijos de declinación del verbo (88).

4.º Paradigma bakoitzak ikaskai bat dakar, azalpen moduan, aditz-tankerak azertu ta azalduaz, bakoitza bere aldaketakin (44).

5.º Ikaskaietan badira beste puntu barri asko be: aztarketa, azalpen edo iritzi moduan (48,1; 55,1; 60,2; 75,1; 81,2; 88,2-3, eta-bar).

Ondo etorria izan bedi Aita Isidoren *Aditz* liburu au gure ikasle ta ikas-zaleentzako.

N. A.G.



J. A. LOIDI BIZKARRONDO: *Amabost Egun Urgain'en*. (Irudiak Nabaskues'tar Luis). Laugarren aldiz. Arantzazu Argitaldaria, 1968.

Errenderi inguru-aldeko euskeran susterrak deukozan gipuzkoar euskera apainduan idatzi eban Loidik *Amabost Egun Urgain'en*. Euskal Literaturan lenengoz agertu zan polizi-nobelia da berau. 1955'garren urtean agertu zan lenengo aldiz, egillearen kontura, Zarautzeko Itxaropenak irartuta.

Euskal liburuekaz gitxitan izaten dan moduko arrera ona ezagutu eban nobela onek. Agertu ta egun gitxi barru saldu ziran ale dnak: milla. Ontzat emon eben iritziemoteilleak, alde guztietatik ondo aztertu ta gero. Euskaltzaindiaren deduzko aipamen bat be irabazita eukan argitaratu aurretik.

Ez zan ori azkena. Emilio Mas sendagilleak argitara emon eban barriro. Bigarren argitaraldi au Irungo «El Bidasoa» astekari zarrean agertu zan, irundar euskera kutsu pixka bategaz apainduta (1958'garren urtean).

Kataluñiarrak etorri ziran gero, euren izkuntzan argitaratzeko baimenak eskatzen. Josep Aguirrek biurtu eban, eta Barzelonako Alberti editoreak argitaratu «Nova Col-lecció Lletres»-en, 61'garren zenbakian.

Prantzesera be itzuli eban Miarritzeko Arburu poliziak. «Le Livre du poche» entzute aundiko sortan argitaratzeko artu-emonetan badabizela badakit, baiña ez da agertu oraindiñoko.

Inglesera eta alemanera itzultzeko baimenak be eskatu ebezan, baiña ez dakit gauza garbirik zelan gelditu ziran orrek itzulpen biok. Alemanian ikasle egoan gipuzkoako abade gazte bat gelditu zan alemanera biurtzeko.

Arantzazuko Argitaldaria emoten deusku laugarren agerraldi au, berreun eta ogeta bost orrialdedun tomo egoki batean. A. Irigarai, E. Mas, J. Alberti eta M. Lekuonaren itzaurreekin.

Gaien arloan bearrezkoa zan gure Literaturari bide barriak zabaltzea, eta gure nobelarien artean polizi-nobela muetakini saiatu zan Loidi. Neurri on bat irabazi eban *Amabost Egun Urgain'en* nobeliak gure Literaturan. Baita egilleak be izen ospetsua euskal idazleen artean. Bibliographi aldetik ikusi dogu zelako zabalera-neurria euki daben urte gitxien barruan. Polizi-nobelagilleen artean, noraiñoko neurria? Iritzi-emoteilleek berba egin eben ezkerre bere egunean, ez naz orain emen barriro lengoak eta iñorenakin asiko ni, alperrik leitzake ta. Agatha Christie edo Simenon batzuen maillak irabaztea errex izango danik ez dot uste, baiña or dagoz beste idazle asko be, eurekin berdiñean ipinteko iritzi bidean bakoitzarenak zeatz aztertu

ta gero. Wilkinson, Gaboriau, Müllner, Edgar Allan Poe, Dickens, Stahl, Pfundhiller, Dostoievski, W. Collins, Anna Green, Guéroult, Conan Doyle, Goldscheider, Boisgobey, Morrison, Twain, Claretie, Hornung, Rosenkrantz, Childer, Benson, Futrelle, Rinehart, Leblanc, Leroux, Croller, Freeman-Theden, Orczy, Harg, Balmer, Rosner, Mason, Chesterton, Rohmer, Bentley, Buchan, Fletcher, Milne, Sayers, MacDonald, Vallace, Rhode, Biggers, Van Dine, Somerset, Queen, King, O'Higgins, Hammett, Frome, Palmer, Beeding, Gardner, Stout, Marquand, Du Maurier, Blake, Seeley, Marsh, Ambler edo Chandler baten inguruetan ikusiko ete-dogu egunen batean Loidi?

Gaiztakerizale baiño on-eragille agertu jakun Loidi bere lenengo polizi-nobela onetan. Orregaitik erabagiten deusku korapilloa mormorraaldien aurka erasi-alde bategaz.

Ain berezitasunezko gaiaren jabe egiten dakian idazle bateri eskatuteko eskubidea badeukagula, uste dot, bide orretatik jarraitu dagiala esateko. Onelako nobela batzuk egiteko gairik ezean eztago gaur gure Euskalerrria. Noz bialduko ete-dau egilleak Garaidi (bere buruz eta denporia eruateko ertzaintzan ibiltan dan Garaidi euskalduna) beste amabost bat egunerako Urgainera, edo beste lekuen batera? Hercules Poirot, Anthony Gethryn koronela, Priestley sendagillea, Charlie Chan, Philo Vance, Valkour tenientea, Sam-Spade, Pinkerton jauna, Hildegarde Withers, Perry Mason, Nero Wolfe, Moto jauna, Philip Marlowe edo orren antzeko izen ospetsu bat emon artean Garaidiri ez leuke gelditu bear Loidik. Pena artzeko be izango leitzake, aurrera ez baleuke jarraituko.

Bateztu ta bere lekuan ipintea gure neuke liburu onek Euskal Literaturari ekarri deutzazan literaturazko lagun edo personajeak. Euskal Literaturan agertzen diran lagun-izenik berezienakin be iztegi bat egin bearko da egunen batean. Or aitatu bearko dira Peru Abarka, Maisu Jaun eta urrengokoak, uste izan dogun baiño geiago bai. Ez dira azkenengoen artean itzi bearko Loidik asmau ta sortu dabezan batzuk: Garaidi (ertzain moduan bere buruz dabillena), eta Joxe-Joakin ostatu-jabe berbalari ugaria, esaterako, gitxienez gailentzea merezi dabeenak dira. Sikologu argi ta zolia; kontalari atsegiña ta lagun bakoitzari bere antza ta etxura jatorra ateratzen dakiena da Loidi. Personajerik gailenengoen ingurukoak be nabaritzeko taiu bat artzen dabe: Txomin lur-emoteilleak, esaterako, eta beste batzuk.

Arrakasta eta kausitze onakaitik zorionak Loidi adiskideari, eta urrengo libururarte.

N. A.G.



Parnaso Colombiano en Euzkera. Kolonbiar Olerki-Txorta Euzkeraz.
Buenos Aires: EKIN Euskal Argitaldaria, 1968.

Kolonbiako euskotarrak Kolonbiari egiñiko biotz-opari samurra dozu olerki-sorta au. Aita Lino Akesolo, Jon Beistegi, Iñaki Goikoetxea, Sabin Muniategi eta Jagoba Onaindiak egin dabe itzultzea.

Alfredo Gomez Jaime, Leon de Greiff, Cornelio Hispano, Jorge Isaacs eta Luis Carlos López Escauriazaren olerkiak euskeratu dauz Aita Akesolok.

Eduardo Carranza, Eduardo Castillo, eta Julio Floresen itzultzailea Jon Beistegi dogu.

Luis Carlos López Escauriaza, Jose Manuel Marroquin, Rafael Maya eta Epifanio Mejia: I. Goikoetxeak.

Ricardo Nieto, Rafael Pombo, Eduardo Posada, José Rivas Groot, Jose Eustasio Rivera, Héctor Rojas Herazo, Jorge Rojas, José Asunción Silva, Manuel Urive Velázquez eta Luis Vidales: S. Muniategik.

Eta Aita Onaindiak: Octavio Amortegui, Jorge Artel, Porfirio Barba Jacob, Juan José Botero, José Eusebio Caro, Carlos Castro Saavedra, Julio Flores, Gregorio Gutiérrez González, Cornelio Hispano, Luis Carlos López Escauriaza, Roberto Mac Douall, José Asunción Silva, Guillermo Valencia eta Ismael Enrique Arciniegas.

Luzuriagak egiñiko irudiakin apainduta dator, 257 orrialde deukoan liburu au. Bogotako Euzko Etxearen jabetasunagaz, eta Abrizketaren ardurapean agertu da. Amorrorturen moldiztegian irartu dabe. Irureun ale zenbatu dabeez, eta Kolonbiako Lendakari jaunari eta Paulo VI Aita Santuari eskeiñi deutsez lenengo zenbaki-aleak, jakin dodanez.

Gaiak sortze aldetik aberastasunik ezpadakartso be gure Literatureari itzulpen batek, onek Kolonbiar Olerki-Sorta onek benetan ornitzen dau Euskal Literaturea, eta batez be neurriak zabaldu bai alde askotatik, deduzko bidez kanpoerrietan ospea irabazita.

Euskeraz ezer argitaratzen dan, galdetu eustan adiskide batek denpora asko ez dala Idazleen Batzar Nagusi batean. Aita Onaindia adiskideak orduantxe bialduta neukan eskuetan liburu lirain au, eta erakutsi egin neutsan. Arrituta gelditu zan nere olerkari-adiskidea Kolonbiar Parnasoa euskeraz ikusita. Gitxiagorako be ez da, gure kulturaren barri tutik be eztakientezako.

H. V.B.



Agertu da aspaldi zain geunden liburu hau. Igazko urtetik entzuna bai genituen bere hotsak, eta ikusiko duzutenez asmuetak Txertoa argitaldariaren izenik gabe dator, edo obeto esan, bere orde Edili-renakin. Dena dela, betor orduonean.

Detxepare-ren *Linguae Vasconum primitiae*, lehendabiziko euskerazko liburuaren bederatzigarren argitalpena da. Esateko gutxi dugu, esan diranaz gainera, liburu eta egileari buruzkorik (liburuari bere poesiaren aldetik), argitalpenaz bai ordea. EGAN-en, 1967-ko 1-6 zenbakiaren 134/136 orrialdeetan emanak nituen zortzigarren argitalpenaren berri eta bereizkuntzak. Zortzigarren hori gaztelerazko lehen itzulpenarekin argitaratu zen, baina orain, bederatzigarren hau, gaztelerazkoaz gainera frantsezerako itzulpenarekin. Bata Lino Akesolok gertatua eta bestea René Lafon-ek. Eta badu gainerako bereizitasunik ere: lehendabiziko argitaratzen dela gaur egungo ortografiaz emana. Beraz, orain lasaiago irakurri diteke euskerazko poesiaren muina. Lan hau ere Akesolori zor diogu. Baina hori ezta guztia, zeren horrez gainera Mitxelena-ren hitzaurre bat du sarrera gisa, eta bere erderazko itzulpenak Patxi Altuna eta Miren Intxaustik eginak, espainolera eta frantsezera. Liburuak, azala ere oso apaina du Jose Luis Zumetak zortzi kolorez edertua. Bada berezigarririk aski.

199 orrialde ditu. Donostiako Industrias Gráficas Valverde, S. A.-ak inprimatua da.

Mitxelena, beti bezin jakitun nabari da hitzaurre horretan. Gure maixu ona beti exenplu bikainak emanez. Lehengo zaharrok ahazturik izan ditugula dio, beretan gure ispilua arkitu beharrean: «...ez dezagun lehengo arrietan beretan, bein eta berriro, oztopo egin. Etxepare bat, Etxeberri Sara'ko bat eta orien gisako beste ainbeste eta ainbeste gure artean agertzen baldin badira, oraingo jantziz eta itxuraz noski, ezagutu eta maita ditzagun eta, besterik baiño areago, gure laguntza, ahal dugun neurriko laguntza, izan dezaten; ez gorrotoa baiño okerragoa izan oi den axolakabekeria.»

Lehengoetan ere badela gauza onik? Bai orixe. Askok egia hori ikusi nahi ez badute ere, euskeraren aldetik, hizkuntza bere aberastasunean, batez ere jazkeretan (ez bakarrik joskera, askoren idurizko joskera estua) bada zer ikasirik.

Mitxelena, era horretara, gaurko egoera eta jakerari buruz ari da gehienbat. Etxepare eta bere lana bide, egungo biharkoari begira jarri nahirik edo. Izan ere, euskaltzalerik gehienok arduratzen gaituan gauza da hau. Ala ere, inguruan izango ditugu hizkuntzak gizartearentzat berdina dela era batekoa izan besterakoa izan. Baina

guri amor eman arazi nahirik dabilzatenak beren aldetik amor eman ahal ote dute beste hizkuntza baten aurrean? Zeren, horrela mintzo direnak, gehienak, euskerarik ez dakitenak dira, edo antzar hoién ahotik ari diren txoriburuak. Baina ez daude gertu beren usteetarik burua makurtzeko. Eta hizkuntza ezer balio ez duelarik, bestek utzi eta berek ez ahantzi. Baina, guk: «Aurren aurrenik, abiatu egin bear dugula andik edo emendik, iñorako baldin bagera, lehenbizi edo lehenbizikoaren urrengo zer datorren erabaki arte egonean egon gabe. Onena, beraz, lanean astea genduke zirt edo zart, nork bere deiari erantzunaz, geiegizko buru-austeetan ibilli gabe nola izan bear lukean ezarria belioen zerrenda zeatzak», hitzaurreak ongi dion bezala. Bestela, azken trenak ihes egin ondoren, kitto. Ez euskerarik, ez euskaldun herririk. Hau da, ez Euskal Herririk.

Maiz eraman gaituzte, euskaldunok, ondasun gurariaz, euskera-
ren ondamendira. «Aide Nagusiekin batean alde-egin zuen Erdi-aroko epikak, lirikaz ahaztu gabe. Eta gure egunotakoa da izan, dudarik gabe, iñoiz ezagutu dugun aldakuntzarik izugarriena. Orrexegatik jokatu bear genduke, nik uste, iñoiz baiño bortitzago, tradizio-aria ez dedin gure artean eten; ur-aizeen joera lagun ez dugun ezkerok, ez dezagun orain sekula baiño galera galgarriagorik izan.»

Erdi-aro garaian eta errenazimenduaren mugatik mintza zaigun poeta: «Berea ez da, gaiñera, poesia uts-soilla, edertasun billuziaren ispillu izan nai lukeana, baizik eta arrea, loia, giza-gorputz-arimen ondar zikiñak, urre izpiz nahasiak, igeri daramazkien erreka.» Hau da Etxepareren poesia. Gaur ez hain lehengoa, eta bai tarteko olerkari asko baino gaurkoagoa.


Liburuak, azkenean, bibliografia bat dakar. Baina bibliografia horrek hutsune handiak ditu, Mitxelenak berak hitzaurrean aipatzen dituan zenbait lanetik aparte, zortzigarren argitalpenaren sarreran datozenak. Eta, maiz gertatzen zaigun bezala, barkatu ezinezko hutsak, zeren horrelako bibliografia bat irakurtean badirudi arrotz hizkuntzetan bakarrik idatzi dala Etxepare eta bere lanari buruz. Egia izango da, euskalariak, eta ez euskaltzaleak, argitu digutela gehienbat gure literaturaren lehena, baina euskeraz ere izan dire bere emaitzak. Zenbait euskal literaturaren historia sartu direlarik, merezi zuen Orixe-ren *Euskal-literaturaren atze edo edesti laburra* («Euskal-Esnalea», 17, 1927) hor sartzea. Naizta Etxepareren poesiari, kasik, neurri teknikaren aburu hutsa egin. Bestalde, Etxaideren *Amasei seme Euskalerriko* (Zarautz, 1958) eta aldizkarietan argitara diran zenbait lanek hor zuten beren tokia. Zeren, nornaik galde lezaigu, nun dira euskeraz eman diren berriak? Eta, euskeraz, hor aipatzen diran lan asko baino hobeagoak argitaraturik direla. Lehen urri bagabiltza ere, geran baino pobreago jartzen gaituzte euskeraz gutxi edo batere ira-


kurtzen ez dutenek. Beintzat, beti informazio laburrak datorzkigu euskeraren aldetik.

Oso pozik ikusten dugula argitaraldi hau, batez ere argitaratu dan eran, ez dago esan beharrik. Izan ere, gure argitaratzaileak arduratu behar lirake euskerazko libururik berezienak, egilerik aipagarrienak, lehengoak eta orainagokoak, beti salgai edukitzen. Oraingoak eta datozenak lehengo iturrietarik edango badute, oraina georoi begira jarriaz tradizio zaharrari lotu behar badiote, nahi eta nahiezkoa dugun gauza da. Bestela, gure literaturak nekez izango du jatorriakin lotura.

Zortzigarren argitalpenari EGAN-en egin nion aipamen hartan esaten nuen, Lafittek *Gure Herria*-n idatziari jarraituaz, Adrian Morront-en etxean izan zuen bigarren argitalpena (Detxepareren bigarren agerraldi honetatik ale bat bera ere ez zaigu heldu) XVI-garren mende berean zela uste zala, baina Lafittek berak geroztik egin dituen azterketetatik dakigu Morront-en inprimaria horrek 1604-tik 1630-era iraun zuela. Beraz, honela delarik, XVII-garren mendearan lehen partekoa dugu guregana heldu ez dan bigarren argitalpen hori. Berri hauek ere emanak ditu Anai Berriotxoak *Boletin R.S.V.A.P.* delako aldizkarian, aurtengo lehen zenbakiaren 95-gn. orrialdean.

I. SAN MARTIN.





PUBLICACIONES

DE LA

REAL SOCIEDAD VASCONGADA
DE AMIGOS DEL PAIS

(Delegada del Consejo Superior de Investigaciones Científicas en Guipúzcoa)



MONOGRAFIA DE D. XAVIER MARIA DE MUNIBE, CONDE DE PEÑAFLOIDA, por Gregorio de Altube.

LA EPOPEYA DEL MAR. por M. Ciriquiain-Gaiztarro. (Agotado).

PASADO Y FUTURO DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA, por José María de Areilza.

HISTORIA DEL MONASTERIO DE SAN TELMO, por Gonzalo Manso de Zúñiga y Churruca.

ELOGIO DE D. ALFONSO DEL VALLE DE LERSUNDI, por Joaquín de Yrizar.

BREVES RECUERDOS HISTORICOS CON OCASION DE UNA VISITA A MUNIBE, por Ignacio de Urquijo.

LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS Y LA METALURGIA A FINES DEL SIGLO XVIII, por Manuel Laborde.

REVISTAS

BOLETIN DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS.

Ejemplar suelto: 25 Ptas.

Suscripción anual: 60 »

EGAN: Ejemplar suelto: 20 Ptas.

Suscripción anual: 50 »

Suscripción anual conjunta a BOLETIN Y EGAN: 80 Ptas.

MUNIBE.—Revista de Ciencias Naturales
Número suelto: 30 Ptas.

Redacción y Administración: Museo de San Telmo

SAN SEBASTIAN

